

# Nokia 6710 Navigator erabiltzailearen gida

---

ONESPEN ADIERAZPENA

CE 0434



Honen bidez, NOKIA CORPORATIONek adierazten du RM-491 telefonoak 1999/5/EC Arteztarauko oinarritzko baldintzak eta dagozkion gainerako xedapenak betetzen dituela . Onespen-adierazpen horren kopia bat [http://www.nokia.com/phones/declaration\\_of\\_conformity/](http://www.nokia.com/phones/declaration_of_conformity/) helbidean aurki daiteke.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Nokia, Nokia Connecting People, Navi, Mail for Exchange, N-Gage, OVI eta Nokia Original Enhancements logotipoa Nokia Corporation konpainiaren marka komertzialak edo marka erregistratuak dira. Nokia doinua Nokia Corporation-en soinu-marka bat da. Dokumentu honetan aipatutako gainerako produktuak eta konpainien izenak dagozkien jabeen ondasunak dira

Galarazita dago dokumentu honen edukia, zatika nahiz osorik, kopiatzea, igortzea, zabaltzea edo gordetzea, edozein modutan, Nokia konpainiak aldez aurretik idatzizko baimenik ematen ez badu. Nokia konpainiak etengabeko garapen politika bat du. Nokia konpainiak dokumentu honetan deskribatutako edozein produktutan aldaketak eta hobekuntzak egiteko eskubidea gordetzen du, aldez aurretik horren berririk eman gabe.

**symbian**

This product includes software licensed from Symbian Software Ltd ©1998-2009. Symbian and Symbian OS are trademarks of Symbian Ltd.



Java and all Java-based marks are trademarks or registered trademarks of Sun Microsystems, Inc.

Portions of the Nokia Maps software are ©1996-2009 The FreeType Project. All rights reserved.

Produktu honek MPEG- 4 Visual Portfolio License-ek emandako lizentzia du (i) jarduera pertsonal eta ez komertzialetan ari den kontsumitzaile batek MPEG- 4 Visual Standard-en arabera kodetutako informazioarekin erlazioatutako erabilpen pertsonal eta ez komertzialerako eta (ii) lizentziadun bideo hornitzaile batek emandako MPEG-4 bideoarekin erabiltzeko. Lizentzia batik ez da emango edo engaiatuko beste edozein erabilpenerako. Argibide gehigarriak, sustapena, barne edo erabilpen komertzialekin zerikusia dutenak barne, MPEG LA, LLC-tik lortu daitezke. Ikusi <http://www.mpegla.com>.

LEGEAK ONARTZEN DUEN NEURRIRIK HANDIENEAN, NOKIA EDO BERE BESTE EDOZEIN BAIMEN HORNITZAILEK EZ DU INONDIK INORA ERANTZUKIZUNIK IZANGO, EDOZEIN DATU EDO IRABAZIEN GALERAGATIK EDO EDONOLA SORTUTAKO KALTE BEREZI, USTEKABEKO, ONDORIOZKO EDO ZEHARKAKOENGATIK.

DOKUMENTU HONEN EDUKIAK "BERE HORRETAN" HORNITZEN DIRA. LEGEAK ESKATZEN DUENETIK AT, DOKUMENTU HONEN ZEHAZTASUNARI, FIDAGARRITASUNARI EDO EDUKIARI DAGOKIONEZ EZ DA INOLAKO BERMERIK EMATEN, EZ ESPLIZITU EZ INPLIZITUKI, SALEROSGARRITASUN ETA HELBURU JAKIN BATERAKO EGOKITASUNARI DAGOKION BERMEAK BARNE, BAINA HAUETARA MUGATU GABE. NOKIA KONPAINIAK, EDONIZ ETA AURRETIK OHARTARAZI GABE DOKUMENTU HAU BERRIKUSI EDO ERRETIRATZEKO ESKUBIDEA GORDETZEN DU.

Telefonoaren softwarearen alderantziko ingeniari-tza debekatuta dago aplikagarriak diren legeen mugen barruan. Erabiltzailearen gida honetan aipatutako Nokia konpainiaren adierazpen, berme, kalte eta erantzukizunei dagokien mugek Nokia konpainiaren baimen hornitzaileen adierazpen, berme, kalte eta erantzukizunak ere mugatuko dituzte.

Telefonoarekin batera emandako aparteko aplikazioak, Nokia taldekoak ez diren edo Nokiarekin zerikusirik ez duten pertsona edo erakundeek sortuak eta haien jabetzakoak izan daitezke. Nokiak ez du beste aplikazio horien copyright edo jabetza intelektualeen gain inolako eskubiderik. Beraz, Nokiak ez du inolako erantzukizunik hartzen azken erabiltzaileei laguntzeko orduan, aplikazioen funtzionalitatean, ez eta aplikazio edo material hauei buruzko informazioari dagokionez. Nokiak ez du inolako bermerik ematen aplikazio hauentzat.

**APLIKAZIO HORIEK BERE HORRETAN EMAN ZAIZKIZULA ONARTZEN DUZU, ERABILTZEAZ, APLIKAZIO HORIEK, INOLAKO BERME ESPLIZITU EDO INPLIZITURIK GABE, ETA LEGEAK BAIMENTZEN DUEN NEURRIAN. ERA BEREAN, EZ NOKIAK EZ BERE TALDEKOEK EZ DIZUTELA INOLAKO BERME ESPLIZITU EDO INPLIZITURIK ESKAINI EDO AURKEZTU ONARTZEN DUZU HONAKO ALDERDI HAUEI DAGOKIENEZ: (EZ HORIEI BAKARRIK, ORDEA): JABEGO BERMEAK, HELBURU JAKIN BATERAKO SALEROSTEKO AUKERA EDO EGOKITASUNA ETA APLIKAZIOAK BESTE INOREN PATENTERIK, COPYRIGHTIK, MERKATARITZA MARKARIK EDO BESTELAKO ESKUBIDERIK EZ URRATZEN EZ DUELA, BESTEAK BESTE.**

Produktu zehatzak eta produktu horientzako aplikazio eta zerbitzuak eskuratzeko aukera herrialde batetik bestera alda daiteke. Jo ezazu zure Nokia hornitzailearengana dauden produktu eta hizkuntzen aukeren berri izateko. Telefono honek Amerikako Estatu Batuetako eta beste herri batzuetako esportazio lege eta arauak bete behar dituzten osagai, teknologia edo softwarea izan ditzake. Debekatuta dago legea urratzea.

FCCren eta Kanadako Industria Sailaren oharra

Zure telefonoak irratia eta telebista interferentziak sor ditzake (telefonoa hargailu elektronikoko batetik oso gertu erabiltzen denean, adibidez). FCCk edo Kanadako Industria Sailak zure telefonoa erabiltzeari uzteko eska diezazukete, interferentzia horiek ezabatzerik ez balego. Laguntzarik behar izanez gero, zure inguruko zerbitzu-gunera jo. Telefono honek FCC-ko araudiaren 15. atala betetzen du. Telefonoa erabiltzeko bi baldintza hauek bete behar dira: (1) interferentzia kaltegarriak ez eragitea eta (2) jasotako interferentzia guztiak onartzea, nahi ez diren eragiketak sor ditzakeenak barne. Nokiak argiro onartzen ez duen aldaketarik eginez gero, erabiltzaileak ekipamendu hau erabiltzeko baimena gal lezake.

/Argitalpena 3 EU

# Edukia

Segurtasuna.....	7
Zure telefonoa.....	7
Sareko zerbitzuak.....	8

## 1. Lehen urratsak.....9

SIM txartela eta bateria sartu.....	9
Sartu memoria txartel bat.....	9
Kendu memoria txartela.....	10
Kargatu bateria.....	10
Piztu eta itzali telefonoa.....	11
Antenen kokapena.....	11
Konfigurazio ezarpenak.....	11

## 2. Telefonoa.....11

Teklak eta atalak.....	12
Zoom-eremua.....	13
Hasierako pantaila.....	13
Menuko bide erabilienak.....	13
Pantailako adierazleak.....	14
Deskonektatuta profila.....	16
Bateria aurrezpena.....	16
Menua.....	16
Bolumenaren kontrola.....	17
Teklatuaren blokeoa.....	17
Sarbide kodeak.....	17
Urruneko blokeoa.....	18
Deskargatu! zerbitzuari buruz.....	18
Konektatu entzungailu bateragarri bat.....	18
Uhala.....	18

## 3. Informazio erabilgarria.....19

Telefonoko laguntza.....	19
Software-eguneratzea.....	20
Erabili gabeko memoria.....	20
Bateriaren iraupena luzatu.....	20

## 4. Deien funtzioak.....22

Ahots-deiak.....	21
Bideo deiak.....	25
Dei ezarpenak.....	25
Partekatu bideoak.....	28
Internet-deiak.....	29

## 5. Multimedia.....30

Musika erreproduzitzaila.....	30
RealPlayer .....	31
Grabagailua.....	31

## 6. Kokapena.....31

GPS zerbitzuari buruz.....	32
Lagunduriko GPSa.....	32
Maps.....	33
Mugarriak.....	39
GPS datuak.....	39

## 7. Testua idatzi.....40

Testu input tradizionala.....	40
Testu iragarlea sartu.....	41
Aldatu idazketa-hizkuntza.....	41

Kopiatu eta ezabatu testua.....41

## 8. Mezuak.....42

Mezuak idatzi eta bidali.....42

Datuen, ezarpenen eta web zerbitzuen mezuak.....43

Mezu irakurtzailea.....43

Posta elektronikoa.....44

Mezuak SIM txartelean ikusi.....46

Informazio zerbitzuko mezuak.....46

Zerbitzu komandoak.....46

Mezuen ezarpenak.....46

## 9. Kontaktuak.....48

Kontaktuei buruz.....48

Kontaktuekin lan egin.....49

Kokapen informazioa.....49

Kontaktuen taldeak sortu.....49

Urruneko datu-base batean kontaktuak bilatu.....50

Kontaktu direktorioak kudeatu.....50

Kontaktuei tonuak esleitu.....50

Kontaktu ezarpenak aldatu.....50

## 10. Egutegia.....50

Egutegiari buruz.....51

Egutegi sarrerak sortzea.....51

Bilera eskaerak sortzea.....51

Bileren kokapena.....52

Egutegiaren ikuspegiak.....52

## 11. Argazkiak.....53

## 12. Kamera.....53

Argazkiak atera.....54

Atera argazki panoramiko bat.....54

Grabatu bideoak.....55

Kokapen informazioa.....55

## 13. Internet.....55

Web arakatzaila.....55

Sarean partekatu.....60

Nokiaren Bideo Zentroa.....61

Bilatu.....62

Nokia Musika Denda.....62

## 14. Pertsonalizazioa.....62

Pantailaren gaia aldatu.....63

Profilak .....63

Sentsorearen ezarpenak.....63

## 15. Ahots-komandoak.....64

Ahots komandoen ezarpenak.....64

## 16. Denbora antolatu.....64

Erlojuaren alarma.....65

Erlojuaren ezarpenak.....65

## 17. Bulegoko aplikazioak.....65

Hiztegia.....65

Bihurgailua.....66

Kalkulagailua.....66

Ohar aktiboak .....67

Quickoffice buruz.....68

<b>Edukia</b>	
Zip kudeatzailea.....	68
PDF reader.....	68
Oharrak.....	68
<b>18. Ezarpenak.....</b>	<b>68</b>
Ezarpen laguntzailea.....	69
Ziurtagirien kudeaketa.....	69
Osagarri arrunten ezarpenak.....	70
Jatorrizko ezarpenak berrezartzea.....	70
<b>19. Datuen kudeaketa.....</b>	<b>70</b>
Fitxategi kudeatzailea.....	71
Aplikazioak instalatu.....	71
Aplikazioak eta softwarea ezabatu.....	72
Gailuen kudeatzailea.....	72
Lizentziak.....	74
<b>20. Konexioak.....</b>	<b>75</b>
Transferitu edukia beste gailu batera.....	75
PCrako konexioak.....	76
Bluetootha.....	76
Datu-kablea.....	78
Sinkronizazioa.....	79
WLAN morroia.....	79
<b>21. Aholku ekologistak.....</b>	<b>81</b>
Energia aurreztea.....	81
Birziklatzea.....	81
Papera aurreztea.....	81
Informazio gehiago.....	81
<b>Osagarriak.....</b>	<b>82</b>
<b>Bateria.....</b>	<b>84</b>
Bateria eta kargagailuaren informazioa.....	84
Nokia bateria autentikatzeko jarraibideak.....	85
<b>Telefonoa zaintzea.....</b>	<b>86</b>
Birziklatu.....	87
<b>Segurtasunari buruzko informazio gehigarria.....</b>	<b>87</b>
Ume txikiak.....	87
Inguru eragilea.....	87
Aparatu medikoak.....	88
Ibilgailuak.....	88
Balizko ingurune leherkorak.....	89
Larrialdi deiak.....	89
Ziurtagiri informazioa (SAR).....	89
<b>Aurkibidea.....</b>	<b>91</b>

# Segurtasuna

Jarraibide erraz hauek irakurri. Jarraibideok ez betetzea arriskutsua edo legez kanpokoa izan daiteke. Informazio gehiago behar izanez gero, erabiltzailearen gida osoa irakurri.



## MODU SEGURUAN PIZTU

Ez piztu telefonoa haririk gabeko telefonoak erabiltzea debekatuta baldin badago edo interferentziarik edo arriskurik sor baliteke.



## ERREPIDEAN KONTUZ IBILTzea DA GARRANTZITSUENA

Herri bakoitzeko arau guztiak bete. Gidatzeko orduan, eskuak beti libre eduki autoa gidatzeko. Gidatzen ari zarenean, errepidean kontuz ibiltzea da garrantzitsuena.



## INTERFERENTZIAK

Haririk gabeko telefono guztiak interferentziak jasan ditzakete, eta horrek telefonoaren jarduna kaltetu dezake.



## DEBEKATUTAKO TOKIETAN ITZALI

Telefonoa erabiltzeko murrizketa guztiak bete. Hegazkinetan eta medikuntzako tresneria, erregai, produktu kimiko edo leherketen arriskua duten guneen inguruan telefonoa itzali.



## ZERBITZU HOMOLOGATUA

Langile homologatuek bakarrik instalatu edo konpondu dezakete telefonoa.



## OSAGARRIAK ETA BATERIAK

Osagarri eta bateria onartuak soilik erabili behar dira. Ez konektatu produktu bateraezinik.



## URAREKIKO ERRESISTENTZIA

Zure telefonoak ez du urarekiko erresistentziarik. Lehor mantentzea ezazu.

## Zure telefonoa

Gida honetan deskribatzen den haririk gabeko telefonoa (E)GSM 850, 900, 1800 eta 1900 sareak eta UMTS 900/1900/2100 HSPA sareak erabiltzeko homologatuta dago. Sareei buruzko informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Telefonoak konexio-metodo ugari onartzen ditu eta, ordenagailuak bezala, birusen eta bestelako eduki kaltegarrien eraginpean egon daiteke. Mezu, konektibitate eskaera, bilaketa eta deskargekin kontu berezia izan. Instalatu eta erabili soilik segurtasun eta babes egokia eskaintzen duten iturri fidagarrietako zerbitzu eta softwareak, hala nola, Symbian Signed ziurtagiria duten aplikazioak edo Java Verified™ azterketa gainditu dutenak. Zure telefonoan eta hari konektatutako edozein

## Segurtasuna

ordenagailutan birus kontrako edo bestelako segurtasun softwarea instalatzea gomendatzen da.

Baliteke telefonoak laster-markak eta Interneteko hirugarrenen guneetarako estekak instalatuta izatea; beraz, hirugarrenen guneetan sartzeko aukera izan dezakezu. Hauek ez daude Nokia konpainiarekin afiliatuta eta Nokia konpainiak ez du hauen inolako erantzukizunik bere gain hartzen. Gune hauetan sartzen bazara, kontutan hartu segurtasuna eta edukiak.



**Abisua:** Iratzargailua ez beste aukerarik erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa, haririk gabeko gailuen erabilerak interferentziarik edo arriskurik sor badezake.

Telefonoa erabiltzeko garaian, bete lege guztiak eta errespetatu tokian tokiko ohiturak eta besteen pribatutasun eta legezko eskubideak, copyright eskubideak barne. Copyright babesa dela eta, argazkiak, musika eta bestelako edukiak kopiatu, aldatu, igorri edo bidali edo birbidaltzea galarazita egon liteke.

Telefonoan gordetako informazio garrantzitsuaren segurtasun-kopiak egitea edo informazio hori idatziz gordetzea gomendatzen da.

Beste edozein gailutara konektatu aurretik, gailu horren erabiltzaile-gida irakurri, segurtasunari buruzko xehetasunen berri jasotzeko. Ez konektatu produktu bateraezirik.

Baliteke gidako irudiak zure telefonokoen berdinak ez izatea. Jo ezazu erabiltzailearen gidara zure gailuari buruzko informazio garrantzitsu gehiago izateko.

## Sareko zerbitzuak

Telefonoa erabiltzeko haririk gabeko zerbitzu-hornitzaile baten harpidedun izatea beharrezkoa da. Zenbait aukera ez daude erabilgarri sare guztietan, zenbait funtzioak zerbitzu-hornitzaileekin akordio bereziak izatea eska dezakete. Sareko zerbitzuak erabiltzean datu-transmisioak gauzatzen dira. Jo zerbitzu-hornitzaileara zure hornitzailearen sareko eta roaming sareetako datu-transmisio tarifak ezagutzeko. Zure zerbitzu-hornitzaileak zer kostu aplikatuko den azal dezake. Zenbait sarek sareko laguntza behar duten funtzioak erabiltzeko moduan eragiten duten murrizketak izan ditzakete, TCP/IP protokoloetan funtzionatzen duten eta hizkuntzaren araberako karaktereak dituzten WAP 2.0 protokoloak (HTTP eta SSL) bezalako teknologia zehatzak esaterako.

Zure zerbitzu-hornitzaileak telefonoko zenbait aukera ezgaitzeko edo ez aktibatzeko eskatu liezazuke. Kasu horretan, aukera horiek ez dira telefonoko menuan agertuko. Telefonoak menuaren izenak, menuaren ordena eta ikonoak bezalako elementuak pertsonaliza daitezke.



# 1. Lehen urratsak

## SIM txartela eta bateria sartu

Segurtasunez kentzea. Bateria kendu aurretik, beti telefonoa itzali eta kargagailua deskonektatu.

1. Kendu atzeko estalkia telefonoaren beheko aldetik altxatuta.
2. Altxa estalkia.
3. Bateria kentzeko, altxa ertz batetik.




4. Sartu SIM txartela bere euskarrian.

Ziurtatu txartelaren urre koloreko kontaktua telefonoan behera begira dagoela eta koskadun ertzua euskarriaren zirrikituari begira dagoela.



5. Ezarri bateria bere tokian.
6. Ezarri atzeko estalkia.



## Sartu memoria txartel bat

Erabili memoria-txartel bat telefonoaren memoria gordetzeko. Telefonoko informazioaren babeskopia ere egin dezakezu memoria-txartelean.

Erabili soilik Nokiak telefono honetan erabiltzeko onartuta dituen microSD txartelak bateragarriak. Nokiak onartutako sektoreko estandarrak erabiltzen ditu memoria txartelentzako, halere baliteke marka batzuk guztiz bateragarriak ez izatea. Bateriaezina den txartel bat erabiliz gero, txartela eta telefonoa kaltetu eta txartelean gordetako datuak honda daitezke.

Gorde memoria-txartela umeez eskuragarri izan ez ditzaten moduan.




Egiaztatu fabrikatzailearekin edo hornitzailearekin memoria-txartelen bateragarritasuna.

Memoria-txartela telefonoarekin etor daiteke eta sartuta egon daiteke. Sartuta ez badago, jarraitu pauso hauek:

1. Ireki memoria txartelaren zirrikituko estalkia (1).

## Lehen urratsak

2. Sartu txartela zirrikitan kontaktua behera begira duela (2).
3. Bultza txartela leunki bere lekuan geratu arte. Itxi zirrikituko estalkia (3).



## Kendu memoria txartela



**Garrantzitsua:** Ez atera txartela eragiketa batean txartela erabiltzen ari zaren bitartean. Hori eginez gero, txartela eta telefonoa kaltetu eta txartelean gordetako datuak honda daitezke.

1. Pizteko tekla sakatu eta hautatu **Memoria txartela atera > Bai**.
2. Ireki memoria txartelaren zirrikituko estalkia.
3. Bultza memoria txartela leunki atera dadin.
4. Atera txartela eta sakatu **Ados**.
5. Itxi zirrikituko estalkia.

## Kargatu bateria

Bateria fabrika kargatzen da partzialki. Telefonoak bateria gutxi duela adieraziz gero, jarraitu pauso hauek:

1. Konektatu bateria hartune batera.
2. Konektatu kargagailua gailuari.
3. Telefonoak bateria beteta dagoela adierazten duenean, deskonektatu kargagailua telefonotik eta, ondoren, hormako hartunetik.



Telefonoa ordenagailu bateragarri batera USB datu-kablearekin konektatuta ere karga dezakezu bateria.

1. Konektatu USB datu-kablea ordenagailuko USB atakara eta telefonora.
2. Bateria erabat kargatzen denean, deskonektatu USB datu-kablea.

USBaren kargatze-eraginkortasuna oso aldakorra da. Zenbait kasutan, denbora asko igaro daiteke bateria kargatzen eta telefonoa funtzionatzen hasi aurretik. Bateria ez da denbora jakin batez kargatu behar eta kargatzen ari den bitartean ere erabil dezakezu. Bateria gututz deskargatuta baldin badago,

kargagailuaren ikurra pantailan agertu arte edo deirik egin ahal izan arte minutu batzuk igaro litezke.

## Piztu eta itzali telefonoa

Eduki sakatuta pizteko tekla telefonoa pizteko eta itzaltzeko. Tekla hau laburki sakatuta dei aktiboa amaitzen da eta aplikazioa ixten da.

Telefonoak PIN kodea eskatzen badu, idatzi PIN kodea eta hautatu **Ados**.

Telefonoak blokeo kodea eskatzen badu, idatzi blokeo kodea eta hautatu **Ados**. Lehenetsitako blokeo kodea 12345 da.

Ordu-zona, ordu eta data egokiak zehazteko, hautatu zauden herrialdea eta idatzi tokiko ordua eta data.

## Antenen kokapena

Baliteke zure telefonoak antena barruan eta kanpoan izatea. Saihestu antena behar ez denean erabiltzen antena transmititzen edo jasotzen ari den bitartean. Antena ukitzeak komunikazioaren kalitatean eragina du; gainera, telefonoak beharrezkoa baino bateria gehiago gasta lezake eta, ondorioz, bateriaren iraupena murriz liteke.



hala nola, bideo-deiak eta abiadura handiko datu-konexioa aplikazioaren eragiketan zehar, telefonoa bero daiteke. Gehienetan hau normala izaten da. Telefonoa ongi ez dabilela irudituko balitzaizu, eraman ezazu zure inguruan dagoen baimendutako zerbitzu gunera.




## Konfigurazio ezarpenak

Multimedia mezularitza, posta elektronikoa, sinkronizazioa, zuzeneko erreproduktzioa eta arakatzailerak erabili aurretik ezarpen egokiak zehaztu behar dituzu telefonoan. Telefonoak automatikoki konfiguratu ditzake arakatzailerari, multimedia mezularitzari, sarguneei eta zuzeneko erreproduktzioari dagozkien ezarpenak SIM txartelean oinarrituta Bestela, Ezarpenen morroia erabil dezakezu ezarpenak konfiguratzeko. Ezarpenak telefonoan gorde dezakezun konfigurazio-mezu gisa jaso ditzakezu. Eskuragarritasunari buruzko informazio gehiagorako, jo zerbitzu hornitzaileari edo hurbilen duzun Nokia banatzaileari.

Konfigurazio-mezu bat jasotakoan ezarpenak automatikoki gordetzen eta aktibatzen ez badira, **1 mezu berri** bistaratzen da. Ezarpenak gordetzeko, hautatu **Erakutsi** > **Aukerak** > **Gorde**. Agian zerbitzu-hornitzaileak emandako PIN kodea idatzi beharko duzu.

## 2. Telefonoa

### Teklak eta atalak



- 1 — Entzungailua
- 2 — Pantaila
- 3 — Funtzio tekla
- 4 — Menu tekla
- 5 — Deitzeko tekla
- 6 — Nabigazio-tekla GPS argiarekin
- 7 — Bigarren kamera

- 8 — Argi-sentsorea
- 9 — Zoom-eremua
- 10 — Navi™ tekla; aurrerantzean nabigazio-tekla
- 11 — Ezabatzeko tekla C
- 12 — Pizteko/Amaitzeko tekla
- 13 — Zenbakien tekla



- 14 — Nokia AV konektorea
  - 15 — Kargagailuaren konektorea
  - 16 — Bolumen/Zoom tekla
  - 17 — Argazkiak ateratzeko tekla
  - 18 — Kameraren flasha
  - 19 — Kamera nagusia
  - 20 — Bozgorailu estereoa
  - 21 — Micro USB konektorea
  - 22 — Memoria-txartelaren zirrikitua
  - 23 — Uhalaren zuloa
  - 24 — Mikrofonoa
- Mantendu telefonoa iman eta eremu magnetikoengandik urrun.

## Zoom-eremua

Telefonoak zoom-eremu bat du pantailaren beheko aldean. Zoom-eremuan, pasa hatza ezkerrera edo eskuinera handiagozko edo txikiagozko.



Zoomak Maps eta Argazkiak aplikazioetan, arakatzailan eta kameran funtzionatzen du.

## Hasierako pantaila

Telefonoa piztutakoan eta sarera erregistratutakoan telefonoa hasierako pantailan eta erabiltzeko prest dago.


Erabilitako azken zenbakien zerrenda irekitzeko, sakatu deitzeko tekla.

Ahots-erantzungailura deitzeko, eduki sakatuta **1**.

Ahots-komandoak edo ahotsezko markatzea erabiltzeko, eduki sakatuta eskuineko aukeraketa tekla.


Profila aldatzeko, sakatu pizteko tekla eta hautatu profil bat.


Sarera konektatzeko, eduki sakatuta **0**.

Hasierako pantaila aldatzeko, hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Pertsonalizazioa** > **Egonean modua** eta hurrengoetatik:


- **Egoneko gaia** — Hautatu hasierako pantailaren gaia.
- **Lasterbideak** — Gehitu aplikazioen edo gertaeren lasterbideak edo esleitu lasterbideak nabigazio teklari hautatutako hasierako pantailaren gaiaren arabera.


## Menuko bide erabilienak


Bihurgailua erabiltzeko, hautatu  > **Antolatzailea** > **Bihurgailua**.


Kalkulagailua erabiltzeko, hautatu  > **Antolatzailea** > **Kalkulag..**

## Telefonia

Ordua eta data kudeatzeko edo alarma bat ezartzeko, hautatu  > **Aplikazioak** > **Erlojua**.


Mezularitzako ezarpenak kudeatzeko, hautatu  > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak**.


Musika erreproduzitzailea irekitzeko, hautatu  > **Aplikazioak** > **Mus. errep..**


FM irratia irekitzeko, hautatu  > **Aplikazioak** > **Irratia**.

Deiei erlazioatutako ezarpenak kudeatzeko, hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Telefonia**.

Telefonoko laguntza irekitzeko, hautatu  > **Aplikazioak** > **Laguntza** > **Laguntza**.

Pantailako gaia aldatzeko, hautatu  > **Ezarpenak** > **Gaiak**.

Profilak pertsonalizatzeko, hautatu  > **Ezarpenak** > **Profilak**.

Menuaren ikuspegia aldatzeko, hautatu  > **Aukerak** > **Aldatu menuaren ikusp..**

## Pantailako adierazleak



3G Telefonoa UMTS edo GSM sare batean erabiltzen ari da (sareko zerbitzua). Ikonoaren ondoan dagoen barrak zauden lekuan sarearen seinale indarra jakinarazten du. Barra zenbat eta handiago izan, orduan eta indartsuagoa izango da seinalea.

**3.5G** HSDPA (sareko zerbitzua) aktibatuta dago UMTS sarean.



Telefonoa konexio gabe profila erabiltzen ari da eta ez dago sare zelularra konektatuta.



Bateriaren karga maila. Barra zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa izango da kargaren maila.



Mezuak ataleko Sarrera ontzian irakurri gabeko mezuak dituzu.



Mezu elektronikoko bat jaso duzu urruneko postontzian.



Mezuak ataleko Irteera ontzian bidali gabeko mezuak daude.



Galdutako deiak dituzu.

















Telefonoaren teklak blokeatuta daude.




Alarma bat aktibo dago.



Modu isila aktibatu duzu eta telefonoak ez du soinurik egingo dei edo mezu bat jasotzerakoan.

-  Bluetooth konexioa aktibatuta dago.
-  Bluetooth konexio bat ezarri da. Adierazleak dardara egiten duenean, telefonia beste batekin konektatzen saiatzen ari dela esan nahi du.
-  GPRS datu-pakete konexio bat eskuragarri dago (sareko zerbitzua).  ikurrak konexioa aktibo dagoela adierazten du.  ikurrak konexioa zain dagoela adierazten du.
-  EGPRS datu-pakete konexio bat eskuragarri dago (sareko zerbitzua).  ikurrak konexioa aktibo dagoela adierazten du.  ikurrak konexioa zain dagoela adierazten du.
-  UMTS datu-pakete konexio bat eskuragarri dago (sareko zerbitzua).  ikurrak konexioa aktibo dagoela adierazten du.  ikurrak konexioa zain dagoela adierazten du.
-  HSPA onartzen da eta eskuragarri dago (sareko zerbitzua). Ikonoa desberdina izan daiteke herrialdearen arabera.  ikurrak konexioa aktibo dagoela adierazten du.  ikurrak konexioa zain dagoela adierazten du.

-  Telefonoari hari gabeko LAN (WLAN) konexioak bilatzeko agindu diozu, eta badago WLAN konexio bat erabilgarri.
-  WLAN konexio bat aktibo dago enkriptatu gabeko sare batean.
-  WLAN konexio bat aktibo dago enkriptatutako sare batean.
-  Telefonia ordenagailu batera konektatuta dago USB datu-kable baten bidez.
-  Dei guztiak beste zenbaki batera desbideratzen dira.
-  Entzungailu bat telefonora konektatuta dago.
-  Autorako kit eskulibre bat telefonora konektatuta dago.
-  Audifono egokitzaile bat telefonora konektatuta dago.
-  Telefonia sinkronizatzen ari da.

## Telefonia



GPS adierazleak satelitearen seinalearen eskuragarritasuna eta indarra erakusten ditu. Barra bat satelite bat da. Telefonoak sateliteetatik zure kokapena kalkulatzeko behar adina datu jasotzen dituzenean, barra berde kolorekoa bilakatzen da.

Adierazle gehiago ere bistara daitezke.

## Deskonektatuta profila



**Garrantzitsua:** Lineaz kanpoko profilean ezin da deirik egin edo jaso, ezta haririk gabeko sare estaldura eskatzen duten beste funtzio batzuk erabili ere. Hala ere, zure telefonoan ezarritako larrialdi zenbaki ofizialera dei liteke ere. Deiak egin ahal izateko, lehenik eta behin profilak aldatu eta, gero, telefonoaren funtzionalitatea aktibatu behar da. Gailua blokeatua izan bada, sar ezazu blokeatzeko kodea. Konexiorik gabeko profila aktibatzeko, sakatu pizteko tekla eta hautatu **Lineaz kanpo**.

Beste profil batera aldatzeko, sakatu pizteko tekla eta hautatu beste profil bat.

Konexio gabeko modua aktibatuta dagoenean, irati-frekuentzia bidezko konexio guztiak murrizten dira. Dena den, telefonia erabil dezakezu SIM txartelik gabe eta irratia edo musika entzun. Itzali telefonia mugikorren erabilera debekatuta dagoen inguruetan.

## Bateria aurrezpena

Hautatu > **Ezarpenak** > **Ezarpenak**.

Pantaila babesaren ezarpenak zehazteko, hautatu **Orokorra** > **Pertsonalizazioa** > **Pantaila** eta hurrengoetatik:

- **Energia aurrezl. iraup.** — Zehaztu bateriaren aurrezpena aktibatzeko igaro beharreko tartea.
- **Argiaren iraupena** — Zehaztu pantaila ilundu aurretik igaro beharreko tartea.

## Menua

Hautatu .

Menuan telefonoko funtzioetara sar zaitezke.

Aplikazio edo karpeta bat irekitzeko, hautatu elementua.

Menu funtzioen ordena aldatuz gero, agian ez da erabiltzailearen gida honetan deskribatutako ordenarekin bat etorriko.

Aplikazioetako elementuak markatzeko eta desmarkatzeko, sakatu #.

Jarraian dauden elementuak markatzeko edo desmarkatzeko, eduki sakatuta # eta joan gora edo behera.

Menuaren ikuspegia aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aldatu menuaren ikusp.**

Aplikazio edo karpeta bat itzeko, hautatu **Aukerak** > **Irten**.

Trekitako aplikazio batetik bestera joateko, eduki sakatuta eta hautatu aplikazioa.



Aukera bat erabiltzen ari zaren bitartean beste aplikazio bat martxan izateak bateria kontsumo handiago suposatzen du, eta beraz, bateriaren iraupena murriztu egiten da.

## Bolumenaren kontrola




**Abisua:** Bolumen altuarekin jarraian denbora gehiegi egoteak zure entzumena kalteku dezake. Entzun musika bolumen egokian eta ez eduki telefonoa belarriaren ondoan bozgorailua abian denean.

Dei batean zehar edo audio fitxategiak entzuterakoan entzungailuaren edo bozgorailuaren bolumena egokitzeko, sakatu bolumen-teklak.

Dei batean bozgorailua aktibatzen edo desaktibatzen, hautatu **Bozgorail.** edo **Telefonoa**.

## Teklatuaren blokeoa

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Orokorra**.

Egonean denbora jakin bat igaro ondoren teklata automatikoki blokeatzea zehazteko, hautatu **Segurtasuna** > **Telefonoa eta SIM txart.**, joan **Tekl. autoblokleo tartea** aukerara, hautatu **Aldatu** > **Erabiltzail.** zehaztua eta nahi duzun denbora.

Tapa labainkorra ixtean teklata blokeatuko den ala ez zehazteko, hautatu **Diapo. konfig.** > **Teklatu-blokeo aktibaz.** > **Diapo. ixtean aktib..**

Teklatua desblokeatzeko, ireki tapa edo sakatu ezkerreko aukeraketa tekla eta hautatu **Ados** 1,5 segundo baino lehen.

Telefonoa edo teklata blokeatuta egonda ere, telefonoan programatutako larrialdiko zenbaki ofizialera deitu ahal izango da.


## Sarbide kodeak

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak**.

Telefonoaren sarbide kode eta segurtasun ezarpenak zehazteko, hautatu **Orokorra** > **Segurtasuna** > **Telefonoa eta SIM txart.** eta hurrengoetatik:

- PIN (UPIN) kodea, SIM (USIM) txartelarekin eskuratzen dena, txartela baimenik gabe erabiltzea ekiditeko da.
- PIN2 (UPIN2) kodea, SIM (USIM) txartel batzuekin eskuratzen dena, zerbitzu jakin batzuetara sartzeko erabiltzen da.
- PUK (UPUK) eta PUK2 (UPUK2) kodeak SIM (USIM) txartelarekin eskura daitezke. PIN kodea hiru aldiz jarraian oker idatziz gero, PUK kodea eskatzen da. PUK kodea SIM txartelarekin jaso ez baduzu, jo zerbitzu-hornitzaileara.
- Segurtasun kodeak telefonoa baimenik gabe erabiltzea ekiditen lagunduko dizu. Kodea sor eta alda dezakezu eta telefonoa kodea eskatzeko ezar dezakezu. Kode berria ezkutuan, leku seguru batetan eta telefonotik urrun gorde. Kodea ahazten baduzu eta telefonoa blokeatuta badago, baliteke telefonoak ordaindu beharreko zerbitzuak behar izatea. Informazio gehiagorako jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.
- Debeku pasahitza beharrezkoa da telefonoan deien debekuak erabiltzeko (sareko zerbitzua).

## Urruneko blokea

Telefonia beste gailu batetik blokea dezakezu testu-mezu bidez (5-20 karaktere artekoa). Telefonia urrunetik blokeatu ahal izateko eta blokeo-mezua zehazteko, hautatu  > **Ezarpenak > Ezarpenak > Orokorra > Segurtasuna** eta **Telefonia eta SIM txart.** > **Urruneko telef. blok..** Idatzi mezua edukia, egiaztatu eta idatzi blokeo-kodea.

Telefonia blokeatzeko, bidali blokeo-mezua testu-mezu gisa zure telefono zenbakira. Telefonia desblokeatzeko, hautatu **Desblok.** eta idatzi blokeo-kodea.

## Deskargatu! zerbitzuari buruz

Aukeratu  > **Deskargatu!**

Deskargatu! zerbitzuarekin, edukiak, zerbitzuak eta aplikazioak ezagutu, aurreikus, eros, deskarga edo eguneratu daitezke. Jokoak, dei tonuak, horma paperak, aplikazioak eta askoz gehiago daude eskuragarri. Elementuak zerbitzu hornitzaile desberdinen karpetetan eta katalogoetan sailkatuta daude. Eskuragarri dauden produktuak zerbitzu hornitzailearen arabera dira.

Deskargatu! zerbitzuak eduki berriekin sartzeko zure sareko zerbitzua erabiltzen du. Deskargatu! zerbitzuaren bidez eskuragarri dauden beste elementuei buruzko informazioa lortzeko, jo zerbitzu hornitzailearengana edo elementuaren fabrikatzailearengana.

Deskargatu! zerbitzuak eguneraketak etengabe jasotzen ditu eta zure zerbitzu hornitzaileak eskaintzen dizun edukirik berriena ematen dizu.

Elementuek tarifa osagarriak izan ditzakete, baina normalean aurrebista doakoa da. Tarifa gehigarri buruzko informazio gehiagorako, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin edo elementuaren hornitzailearekin.

Deskargatu! zerbitzuaren edukia eskuz eguneratzeko, aukeratu **Aukerak > Freskatu edukia.**

## Konektatu entzungailu bateragarri bat.

Irteera seinala igortzen duen produkturik ez konektatu, gailua kalte bailezakete. Ez konektatu tentsio iturririk Nokia AV konektorerara.

Nokia telefono honekin erabiltzeko onartu ez duen aurikular edo bestelako gailu osagarrien bat Nokia AV konektorerara konektatzerakoan, ipini arreta berezia bolumenari.



## Uhala

Sartu uhala irudian agertu bezala eta estutu.




### 3. Informazio erabilgarria

Begiratu [www.nokia.com/support](http://www.nokia.com/support) edo zure herrialdeko Nokiaren web orrialdea erabiltzailearen azken gida, argibide gehigarriak, saretik produktuak jaisteak eta eskuetan daukazun Nokia produktuaren inguruko zerbitzuak jasotzeko.



#### Telefonoko laguntza

Telefonoak aplikazioak erabiltzen laguntzeko argibideak dauzka.

Menu nagusitik laguntza irekitzeko, aukeratu  > **Aplikazioak** > **Laguntza** > **Laguntza** eta argibideak behar dituen aplikazioa.

Aplikazio bat irekita dagoela, uneko ikuspegiaren laguntzara sartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Laguntza**.

Argibideak irakurtzen ari zarenean, laguntza testuaren tamaina aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Letra tamaina txikitu** edo **Letra tamaina handitu**.

Laguntzaren amaieran erlazioatutako gaietarako estekak aurkituko dituzu. Azpimarratutako hitz bat aukeratzen baduzu, azalpen labur bat azalduko da. Laguntzak ondorengo adierazleak erabiltzen ditu:  erlazioatutako gai baterako esteka erakusten du  azaltzen ari den aplikazioaren esteka erakusten du

Argibideak irakurtzen ari zarela, laguntzatik hondoan dagoen aplikaziora joateko (eta alderantziz), eduki sakatuta menu tekla eta aukeratu irekita dauden aplikazioen zerrendan.

## Software-eguneratzea

Baliteke Nokia software-eguneratzea, funtzio berriak, hobekuntza eta erabilera hobetuak sortzea. Ordenagailuko Nokia Software Updater aplikazioaren bidez eska ditzakezu eguneratze hauek. Baliteke software-eguneratzeak produktu guztientzako edo bere aldagai guztientzako eskuragarri ez izatea. Baliteke operadore guztiak eskuragarri dauden azken software-bertsioak ez onartzea.

Gailuaren softwarea eguneratzeko, Nokia Software Updater aplikazioa eta Microsoft Windows XP edo Vista sistema eragilea instalatuta daukan PC bateragarri bat beharrezkoak dira, eta baita banda zabaleko interneteko sargunea eta datuen kable bateragarria gailua ordenagailura konektatzeko ere.



**Abisua:** Softwarearen bertsio berriak instalatzerakoan, ezin da telefonoa erabili, ezta larrialdi deietarako ere, instalazioa amaitu eta telefonoa berrabiarazi arte. Egiaztatu datuen segurtasun-kopiak egiten dituzula softwarea eguneratu aurretik.

Informazio gehiago lortzeko eta Nokia Software Updater aplikazioa deskargatzeko, [www.nokia.com/softwareupdate](http://www.nokia.com/softwareupdate) edo zure herrialdeko Nokia webgunea bisitatu.

Zure sareak hari gabeko software-eguneratzeak onartzen baldin baditu, hauek gailuaren bidez ere eska ditzakezu.



**Aholkua:** Telefonoaren softwarearen bertsioa ikusteko, idatzi **\*#0000#** hasierako pantailan.

## Erabili gabeko memoria

Datu mota desberdinetarako zenbat memoria libre dagoen ikusteko, aukeratu  > **Antolatzailea** > **Fitxat.-kud..**

Telefonoko funtzio askok memoria erabiltzen dute datuak gordetzeko. Telefonoak memoria gutxi geratzen dela jakinarazten du.

Memoria libre uzteko, transferitu datuak beste memoria batera (ahal bada) edo ordenagailu bateragarri batera.

Behar ez dituzun datuak ezabatzeko, erabili Fitxategi kudeatzailea edo dagokion aplikazioa. Elementu hauek ezaba daitezke:

- Mezularitza karpeta dauden mezuak eta postontzitik jaitsitako mezu elektronikoak.
- Gordetako webguneak
- Kontaktuen informazioa
- Egutegiko oharra
- Aplikazio kudeatzailean agertzen diren baina erabiltzen ez diren aplikazioak
- Instalatutako aplikazioen instalazio fitxategiak (.sis edo .six fitxategi luzapenekin). Instalazio fitxategien babeskopia egin ordenagailu bateragarri batean.
- Irudiak karpeta dauden irudiak eta bideoak.

## Bateriaren iraupena luzatu


Telefono honetako funtzio batzuk bateria erabilera aragozten dute eta, ondorioz, bateriaren iraupena


murrizten dute. Bateria aurrezteko, kontutan izan honako hau:


- Bluetooth konexioa erabiltzen duten funtzioek, edo beste funtzio batzuk erabili bitartean hondoan funtzionatzea ahalbidetzen duten funtzioek, bateriaren beharra areagotuko dute. Desaktibatu Bluetooth konexioa behar ez duzunean.
- Hari gabeko WLAN konexioa erabiltzen duten funtzioek edo beste funtzio batzuk erabili bitartean atzeko planoan funtziona dezaketen funtzioek bateriaren kontsumoa areagotzen dute. Telefonoaren WLAN konexioa desaktibatu egiten da konektatzen ari ez denean, sarbide puntu batetara konektatuta ez dagoenean edo eskuragarri dauden sareak bilatzen ari ez denean. Bateriaren erabilera are gehiago murrizteko, telefonoak hondoan sareak ez bilatzea edo sareak ez horren sarri bilatzea aukera dezakezu.
- Konexio-ezarpenetan **Pakete-datuak > Erabilg. dagoenean** aukera gisa ezartzen baduzu eta datu-pakete estaldurarik (GPRS) ez badago, telefonoa etengabe saiatuko da datu-pakete konexio bat ezartzen. Telefonoaren bateriaren iraupena areagotzeko, aukeratu **Pakete-datuak > Behar denean**.
- Mapak aplikazioak mapa berrien informazioa deskargatzen du mapako eremu berrietara mugitzen

zarenean, honek bateriaren kontsumoa areagotzen duelarik. Mapa berrien deskarga automatikoa galeraz dezakezu.

- Zure eskualdean telefonoak jasotzen duen sarearen seinalea asko aldatzen bada, telefonoak eskuragarri dauden sareak bilatu behar ditu behin eta berriro. Horrela, bateriaren kontsumoa areagotzen da.

Hautatu  > **Ezarpenak > Ezarpenak** eta **Telefonoa > Sarea**.

Sarearen ezarpenetan sarea modu dualean ezartzen bada, telefonoak UMTS sareak bilatzen ditu. GSM sareak bakarrik erabiltzeko, hautatu  > **Ezarpenak > Ezarpenak** eta **Telefonoa > Sarea > Sare modua > GSM**.

- Pantailaren argiak bateriaren kontsumoa areagotzen du. Pantailaren ezarpenetan, pantailak itzaltzeko behar duen argiaren denbora-muga ezar dezakezu eta argiaren egoera aztertzen duen argi-sentsorea egoki dezakezu. Hautatu  > **Ezarpenak > Ezarpenak** eta **Orokorra > Pertsonalizazioa > Pantaila**.
- Aplikazioak hondoan abian uzten badituzu, bateriaren erabilera areagotuko da. Erabiltzen ari zen zaren aplikazioetara sartzeko, eduki sakatuta menu tekla eta hautatu aplikazioa.

## 4. Deien funtzioak

### Ahots-deiak

Deiak murrizten dituzten segurtasun-aukerak gaituta egonda ere (deiak blokeatzea, erabiltzaile talde itxia eta markatze finkoa, adibidez), telefonoan programatutako larrialdiko zenbaki ofizialera deitzea dago. Deiak blokeatzeko eta deiak desbideratzeko moduak ezin dira aldi berean gaituta eduki.

Telefonoa edo teklatura blokeatuta egonda ere, telefonoan programatutako larrialdiko zenbaki ofizialera deitu ahal izango da.

### Deiak egin

Dei bat egiteko, idatzi telefono zenbakia, eskualde kodea barne, eta sakatu dei tekla.



**Aholkua:** nazioarteko deietan, gehitu nazioarteko aurrezenbakia ordezkatzeko duen + ikurra, herrialdearen aurrezenbakia, lurraldearen aurrezenbakia (beharrezkoa izanez gero, hasierako 0 kendu) eta idatzi telefono zenbakia.

Deia amaitzeko edo dei saiakera ezeztatzeko, sakatu bukatzeko tekla.

Gordetako kontaktuak erabiliz dei bat egiteko, ireki kontaktuak. Idatzi izenaren lehenengo hizkiak, zoaz izenera eta sakatu deitzeko tekla.

Erregistroa erabiliz dei bat egiteko, sakatu deitzeko tekla deitzen saiatu zaren edo deitu dituzun azken 20 zenbakiak ikusteko. Zoaz nahi duzun zenbakira edo izenera eta sakatu deitzeko tekla.

Dei aktibo baten bolumena egokitzeko, erabili bolumen teklak.

Ahots-dei batetik bideo-dei batera aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aldatu bideo-deira**. Telefonoak ahots-deia bukatzen du eta hartzaileari bideo-dei bat egiten dio.

### Deia zain

Beste dei bat abian izan bitartean dei bat erantzun dezakezu. Deiak zain aktibatzeko, **Ezarpenak** > **Telefonoa** > **Deiak** > **Deia zain** aukeratu (sare zerbitzua).

Zain dagoen deia erantzuteko, deitzeko tekla sakatu. Lehenengo deia atxikitzen da.

Dei batetik bestera aldatzeko, **Trukatu** aukeratu. Sarrerako dei bat edo atxikitutako dei bat dei aktibo batekin konektatzeko eta zu deietatik deskonektatzeko, **Aukerak** > **Transferentzia** aukeratu. Dei aktiboa amaitzeko, **Bukatu** tekla sakatu. Bi deiak amaitzeko, **Aukerak** > **Dei guztiak amaitu** aukeratu.

## Ahots bidezko markatzea

Zure telefonoak ahots-komando hobetuak onartzen ditu. Ahots-komando hobetuek ez dute erabiltzailearen ahotsaren arabera funtzionatzen, beraz ez dago aurretik ahots-etiketak grabatzeko beharrik. Telefonoak ahots-etiketak sortzen ditu kontaktuen sarreretan eta zuzeneko ahots-etiketekin konparatzen ditu. Telefonoko ahots-egiaztapena erabiltzaile nagusiaren ahotsa egokitzen da ahots-komandoak hobeto ezagutzeko.

Kontaktuen txartelean gordetzen den izen edo ezizena kontaktu bati dagokion ahots-etiketa da. Sintetizatutako ahots-etiketa entzuteko, kontaktu txartel bat ireki eta aukeratu **Aukerak** > **Ahots-etiketaren xehet.** > **Erreprod. ahots-etiketa.**

## Dei bat egin ahots-etiketa baten bidez



**Oharra:** Ahots identifikadoreak erabiltzea zaila izan daiteke ingurune zaratatsu batean edo larrialdi batean; beraz, egoera guztietan ez da gomendatzen ahotsez markatutako deietan fidatzea.


Ahots bidezko markatzea erabiltzen duzunean, bozgorailua erabiltzen da. Telefonoa zugandik distantzi laburrean eutsi ahots-etiketa ahoskatzerakoan.

- Ahots bidezko markatzea erabiltzeko, egonean moduan, eskuineko aukeraketa tekla eduki sakatuta. Aurikular bateragarri bat aurikularraren teklarekin eransten bada, ahots bidezko markatzea hasteko aurikularraren tekla eduki sakatuta.

- Tonu labur bat entzungo da eta **Hitz egin orain** agertuko da. Kontaktuen txartelean gordetzen den izen edo ezizena argi ahoskatu.
- Telefonoak ezagututako kontaktuaren sintetizatutako ahots-etiketa bat erreproduzitzen du aukeratutako hizkuntzan, eta izena eta zenbakia erakusten ditu. Ez badiozu kontaktu horri deitu nahi, aukeratu **Hurrengoa** 2.5 segundo baino gutxiagotan beste aukera parekideen zerrenda ikusteko edo **Irten** aukeratu ahots bidezko markatzea ezeztatzeko.


Izen bati zenbaki ugari esleitu bazaizkio, telefonoak zenbaki lehenetsia aukeratzen du (baten bat ezarri bada). Bestela, telefonoak kontaktu txartelean lehenengo izen eskuragarria aukeratzen du.

## Markaketa bizkorra

Aukeratu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Deiak** > **Markaketa bizkorra.**

Markaketa bizkorrarekin, zenbaki tekla bat sakatuta edukiz hasiera pantailan zaudenean dei bat egin dezakezu.

Markaketa bizkorra aktibatzeko, aukeratu **Aktibatu.**

Zenbaki tekla bat telefono zenbaki bati esleitzeko, aukeratu  > **Ezarpenak** > **Marka. bizk..** Zoaz pantailako zenbaki teklara (2 - 9) eta aukeratu **Aukerak** > **Esleitu.** Aukeratu kontaktuetatik nahi duzun zenbakia.

Zenbaki tekla batera esleitutako telefono zenbakia ezabatzeko, zoaz markaketa bizkorreko teklara eta aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu.**

## Deien funtzioak

Zenbaki tekla batera esleitutako telefono zenbakia aldatzeko, zoaz markaketa bizkorreko teklara eta aukeratu **Aukerak > Aldatu**.

## Ahots-postontzia



Aukeratu  > **Ezarpenak > Dei-poston..**

Ahots-postontzia lehenengo aldiz irekitzen duzunean, zure ahots-postontziaren zenbakia sartzeko eskatuko zaizu.

Zure ahots-postontzira deitzeko, zoaz ahots-postontzira eta aukeratu **Aukerak > Deitu ahots-postontzira**.

Zure bideo-deien postontzira deitzeko, zoaz Bideo-deien postontzira eta aukeratu **Aukerak > Deitu bideo-deien post..**

Telefonoan sare deien xehetasunak konfiguratu badituzu eta Internet-deien postontzi bat badaukazu, postontzira deitzeko, zoaz postontzira eta aukeratu **Aukerak > Deitu Intern. deien post..**

Hasiera pantailan postontzira deitzeko, eduki sakatuta **1**, edo sakatu **1** eta ondoren deitzeko tekla. Aukeratu deitu nahi duzun postontzia.

Postontziaren zenbakia aldatzeko, aukeratu postontzia eta **Aukerak > Zenbakia aldatu**.

## Telekonferentzia bat hasi

1. Konferentzia dei bat egiteko, idatzi kidearen telefono zenbakia eta sakatu deitzeko tekla.
2. Kideak erantzuten duenean, aukeratu **Aukerak > Dei berria**.

3. Kide guztiei dei bat egin diezunean, aukeratu **Aukerak > Telekonferentzia** deiak konferentzia dei batean batzeko.

Telefonoaren mikrofonoa deian zehar isilarazteko, aukeratu **Aukerak > Mututu**.

Konferentzia deitik kide bat baztertzeko, zoaz kidera eta aukeratu **Aukerak > Telekonferentzia > Baztertu parte-hartzaile..**

Bakarka konferentziako kide batekin hitz egiteko, zoaz kidera eta aukeratu **Aukerak > Telekonferentzia > Pribatua**.

## Deiak erantzun


Dei bat erantzuteko, sakatu deitzeko tekla.

Dei bati uko egiteko, sakatu bukatzeko tekla.

Deia erantzun ordez tonua isilarazi nahi baduzu, aukeratu **Isilarazi**.

Dei aktibo bat daukazunean eta deia zain funtzioa (sare zerbitzua) aktibatuta dagoenean, sakatu deitzeko tekla dei berri bat erantzuteko. Lehen deia itxaroten jartzen da. Dei aktiboa amaitzeko, Bukatu tekla sakatu.

## Deien eta datuen erregistroak

Aukeratu  > **Erregistroa**.

Duela gutxi galdutako, jasotako eta egindako deiak ikusteko, aukeratu **Azken deiak**.






**Aholkua:** Hasiera pantailan zaudenean markatutako zenbakiak ikusteko, sakatu deitzeko tekla.

Jasotako eta egindako deien iraupena ikusteko, aukeratu **Deien iraupena**.

Datu-pakete konexioetan transferitutako datu kopurua ikusteko, aukeratu **Pakete-datuak**.

## Bideo deiak

### Bideo-dei bat egin

Bideo-dei bat egiteko, idatzi telefono zenbakia edo aukeratu hartzailea kontaktu zerrendan eta **Aukerak** > **Deitu** > **Bideo-deia**. Bideo-deia hasten denean, telefonoaren kamera aktibatzen da. Kamera jadanik erabiltzen ari bazara, bideo bidalketa desgaitzen da. Deia hartzailak bideoa bidali nahi ez badu, irudi geldo bat agertuko da. Zure telefonoak bideoaren ordez bidaliko duen irudia ezartzeko, aukeratu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Deiak** > **Irudia bideo-deian**.

Audio, bideo edo bideo eta audio bidalketa desgaitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezgaitu** > **Audioa bidaltzea, Bideoa bidaltzea** edo **Aud. eta bid. bidaltzea**.

Bideo-dei aktibo baten bolumena egokitzeko, erabili bolumen tekla.


Bozgorailua erabiltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aktibatu bozgorailua**. Bozgorailua isilarazteko eta aurikularrak erabiltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aktibatu telefonoa**.

Irudien lekua aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Trukatu irudiak**.

Pantailako irudia gerturatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Zooma** edo mugitu gora edo behera.

Bideo-deia amaitzeko eta ahots-dei berri bat hartzaile berari egiteko, aukeratu **Aukerak** > **Ahots deira aldatu**.

### Bideo dei bat erantzun edo ukatu

Bideo dei bat iristen denean,  agertzen da.


Bideo deia erantzuteko, deitzeko tekla sakatu. **Bideo irudia dei egileari bidaltzea onartu?** agertuko da. Zuzeneko bideoa bidaltzen hasteko, **Bai** aukeratu.

Bideo deia aktibatzen ez duzun bitartean, deitzailearen soinua besterik ez duzu entzungo. Bideoaren ordez pantaila gris bat agertzen da. Pantaila grisa ikusi ordez telefonoaren kamerarekin ateratako argazki bat ikusteko, **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Telefonoa** > **Deiak** > **Irudia bideo-deian** aukeratu.

Bideo deia amaitzeko, Bukatu tekla sakatu.

## Dei ezarpenak

### Deiaren ezarpenak

Aukeratu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Deiak**.


Aukeratu hurrengo artetik:

- **Nire zenbakia bidali** — Erakutsi zure telefono zenbakia deitzen ari zaren pertsonari.
- **Nire Intern. dei. ID bidali** — Erakutsi zure sare deiaren helbidea sare deia erabiliz deitzen ari zaren pertsonari.

## Deien funtzioak

- **Deia zain** — Aukeratu telefonoa sarrerako deiak daudenean jakinaraztea nahi duzun ala ez dei batean zaudenean (sare zerbitzua).
- **Interneteko deiak zain** — Aukeratu telefonoa Interneteko sarrerako deiak daudenean jakinaraztea nahi duzun ala ez dei batean zaudenean.
- **Interneteko deien abisua** — Aukeratu **Aktibatu** Interneteko sarrerako deiak daudenean telefonoak zu jakinaraztea nahi baduzu. **Desaktibatu** aukeratzin baduzu, jakinarazpen bat soilik jasoko duzu deien bat galdu baduzu.
- **Ukatu mezudun deiak** — Ukatu dei bat eta bidali testu-mezua deitzaileari.
- **Mezuaren testua** — Idatzi deiak ukatzen dituzunean bidaliko den testu-mezu estandarra.
- **Neure bideoa dei jas.etan** — Baimendu edo ukatu bideoen bidalketa bideo-dei batean zehar zure telefonotik.
- **Irudia bideo-deian** — Erakutsi irudi geldoa bideoa bidaltzen ari ez bada bideo-deian zehar.
- **Auto. berriro markatu** — Ezarri zure telefonoa gehienez hamar bider saia dadin deia konektatzen dei batek arrakastarik izan ezean. Birmarkatze automatikoa geratzeko, Bukatu tekla sakatu.
- **Deiaren iraupena ikusi** — Erakutsi deiaren iraupena deian zehar.
- **Laburpena deiaren ond.** — Erakutsi deiaren iraupena deia amaitutakoan.
- **Markaketa bizkorra** — Aktibatu markaketa bizkorra.
- **Edozein teklak erantzun** — Aktibatu edozein teklarekin erantzuteko aukera.

## Deiak desbideratzea

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Dei-desbiderak..**

Desbideratu sartzen diren deiak zure ahots postontzira edo beste telefono zenbaki batera. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin.

Hautatu desbideratu nahi duzun dei mota eta hurrengoetatik:

- **Ahots dei guztiak, Datu eta bideo-dei guztiak, edo Fax dei guztiak** — Desbideratu sartzen diren ahots, datu, bideo edo fax dei guztiak. Ezin dituzu deiak erantzun, deiak beste zenbaki bati desbideratu bakarrik.
- **Okupatua badago** — Desbideratu sartzen diren deiak dei aktibo bat duzunean.
- **Erantzun ezean** — Desbideratu sartzen diren deiak gailuak denbora jakin batean zehar soinua egin ondoren. Hautatu deia desbideratu baino lehen gailuak soinu egin behar duen denbora tartea.
- **Estalduratik at badago** — Desbideratu deiak gailua itzalita dagoenean edo sare estaldurarik ez duenean.
- **Eskuragarri ez bada** — Desbideratu deiak dei aktibo bat duzunean, ez erantzun, edota gailua itzalita dagoenean edo sare estaldurarik ez duenean.

Deia zure ahots postontzira desbideratzeko, hautatu dei mota bat, desbideratze aukera bat, eta **Aukerak** > **Aktibatu** > **Ahots-postontzira.**


Deia beste telefono zenbaki batera desbideratzeko, hautatu dei mota bat, desbideratze aukera bat, eta **Aukerak** >

**Aktibatu** > **Beste zenbaki batera**. Sartu zenbakia edo hautatu **Aurkitu** Kontakuak atalean gordetako zenbaki bat berreskuratzeko.

Uneko desbideratze egoera ikusteko, joan desbideratze aukerara eta hautatu **Aukerak** > **Egoera egiaztatu**.

Deiak desbideratzeari uzteko, joan desbideratze aukerara eta hautatu **Aukerak** > **Desaktibatu**.

## Dei-murrizketa

Aukeratu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Telefonia** > **Dei-murrizketa**.

Telefonora egiten diren deiak edo honek egiten dituenak murriztu ditzakezu (sare zerbitzua). Ezarpenak aldatzeko, zure zerbitzu-hornitzailearengandik dei-murrizketarako pasahitza lortu behar duzu. Dei-murrizketak dei mota guztietan eragina du.

Deiak debekatzeko, hautatu hurrengoetatik:


- **Irteerako deiak** — Eragotzi telefonoarekin ahots-deiak egitea.
- **Sarrerako deiak** — Eragotzi sarrerako deiak.
- **Nazioarteko deiak** — Eragotzi atzerrira edo beste eskualde baterako deiak.
- **Sarrerako deiak roaming egitean** — Eragotzi atzerrian zaudenean sarrerako deiak.
- **Nazioartekoak, norbere herrialdera izan ezik** — Eragotzi atzerrira edo beste eskualdetarako deiak, baina baimendu zure herrialderako deiak.

Ahots-deien murrizketaren egoera ikusteko, aukeratu murrizketa aukera eta **Aukerak** > **Egoera egiaztatu**.

Deien debeku guztiak desaktibatzeke, hautatu debeku aukera bat eta **Aukerak** > **Murrizketa guzt. desak.**

Ahots-, fax- eta datu-deiak murrizteko erabiltzen duzun pasahitza aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Editatu murrizk.-pasah.** Idatzi uneko kodea eta, ondoren, kode berria bitan. Murrizketarako pasahitzak lau digitu izan behar ditu. Xehetasunetarako, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

## Sareko ezarpenak

Aukeratu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Telefonia** > **Sarea**.

Sare modua aukeratzeko, aukeratu **Sare modua** eta **Modu duala**, **UMTS** edo **GSM**. Modu dualean, gailua automatikoki sare artean aldatzen du.



**Aholkua:** **UMTS** aukeratuz datu transferentzia azkarragoa baimentzen du, baina bateria energia gehiago erabili lezake honela, eta bateria iraupena murriztu UMTS eta GSM sare ondoan dauden eskualdeetan, **Modu duala** aukeratzeko bada baliteke bi sareen arteko aldaketa konstantea eragin lezake, honek bateria energia eskaera handitzen du.

Operadorea aukeratzeko, aukeratu **Operadorea aukeratzea** eta **Eskuzkoa** eskuragarri dauden sareetatik aukeratzeko, edo **Automatikoa** gailua sare automatikoki aukeratu dezan.

Sare mikrozelular (MCN) bat erabiltzen denean gailuak jakinarazi dezan, aukeratu **Inform.-zerb. pantaila** > **Aktibatu**.

## Partekatu bideoak

### Bideoak partekatzeko eskakizunak

Bideoak partekatzeko UMTS konexio bat beharrezkoa da. Zerbitzuaren, UMTS sare eskuragarritasunaren eta zerbitzua erabiltzeagatik aplikatutako tarifen inguruko informazio gehiagorako, jar zaitez zure zerbitzu hornitzailearekin harremanetan.

Bideoa partekatzea erabiltzeko egin beharreko pausoak:

- Telefonoa pertsonarteko konexiorako ezarria dagoela ziurtatu.
- UMTS konexio aktibo bat daukazula eta UMTS sarearen estalduran zaudela ziurtatu. UMTS sarea bideoa partekatu bitartean uzten baduzu, partekatzea amaitu egingo da baina ahots-deiarekin jarraitu ahal izango duzu.
- Igorlea eta hartzailea UMTS sarean erregistratuta daudela ziurtatu. Norbait partekatze saio batera gonbidatzen baduzu eta hartzailearen telefonoa UMTS sarearen estalduran ez badago, bideo partekatzea instalatua ez badauka edo pertsonarteko konexioa ezarria ez badu, hartzaileak ez du gonbidapenik jasoko. Hartzaileak gonbidapena ezin duela onartu adierazten duen errore mezu bat jasoko duzu.

### Zuzeneko bideoak partekatu

Ahots-dei batean zehar, aukeratu **Aukerak** > **Partekatu bideoa**.

1. Bideoa deian zehar partekatzeko, aukeratu **Zuzeneko bideoa**.


Bideoklip bat partekatzeko, **Bideoklipa** eta ikusi nahi duzun bideoklipa aukeratu.


Baliteke bideoa formatu egoki batetara aldatu behar izatea partekatu ahala izateko. Gailuak bideoklipa bihurtu behar dela esaten badu, aukeratu **Ados**. Bihurketarako gailuak bideo editore bat izan behar du.



2. Hartzaileak SIP helbide edo telefono zenbaki bat baino gehiago baditu Kontaktuak zerrendan gordeta, lurralde kode eta guzti, aukeratu nahi duzun helbidea edo zenbakia. SIP helbidea edo telefono zenbakia eskuragarri ez badaude, idatzi hartzailearen helbidea edo telefono zenbakia lurralde kode eta guzti eta aukeratu **Ados** gonbitea bidaltzeko. Zure gailuak gonbidapena SIP helbidera bidaltzen du.

Hartzaileak gonbitea onartzean automatikoki hasten da partekatzen.

### Partekatzean zeharreko aukerak

 Bideoa handitu (igorleak soilik).

 Bideoaren distira doitu (igorleak soilik).

 edo  Mikrofonoa aktibatu edo desaktibatu.

 edo  Bozgorailua piztu edo itzali.

 edo  Bideo partekatzea eten eta berrekin.

 Pantaila osora aldatu (hartzaileak soilik).

3. Partekatzea amaitzeko, **Gelditu** aukeratu. Deia amaitzeko, amaitu tekla sakatu. Deia amaitutakoan partekatzea ere amaitu egiten da.

Partekatutako zuzeneko bideoa gordetzeko, aukeratu **Bai** galdetutakoan. Gailuak partekatutako bideoaren kokapena jakinarazten ditu.

Bideo bat partekatzen ari zarela beste aplikazio batera joanez gero, partekatzea eten egiten da. Partekatzen jarraitzeko, hasiera pantailan, aukeratu **Aukerak** > **Jarraitu**.

## Internet-deiak

### Internet deien inguruan

Internet bidezko dei zerbitzuarekin (sare zerbitzua), Internet bidezko deiak egin eta jaso ditzakezu. Internet bidezko deiak ordenagailuen, telefono mugikorren eta VoIP gailu baten eta ohiko telefono baten artean ezar daitezke.

Zerbitzua erabili ahal izateko, zerbitzuan harpidetu eta erabiltzaile kontua izan behar duzu.

Internet bidezko deia egin edo jasotzeko, WLAN sareko zerbitzu eremuan izan eta Internet bidezko dei zerbitzu batetara konektatuta egon behar duzu.

### Internet bidezko deiak aktibatu

Hautatu  > **Kontaktuak** eta Interneteko deien zerbitzua.

Interneteko deiak egiteko edo jasotzeko, jarri zure zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan Interneteko deietarako konexio ezarpenak jasotzeko. Interneteko deien zerbitzura konektatzeko, telefonoak sareko zerbitzu batean egon behar du.

Interneteko deien zerbitzua aktibatuzko, hautatu **Aukerak** > **Aktibatu zerbitzua**.

Hari gabeko LAN (WLAN) konexio eskuragarriak bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu WLANa**.

### Internet bidezko deiak egin

Internet bidezko deien funtzioa aktibatu duzunean, ahots dei arrunta egin dezakezun edozein aplikaziotik egin dezakezu Internet bidezko deia, adibidez, kontaktu zerrendatik edo erregistrotik. Adibidez, kontaktuen zerrendan, zoaz nahi duzun kontaktura eta aukeratu **Aukerak** > **Deitu** > **Interneteko deia**.

Hasiera pantailatik Internet bidezko dei bat egiteko, idatzi telefono zenbakia edo Interneteko helbidea eta aukeratu **Sareko deia**.

1. Digitsu batekin hasten ez den Interneteko helbide batetara Interneteko deia egiteko, sakatu edozein zenbaki tekla telefonoa egoneko moduan dagoenean eta jarraian sakatu # segundo batzuetan pantaila ezabatuzko eta zenbaki modutik hizki modura aldatzeko.
2. Internet helbidea sartu eta deitu tekla sakatu.

### Blokeatutako kontaktuak

Aukeratu  > **Kontaktuak**. Mugitu ezkerredera eta aukeratu zerrendan Internet-deien zerbitzua.

Blokeatutako kontaktuek ezin izango dute zure sareko egoera ikusi.


## Multimedia

Blokeatutako kontaktuak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Ikusi blokeat. zerrenda**.

Kontaktu bat blokeatutako kontaktuen zerrendan gehitzeko, zoaz kontaktura eta aukeratu **Aukerak** > **Blokeatu kontaktuak**.

Kontaktua desblokeatzeko, zoaz kontaktura eta aukeratu **Aukerak** > **Desblokeatu**. Kontaktu bat desblokeatzean, online zaudenean ikusi egingo zaitu.

## Internet bidezko dei zerbitzuak kudeatu

Hautatu  > **Ezarpn**ak > **Konektibitat.** > **Sare-ezarpn**..

Internet dei zerbitzu berri bat gehitzeko, hautatu **Deskargatu**.

## 5. Multimedia



**Abisua:** Aurikularrak erabiliz gero, kanpotik datozen zaratak entzuteko gaitasuna galdu dezakezu. Ez erabili aurikularrak zure segurtasuna arriskuan jar badezakezu.

## Musika erreproduzitzailea

Hautatu  > **Aplikazioak** > **Mus. errep.**

Musika erreproduzitzailearekin, musika fitxategiak erreproduzi ditzakezu eta erreproduzio zerrendak sor eta entzun ditzakezu. Musika erreproduzitzaileak, besteak beste, MP3 eta AAC formatuetako fitxategiak onartzen ditu.

## Internet bidezko deien ezarpn

Hautatu  > **Kontaktuak**. Joan ezkerretara eta hautatu internet deien zerbitzua zerrendan.

Internet deien ezarpn ikusteko edo aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpn**ak eta hurrengo aukeren artean:

- **Zerbitzu-konektagarrit.** — Internet bidezko deien konexio ezarpnen helmuga aukeratu eta helmuga xehetasunak editatu.

Helmuga aldatzeko, zerbitzura joan eta **Aldatu** aukeratu.

- **Erabilgarrit.-eskaerak** — Sarrerako presentzia eskaera guztiak baieztapen kontsultarik gabe automatikoki onartzeko edo ez aukeratu.
- **Zerbitz. buruzko inform.** — Ikusi hautatutako zerbitzuari buruzko informazio teknikoa.

## Abesti edo podcast bat erreproduzitu

Eskuragarri dauden abestiak eta podcastak musika-liburutegian gehitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Freskatu liburutegia**.

Abesti bat edo podcast bat erreproduzitzeko, aukeratu nahi duzun kategoria eta abestia edo podcasta.

Erreprodukzioaren tonua aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ekualizadorea**.

Balantzea eta irudi estereoa aldatzeko edo baxuak nabarmentzeko, hautatu **Aukerak** > **Audio settings**.

Hasiera pantailara itzultzeko eta erreproduzitzailea fondoan funtzionaten uzteko, amaierako tekla sakatu.

## RealPlayer

RealPlayer aplikazioarekin, bideoak erreproduzi edo sareko multimedia fitxategiak zuzenean erreproduzi daitezke, aurrez telefonoan gordetzeko beharrik gabe.

Baliteke RealPlayer aplikazioak formatu guztiak eta hauen aldaketa guztiak ez onartzea.

Hautatu  > **Aplikazioak** > **RealPlayer**.

## Bideo klipak erreproduzitu

Hautatu  > **Aplikazioak** > **RealPlayer**.

Bideo klip bat erreproduzitzeko, aukeratu **Bideoklipak** eta klipa.

Entzundako azken fitxategien zerrenda ikusteko, aplikazioaren ikuspegi nagusian aukeratu **Azkena errepr..**

Bideo klip zerrendan, joan klip batera joan, aukeratu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

- **Bideoa erabili** — Esleitu bideo bat kontaktu bati edo ezarri tonu gisa.
- **Markatu/Marka kendu** — Elementu asko aldi berean bidali edo ezabatzeko, markatu zerrendako elementuak.
- **Xehetasunak ikusi** — Ikusi aukeratutako elementuaren xehetasunak, hala nola, formatua, bereizmena eta iraupena.


- **Ezarpenak** — Editatu bideoen erreproduzio eta transmisiorako ezarpenak.


## Grabagailua

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **Grabagailua**.

Grabagailua aplikazioarekin, ahots-oharrak eta telefono-hizketaldiak graba daitezke.

Grabagailua ezin da erabili datuen dei bat edo GPRS konexio bat aktibatuta dauden bitartean.


Soinu klipa grabatzeko, aukeratu .

Soinu klipa grabatzen amaitzeko, aukeratu .

Soinu klipa entzuteko, aukeratu .

Grabaketa kalitatea edo soinu klipak non gordetzeko aukeratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Grabatutako soinu klipak Galeriako Soinuak karpetan gordetzen dira.

Telefono-hizketaldi bat grabatzeko, ahots-dei bat egiten edo jasotzen duzunean grabagailua ireki eta aukeratu . Grabatzen ari den bitartean, bi hizketakideek tonu bat entzungo dute bost segundoro.

## 6. Kokapena

### GPS zerbitzuari buruz

GPS koordenatuak gradutan eta gradu hamartarretan adierazten dira eta nazioarteko WGS-84 koordenatu sisteman oinarrituta daude.

Posizionamendu Globaleko Sistema (GPS) Amerikako Estatu Batuetako gobernuak zuzendutakoa da, hau izanik sistema honen zehaztasunaren eta mantentze lanen erantzule bakarra. Estatu Batuetako gobernuak GPS sateliteetan egiten dituen doikuntzek eragina izan dezakete kokapenari buruzko datuen zehaztasunean, eta hau Irrati-Nabigazio Plan Federalaren eta Estatu Batuetako Defentsa Zibilaren Sailean GPS politikari buruz sortu daitezkeen aldaketen menpe dago. Sateliteen geometria eskasak ere zehaztasunari eragin diezaiokie. Zure kokapenak, eraikinek, oztopo naturalek eta eguraldiaren baldintzek, GPS seinaleen erabilgarritasun eta kalitatean eragina izan dezakete. Baliteke GPS seinaleak eskuragarri ez egotea eraikinen barruan edo lur azpian eta oztopa daitezke zenbait materialekin, hormigoia eta metala, esaterako.

GPSa ez da erabili behar neurketa zehatz bat egiteko, ez eta GPS hargailuak eta irrati zelularren sareek adierazten dituzten datuetan soilik oinarritzea kokatu edo nabigatzeko.

Posizionamendu metodo ezberdinak gai edo desgai daitezke kokapen ezarpenetan.

### Lagunduriko GPSa


Telefonoa Lagunduriko GPSa (A-GPS) zerbitzuarekin bateragarria da.

A-GPS sare zerbitzu bat da.

Assisted GPS (A-GPS) datu pakete konexio baten bidez laguntzarako datuak lortzeko erabiltzen da, zure telefonoak sateliteen seinalea jasotzen duen zure uneko kokapenaren koordenatuak kalkulatz.

A-GPS zerbitzua aktibatzerakoan, telefonoak satelite-informazio erabilgarria jasotzen du laguntza-datuen zerbitzari batetik sare zelularren bidez. Laguntza datuei esker telefonoak azkarrago lor dezake GPS kokapena.

Telefonoa Nokia A-GPS zerbitzua erabiltzeko aurrekonfiguratuta dago, hornitzailearen beste ezarpen bereziak erabilgarri ez daudenean. Laguntza datuak Nokia A-GPS zerbitzaritik lortzen dira, beharrezkoak direnean soilik.

A-GPS zerbitzua desgaitzeko, aukeratu  > **Aplikazioak** > **GPS datuak** eta **Aukerak** > **Posizionamendu-ezarp.** > **Kokatze-erak** > **Lagunduriko GPSa** > **Ezgaitu.**


Interneteko sargune bat zehaztu behar duzu datu-pakete-konexioaren bidez Nokia A-GPS zerbitzutik datu laguntzaileak jasotzeko. A-GPSrako sargunea posizionamendu ezarpenetan zehatz daiteke. Ezin da hari gabeko LAN (WLAN) sargune bat erabili zerbitzu honentzako. Datu-paketeen Interneteko sargune puntu bat



bakarrik erabil daitezke. Telefonoak Interneteko sargunea aukeratzeko eskatuko dizu GPSa lehenengo aldiz erabiltzerakoan.

## Maps

Sateliteko irudiak, gidak, eguraldiari eta trafikoari buruzko informazioa eta bestelako zerbitzuak Nokiarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek sortu dituzte. Baliteke informazioa guztiz osatua eta zehatza ez izatea, eta eskuragarritasunaren araberakoa izango da. Ez sekula informazio honetaz eta erlazioanaturako zerbitzuez soilik fida.

Hautatu  > **Mapak** edo sakatu nabigazio-tekla.

## Mapei buruz

Maps aplikazioarekin, zure uneko kokapena ikus dezakezu mapan, hiri eta herrialde desberdinetako mapak araka ditzakezu, tokiak bilatu, leku batetik besterako ibilbideak antolatu, kokapenak gorde eta gailu bateragarrietara bidali. Zure herrialdeko trafiko informazioaren eta nabigazio zerbitzuen lizentziak eros ditzakezu, eskuragarri badaude.

Mapak aplikazioa lehenengoz erabiltzerakoan, Interneteko sargunea aukeratu beharko duzu mapak deskargatzeko.

Zure telefonoan jadanik deskargatutako mapak estaltzen ez duten eremu bat arakaten baduzu, eremu horren mapa deskargatuko da automatikoki Interneten bidez. Zenbait mapa zure telefonoan edo memoria txartelean eskuragarri egon daitezke. Nokia Map Loader PC softwarea erabil dezakezu ere mapak deskargatzeko. Nokia Map Loader

bateragarria den PC batean instalatzeko, ikus [www.nokia.com/maps](http://www.nokia.com/maps) web orria.




**Aholkua:** Transferentzia kostuak saihesteko, Mapak aplikazioa Internet konexiorik gabe erabil dezakezu ere, eta telefonoan edo memoria txartelean gordeta dauden mapak araka ditzakezu.



**Oharra:** Mapak, sateliteko irudiak, ahots-fitxategiak, gidak edo trafikoaren informazioa deskargatzean datu kopuru handiak transmititzen dira (sareko zerbitzua).

Ia mapa digital gehienak neurri batean edo bestean zehaztu gabe edo osatu gabe daude. Ez oinarritu telefono honetan ematen diren mapetan soilik.

Mans aplikazioko funtzioen argibideak ikusteko, hautatu  > **Aplikazioak** > **Laguntza** > **Laguntza** eta **Mapak** edo Maps erabiltzerakoan, hautatu **Aukerak** > **Laguntza** > **Laguntza**.

## Mapak eta lizentziak

Telefonoak aurrezarrirako mapak ditu. Mapak telefonoa erosi duzun herrialdearen araberakoak dira.

Telefonoak oinezko nabigaziorako lizentzia orokorra du.

Telefonoak gidatuzko nabigaziorako baliozko lizentzia bat du, aurrezarrirako herrialde eta mapetan soilik erabiltzeko.

Telefonoak kokapenean oinarritutako edukien eta zerbitzuen lizentziak ditu, hala nola, trafikoaren informazioarena, eguraldiaren iragarpenena eta gertaerena. Lizentziek erosketaz geroztiko bi urtetarako balio-aldia dute eta aurrez zehaztutako herrialde eta mapetarako soilik izan

## Kokapena

daitezke baliozkoak. Zerbitzuak erabiltzeko Inteneterako konexioa beharrezkoa izan daiteke.

Lizentzia guztiak telefonoa erostean aktibatzen dira. Lizentziak telefonoari lotuta daude eta ezin dira beste telefono batera transferitu.

Informazio gehiagorako, zoaz [www.nokia.com/support](http://www.nokia.com/support) helbideetara edo zure tokiko Nokiaren webgunera.

## Lizentziei buruz

Uneko kokapeneko zerbitzu bat erosteko, hautatu **Aukerak > Denda eta lizentziak > Denda.**

Zerbitzu bat erosterakoan bi aukera dituzu:

- amaiera-data finko bat duen lizentzia bat erostea
- uzten duzun arte 30 egunero automatikoki berritzen den lizentzia bat erostea. Lizentzia bertan behera uzteko, hautatu **Aukerak > Denda eta lizentziak > Nire lizentziak**, joan lizentziara eta hautatu **Aukerak > Cancel subscription.**

Zerbitzua telefonoaren fakturan edo kreditu-txartelarekin ordain dezakezu. Erosketan zehar, kreditu-txartelaren zenbakia eta iraungitze-data telefonoan gordetzea hauta dezakezu. Telefonotik kreditu-txartelaren informazioa kentzeko, hautatu **Aukerak > Clear personal data.**

Baliozko lizentziak ikusteko, hautatu **Aukerak > Denda eta lizentziak > Nire lizentziak.**


Beste herrialdeetan eskuragarri dauden zerbitzuak ikusteko, hautatu **Aukerak > Denda eta lizentziak > Aukerak > Beste eskualde batzuetako dendak.**


## Kalibratu iparrorratza


Telefonoak iparrorratz bat du barnean. Iparrorratza kalibratuta dagoenean, iparrorratzaren inguruko zirkulua berdea da eta maparen ikuspegiak automatikoki biratzen du telefonoaren goialdearen norabidean.

Iparrorratza ez da guztiz zehatza. Eredu elektromagnetikoez, metalezko objektuek edo bestelako kanpo-inguruabarrek ere iparrorratzaren zehaztasunean eragin dezakete. Iparrorratza behar bezala kalibratuta egon behar da.

Iparrorratza kalibratzeko, jarraitu ondorengo pausoak:


1. Hautatu  > **Mapak.**
2. Iparrorratza aktibatuta dago modu lehenetsian. Iparrorratza desaktibatuzko, hautatu **Aukerak > Tresnak > Itzali iparrorratza.** Iparrorratza desaktibatuta dagoenean, iparrorratzaren inguruko zirkulua zuria izaten da eta maparen ikuspegiak ez du automatikoki biratzen. Iparrorratza uneko saiorako soilik desaktibatzen da. Maps irekitzen duzun hurrengo aldian iparrorratza automatikoki aktibatuko da.

3. Biratu telefonoa ardatz guztien inguruan mugimendu jarrai batekin kalibrazioaren adierazlea berde bihurtzen den arte .




Adierazlea horia bada, iparrorrazaren zehaztasun-maila txikia da. Adierazlea gorria bada, iparrorratza ez dago kalibratuta.


## Pantailako adierazleak

GPS adierazleak  satelite seinalearen eskuragarritasuna eta indarra erakusten ditu. Barra bat satelite bat da. Telefonoa satelite seinaleak bilatzen saiatzen denean, barra hori kolorekoa da. Telefonoak sateliteetatik GPS konexioa ezartzeko nahikoa datu jasotzen dituenean, barra berde kolorekoa bilakatzen da. Zenbat eta barra berde gehiago orduan eta fidagarriagoa izango da kokapenaren kalkulua.

Hasieran, telefonoak gutxienez lau sateliteren seinalea jaso behar du kokapena kalkulatu ahal izateko. Lehengo kalkuluaren ondoren, hiru sateliteren seinaleak nahiko izan daitezke.

Datu-transferentzia adierazleak  **21.5 kb** erabiltzen ari den Internet konexioa eta aplikazioa abiarazi zenetik transferitutako datuen kopurua erakusten ditu.

## Mapan zehar mugitu

GPS konexioa aktibatuta dagoenean,  irudiak zure uneko kokapena adierazten du mapan.

Zure GPS kokapena edo azkeneko kokapen ezaguna fokatzeko, hautatu **Aukerak** > **Nire kokap.**

Mapan zehar mugitzeko, jo gora, behera, ezkerrera edo eskuinera gurpilearekin. Mapa iparraldera orientatuta egongo da besterik adierazi ezean.

GPS konexio aktibo bat daukazunean eta pantailan mapa bat arakatzean, mapa berri bat jaisten da automatikoki, dagoeneko jaitzita ez dagoen alde batera mugitzen bazara. Mapak automatikoki gordetzen dira telefonoaren memorian edo memoria txartel bateragarri batean, sartuta badago.

Mapatik zooma hurbildu edo urruntzeko, sakatu \* eta #.

Mapa mota aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Mapa modua**.

## Kokapenak bilatu

Kokapenak bilatzeko, sakatu korritze tekla eta hautatu **Arakatu**. Idazten hasi kokapenaren izena bilaketa eremuan. Gailuak bat datozen inguruneko kokapenak proposatuko ditu. Hautatu kokapena zerrendan edo idatzi kokapenaren izena bilaketa eremuan, eta hautatu **Bilatu**.

1. Helbide jakin bat bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu helbidea**.
2. Idazten hasi beharrezko informazioa. Izartxo (\*) bat duten eremuak bete behar dituzu.
3. Hautatu helbidea proposatutako aukeren zerrendan.

## Kokapena

### 4. Hautatu **Aukerak** > **Bilatu**.

Kontaktu zerrendan gordetako helbide bat bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu helbidea** > **Aukerak** > **Aukeratu kontaktuetatik**.

Kokapenak koordenatuen arabera bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu helbidea** > **Aukerak** > **Bilatu koordenatuekin**. Kordenatu formatua hautatzeko, joan gora edo behera.

Kategoria jakinetako kokapenak bilatzeko, jabetxeak edo dendak esaterako, sakatu korritze tekla eta hautatu **Arakatu**. Hautatu kategoria bat eta idatzi bilaketa terminoak bilaketa eremuan.

## Kokapenak gorde eta bidali

Kokapen bat zure telefonoan gordetzeko, sakatu nabigazio-tekla eta hautatu **Gorde**.

Gordetako kokapenak ikusteko, ikuspegi nagusian, hautatu **Aukerak** > **Gogokoak**.

Kokapen bat zure telefonoan gordetzeko, sakatu nabigazio-tekla eta hautatu **Bidali**.

## Bilaketa historia

Jadanik bilatu dituzun kokapenak ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Historia**.

Mapan hautatutako kokapena ikusteko, sakatu korritze tekla eta hautatu **Erakutsi mapan**.

Kokapena gailu bateragarri bati bidaltzeko, sakatu korritze tekla eta hautatu **Bidali**.

Kokapena ibilbide bati gehitzeko, sakatu korritze tekla eta hautatu **Gehitu ibilbidea**.

## Ibilbide bat antolatu

Ibilbide bat antolatzeko, joan abiapuntura mapan, sakatu nabigazio-tekla eta hautatu **Gehitu ibilbidea**. Ibilbidean helmuga eta kokapen gehiago gehitzeko, hautatu **Geh. ib. puntu berri bat**. Zure uneko kokapena abiapuntu gisa erabil nahi baduzu, gehitu helmuga ibilbidean.

Ibilbidean kokapenen ordena aldatzeko, joan kokapen batera, sakatu nabigazio-tekla eta hautatu **Mugitu**. Joan kokapena mugitu nahi duzun lekura eta aukeratu **Aukeratu**.

Ibilbidea editatzeko, sakatu gurrupila eta aukeratu **Editatu ibilbidea**.

Ibilbidea mapan erakusteko, hautatu **Erakutsi bidea**.

Gidatuz edo oinez helmugara nabigatzeko, zerbitzu hauen lizentzia erosi baduzu, hautatu **Erakutsi bidea** > **Aukerak** > **Hasi gidatzen** edo **Oinez hastean hasi**.

Ibilbidea gordetzeko, aukeratu **Erakutsi bidea** > **Aukerak** > **Gorde ibilbidea**.

## Zure helmugara gidatu



**Abisua:** Segurtasun edo abiadura kameraren kokapena ikus dezakezu nabigatzerakoan, funtzioa gaituta izanez

gero. Jurisdikzio batzuetan segurtasun eta abiadura kameren datuak erabiltzea debekatuta edo araututa dago. Nokia ez da segurtasun eta abiadura kameren datuen zehaztasunaren eta ondorioen erantzule izango.

Gidatuzko nabigatuzko nabigazioari ekiteko, zoaz kokapen batera, sakatu nabigazio-tekla eta hautatu **Gidatu hona:**.  
Gidatuzko nabigazioa lehenengo aldiz erabiltzerakoan, ahotsez lagundutako nabigaziorako hizkuntza aukeratu beharko duzu eta honi dagozkion ahots fitxategiak deskargatu.

Ahots bidezko argibide-fitxategiak deskargatzeak zure zerbitzu-hornitzailearen sarearen bitartez datu ugari transmititzea suposa dezake. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.

Nabigatzerakoan ikuspegiz aldatzeko, sakatu nabigazio-tekla eta hautatu **2D Ikuspegia**, **3D Ikuspegia**, **Gezi ikuspegia** edo **Ibilbidearen ikuspegia**.

Beste ibilbide bat aurkitzeko, aukeratu **Aukerak > Bes. ibil. bat**.

Ahots gidatzea errepikatzeko, aukeratu **Aukerak > Errepikatu**.

Ahots gidatze bolumena doitzeko, aukeratu **Aukerak > Bolumena**.

Bidaiaren iraupenari eta distantziari buruzko xehetasunak ikusteko, hautatu **Aukerak > Aginte-panel**.

Nabigazioa gelditzeko, aukeratu **Gelditu**.

## Zure helmugara ibili

Oinezko ibilbideetan oinezkoentzako guneak eta parkeak sartzen dira, oinezkoentzako ibilbideei eta kale txikiei lehentasuna ematen zaie eta autobideak saihesten dira.

Oinezko ibilbideetan, abiapuntuaren eta helmugaren arteko gehieneko distantzia 50 kilometrokoa (31 miliakoa) da eta gehieneko abiadura 30 km/h-koa (18 mph-koa). Abiadura gaintuz gero, nabigazioa gelditu egiten da eta onartutako abiadurara itzultzean berrekiten dio.

Ez dago ahots-fitxategirik eskuragarri oinezko nabigaziorako baina telefonoak tonu edo dardara bidezko jakinarazpenak ematen ditu birak edo bestelako aldaketak baino 20 metro (22 yarda) lehenago. Jarraibide motak telefonon aktibo dagoen profilararen arabera dira.

Nabigatzen hasteko, joan kokapenera, sakatu nabigazio-tekla eta hautatu **Honaino ibili**.

Helmugara errepidez iritsi ezin bada, ibilbidea oinezko norabidea adierazten duen lerro zuzen gisa bistaratzen da.

Ibilbidearen ikuspegi orokorra ikusteko, hautatu **Aukerak > Ibilbidearen ikuspegia**.

Nabigazioa gelditzeko, aukeratu **Gelditu**.

## Trafikoa eta segurtasuna

Zuzeneko trafiko informazio zerbitzuak zure bidaiaren eragina izan ditzaketen gertaerak jakinarazten dizkizu. Agian trafikoari buruzko informazioa telefonora deskargatu beharko duzu, zure herrialdean edo eskualdean eskuragarri badago.



**Oharra:** Mapak, sateliteko irudiak, ahots-fitxategiak, gidak edo trafikoaren informazioa deskargatzean datu kopuru handiak transmititzen dira (sareko zerbitzua).

Sateliteko irudiak, gidak, eguraldiari eta trafikoari buruzko informazioa eta bestelako zerbitzuak Nokiarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek sortu dituzte. Baliteke informazioa guztiz osatua eta zehatza ez izatea, eta eskuragarritasunaren araberakoa izango da. Ez sekula informazio honetaz eta erlazionatutako zerbitzuez soilik fida.



**Abisua:** Segurtasun edo abiadura kameran kokapena ikus dezakezu nabigatzerakoan, funtzioa gaituta izanez gero. Jurisdikzio batzuetan segurtasun eta abiadura kameran datuak erabiltzea debekatuta edo araututa dago. Nokia ez da segurtasun eta abiadura kameran datuen zehaztasunaren eta ondorioen erantzule izango.

Trafikoari buruzko informazioa ikusteko, aukeratu **Aukerak > Traf. inform..** Gertaerak triangelu eta marra gisa agertzen dira mapan.

Gertaera baten xehetasunak ikusteko, ibilbide berriak hastearen aukerak barne, aukeratu **Aukerak > Ireki.**

Trafikoaren informazioa eguneratzeko, aukeratu **Egun. zirk. inform..**

Telefonoak errepideko gertaerak saihesten dituen ibilbide berri bat automatikoki antola dezan, menu nagusian, hautatu **Aukerak > Tresnak > Ezarpenak > Nabigazioa > Beste ibil. zirk. dela eta.**

## Zure kokapen faboritoak Ovi Mapak erabiliz sinkronizatzea

Ovi webguneak Nokiak eskeinitako internet zerbitzuak ditu. Ovi Mapak atalak Mapak aplikazioari lotutako zerbitzuak dauzka.

Ovi kontu bat sortzeko, ikus [www.ovi.com](http://www.ovi.com).

Gailuan Ovi kontua erabiliz gorde dituzun kokapenak, bildumak eta ibilbideak sinkronizatzeko, hautatu **Aukerak > Gogokoak > Sinkronizatu Ovi-rekin.**

Gailua ezartzeko Ovi kontuarekin gordetako kokapenak, bildumak eta ibilbideak automatikoki sinkroniza ditzan Mapak aplikazioa irekitzerakoan eta isterakoan, hautatu **Aukerak > Tresnak > Ezarpenak > Sinkronizazioa > Sinkronizatu Ovi-rekin > Irikitzer. eta ister..**

Sinkronizatzean datu kantitate handiak igor daitezke zure zerbitzu hornitzailearen sarearen bidez. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

## Mapak aplikazio ezarpenak

Mapak aplikazioaren ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukerak > Tresnak > Ezarpenak** eta hauetariko bat:

- **Internet** — Internet ezarpenak definitzea.
- **Nabigazioa** — Nabigazio ezarpenak definitzea.
- **Ibilbidea** — Bideraketa ezarpenak definitzea.
- **Mapa** — Mapa ezarpenak definitzea.
- **Sinkronizazioa** — Definitu ezarpenak Ovi web zerbitzuan gordetako elementuak sinkronizatzeko.

## Nokia Map Loader

Nokia Map Loader aplikazioarekin, mapak eta ahots bidezko gidaritzak fitxategiak deskarga daitezke internetetik telefonoko memoriara edo bateragarria den memoria txartel batera. Mapak aplikazioa erabili behar duzu eta behintzat aldi batez mapak arakatu Nokia Map Loader erabili aurretik, Nokia Map Loader aplikazioak Mapak aplikazioaren informazioa erabiltzen duelako mapen zein bertsioko deskargatu behar duen egiaztatzeko.

Nokia Map Loader ordenagailu bateragarri batean instalatzeko, zoaz [www.nokia.com/maps](http://www.nokia.com/maps) helbidera eta jarraitu pantailako argibideak.

## Mugarriak

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **Mugarriak**.

Mugarriekin, kokapen zehatzei buruzko informazioa gorde dezakezu telefonoan. Gordetako kokapenak talde desberdinetan sailka daitezke (dendak, esate baterako), eta bestelako informazioa gehitu, adibidez, helbideak. Gordetako mugarriak aplikazio bateragarrietan erabil daitezke, adibidez, GPS datuak.

GPS koordenatuak gradutan eta gradu hamartarretan adierazten dira eta nazioarteko WGS/84 koordenatu sisteman oinarrituta daude.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

- **Mugarri berria** — Sortu mugarri berri bat. Uneko kokapenaren eskaera egiteko, **Oraingo kokapena** aukeratu. Kokapena mapatik aukeratzeko, aukeratu

**Mapan aukeratu.** Kokapenari buruzko informazioa eskuz idazteko, **Eskuz sartu** aukeratu.

- **Editatu** — Editatu edo gehitu gordetako mugarri baten informazioa (adibidez, kaleko helbide bat).
- **Kategoriara gehitu** — Gehitu mugarri bat kategoria batean Mugarriak atalean. Aukeratu mugarria gehitu nahi duzun kategoria bakoitza.
- **Bidali** — Bidali mugarri bat edo gehiago gailu bateragarri batera. Jasotako mugarriak sarrera ontzian daude, Mezularitza atalean.

Mugarriak aurrez zehaztutako kategorietan sailka daitezke, baita kategoria berriak sortu ere. Mugarrien kategoria berriak sortzeko eta aldatzeko, ireki kategorien fitxa eta aukeratu **Aukerak** > **Editatu kategoriak**.

## GPS datuak

### Ibilbideen gida

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **GPS datuak** eta **Nabigazioa**.

Ibilbideen gida zero irekian abiarazi. Leku estali batean abiarazten baduzu, baliteke GPS hartzaileak sateliteetatik behar duen informazio guztia ez jasotzea.

Ibilbideen gidak iparrorratz biragarri bat erakusten du pantailan. Puntu gorri batek helmugarako norabidea adierazten du, eta gutxi gorabeherako distantzia erakutsiko da iparrorratzaren barnean.

Ibilbide gidaritzak ibilbide zuzenena eta motzena erakusten du, marra zuzen baten bidez neurtuta. Ez dira kontutan izango bideko eraikuntzak edo oztupo naturalak. Altitude

## Testua idatzi

ezberdintasunak ez dira kontutan izango distantzia kalkulaterakoan. Ibilbide gidaritza mugitzen ari zarela soilik dago aktibo.

Ibilbidearen helmuga ezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Helmuga ezarri** eta aukeratu mugarri bat helmuga gisa edo idatzi latitude eta longitude koordinatuak.

Bidaiarako jarritako helmuga ezabatzeko, aukeratu **Nabigazioa eten**.

## Posizio informazioa jaso

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **GPS datuak** eta **Kokapena**.

# 7. Testua idatzi

## Testu input tradizionala

**Abc** testu input tradizionala adierazten du.

**ABC** eta **abc** maiuskulak eta minuskulak adierazten dituzte. **Abc** esaldiaren modua adierazten du; hau da, lehen hizkia maiuskula izango da eta hurrengo guztiak automatikoki minuskulaz idatziko dira. **123** zenbaki modua adierazten du.

Teklatua erabiliz testua idazteko, sakatu zenbaki tekla bat, 2-9. behin eta berriz nahi duzun karakterea agertu arte. Zenbaki tekla bakoitzak teklan bertan agertzen den baino karaktere gehiago dauka. Nahi duzun hurrengo letra erabiltzen ari zaren tekla berean badago, itxaron kurtsorea agertu arte eta sartu letra.

Posizio ikuspegian, zure uneko kokapenaren informazioa ikus dezakezu. Kokapenaren zehaztasunaren estimazio bat erakutsiko da.

Zure uneko kokapena mugarri gisa gorde nahi baduzu, aukeratu **Aukerak** > **Kokapena gorde**. Mugarriak informazio gehiago duten gordetako kokapenak dira, aplikazio bateragarriekin erabil daitezke eta gailu bateragarrietara transferitu.

Zenbaki bat gehitzeko, sakatu eta eutsi sakatuta nahi duzun zenbakiaren tekla.

Maiuskula eta minuskularen artean eta modu ezberdinen artean aldatzeko, sakatu # tekla.


Ohiko puntuazio markak erabiltzeko, sakatu **1** behin eta berriz nahi duzun puntuazio marka agertu arte.

Karakterere bereziak gehitzeko, sakatu eta eutsi sakatuta \* tekla.

Tarte bat sartzeko, **0** sakatu. Lerro aldaketa bat gehitzeko, sakatu **0** tekla hiru aldiz.



## Testu iragarlea sartu

1. Testu iragarlea aktibatzeko edo desaktibatzeko, sakatu azkar # birritan. Honela telefonoko editore guztietan aktibatzen edo desaktibatzen da testu iragarlea.  ikurrak testu iragarlea aktibatuta dagoela adierazten du.
2. Nahi den hitza idazteko, sakatu **2-9** teklak. Teklak behin bakarrik sakatu letra bakoitzeko.
3. Hitza idatzitakoan, zuzena bada, joan eskuinera baieztatzeko edo sakatu **0** zuriunea gehitzeko.  
Hitza zuzena ez bada, sakatu \* behin eta berriz tekla konbinazioarekin bat datozen hiztegiko hitzak ikusteko.  
Hitzaren ondoren ? karakterea bistaratzeko bada, hitza ez dago hiztegian. Hitz bat hiztegian gehitzeko, hautatu **Letreiatu**, idatzi hitza (gehienez 32 karaktere) ohizko idazketa modua erabiliz eta hautatu **Ados**. Hitza hiztegiara gehitzen da. Hiztegia beteta dagoenean, hitz berriak hitz zaharrena ordeztzen du.

Idatzi hitz konposatu baten lehen zatia, baieztatu eta joan eskuinera. Idatzi hitz konposatuaren bigarren zatia. Hitz konposatua osatzeko, sakatu **0** zuriune bat gehitzeko.

## Aldatu idazketa-hizkuntza

Testu bat idazten ari zarenean, idazketa-hizkuntza alda dezakezu. Adibidez, karaktere zehatz batera iristeko 6 behin

baino gehiagotan sakatu behar baduzu, idazketa-hizkuntza aldatuta karaktereak beste hurrenkera batean agertuko dira.

Testua latindarra ez den alfabeto bat erabiliz idazten ari bazara eta karaktere latindarrak erabili nahi badituzu, esaterako, helbide elektronikoak idazteko, idazketa-hizkuntza aldatu behar duzu. Idazketa-hizkuntza aldatzeko, hautatu **Aukerak > Sarrera-aukerak > Idazteko hizkuntza** eta hautatu karaktere latindarrak erabiltzen dituen idazketa-hizkuntza bat.


## Kopiatu eta ezabatu testua

1. Hizkiak eta hitzak hautatzeko, eduki sakatuta # eta bitartean joan eskuinera edo ezkerrera. Testu-lerroak hautatzeko, eduki sakatuta # eta bitartean joan gora edo behera.
2. Testua kopiatzeko, eduki sakatuta # eta bitartean hautatu **Kopiatu**.  
Hautatutako testua ezabatzeko, sakatu ezabatzeko tekla **C**.
3. Testua itsasteko, eduki sakatuta # eta bitartean hautatu **Itsatsi**.

## 8. Mezuak

Aukera bateragarriak dituzten telefonoek soilik jaso eta bistara ditzakete multimedia-mezuak. Mezuen itxura aldatu egiten daiteke mezua jasotzeko erabilitako telefonoaren arabera.

### Mezuak idatzi eta bidali

Hautatu  > **Mezularitza**.

Multimedia mezu bat sortu edo mezu elektronikoko bat idatzi baino lehen, konexio ezarpen zuzenak zehaztu behar dira.

Haririk gabeko sareak MMS mezuen neurria muga dezake. Txertatutako argazkiak muga gaindituz gero, telefonoak argazkia txikiagotu dezake MMS bidez bidali ahal izateko.

Mezu elektronikoen gehienezko tamaina zerbitzu hornitzailearekin egiaztatu. Bidali nahi den mezu elektronikokoak posta elektronikoko zerbitzariaren muga gaindituz gero, mezua Irteera ontzia karpetan gordetzen da eta telefonoa tarteka berriro bidaltzen saiatzen da. Mezu elektronikoko bat bidaltzeko datu-konexioa behar da, horregatik, mezu elektronikokoak bidaltzeko saiakerak telefonoaren faktura handitu dezakete. Irteera ontzia karpetan, mezuak ezabatu edo Zirriborroak karpetara mugitu ditzakezu.

1. Hautatu **Mezu berria** > **Mezua** testu-mezu bat edo multimedia-mezu bat (MMS) bidaltzeko, **Audio mezua** soinu-klip bat duen mezu bat bidaltzeko edo **E-maila** mezu elektronikoko bat bidaltzeko.

2. Hartzailera eremuan, sakatu nabigazio-tekla hartzailera edo taldeak Kontaktuetatik hautatzeko edo idatzi hartzailerean telefono zenbakia edo helbide elektronikoa. Hartzailera banantzen dituen puntu eta koma (; ) ikurrak gehitzeko, eduki sakatuta \*.
3. Gaia eremuan, mezua gaia idatzi. Ikusgai dauden eremuak aldatzeko, **Aukerak** > **Mezua** **goiburua** aukeratu.
4. Mezua eremuan, idatzi mezu. Txantiloio edo ohar bat txertatzeko, hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia** > **Testua gehitu** > **Txantiloia** edo **Oharra**.
5. Multimedia mezu batean multimedia objektu bat gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia**, hautatu objektuaren mota edo iturria eta objektua bera. Bisita-txartelak, diapositibak, oharra edo bestelako fitxategiren bat mezu gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia** > **Besteren bat gehitu**.
6. Multimedia mezu batean gehitzeko argazki bat atera edo soinua edo bideoa grabatu nahi badituzu, hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia** > **Irudia gehitu** > **Berria**, **Bideoklipa gehitu** > **Berria** edo **Gehitu soinu-klipa** > **Berria**.
7. Mezu elektronikokoan eranskin bat gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu eranskina**. Mezu elektronikoko eranskinek  adierazlea dute.

8. Mezu bat bidaltzeko, **Aukerak** > **Bidali** aukeratu edo deitzeko tekla sakatu.



**Oharra:** Mezua bidali dela dioen testu edo ikonoa pantailan agertzeak ez du esan nahi hartzaileak mezua jaso duenik.

Zure telefonoak mezu bakarreko muga gainditzen duten mezuak onartzen ditu. Mezu luzeagoak bi mezu edo gehiagotan banatuta bidaltzen dira. Zerbitzu-hornitzaileek bidalitako mezu kopuruen arabera kobratu ohi dute. Azentu-markak, bestelako ikurrak edo zenbait hizkuntzen aukerak leku gehiago hartzen dute, eta mezu batean bidal daitekeen karaktere kopurua murriztu egiten da.

Agian ezingo dituzu multimedia mezuetan MP4 formatuan gorde diren bideoak edo haririk gabeko sarearen gehienezko tamaina gainditzen dutenak bidali.



**Aholkua:** Argazkiak, bideoak, soinua eta testua aurkezpen batean konbinatu eta multimedia mezu batean bidal daitezke. Multimedia-mezua sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia** > **Aurkezpena gehitu**. Aukera hau ikusteko ezarpenek **MMS sortze-modua** edo **Librea** moduan zehaztua egon behar dute.

## Datuen, ezarpenen eta web zerbitzuen mezuak

Telefonoak datuak dituzten mota askotako mezuak jaso ditzake: esate baterako, bisita txartelak, tonuak, operadoreen logoak, egutegiko sarrerak eta mezu

elektronikoen jakinarazpenak. Ezarpenak ere jaso ditzakezu zure zerbitzu hornitzailearengandik konfigurazio mezu batean.

Mezuko datuak gordetzeko, aukeratu **Aukerak** eta dagokion aukera.

Web zerbitzuaren mezuak jakinarazpenak dira (adibidez, egunkarietako izenbutuak) eta testu mezuren bat edo estekaren bat eduki dezakete. Eskuragarritasuna eta harpidetzari buruzko informazioa lortzeko, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.

## Mezu irakurtzailea

Mezu irakurtzailearekin testua, multimedia, audio mezuak eta mezu elektronikoa entzun ditzakezu.

Mezu irakurtzailearen ezarpenak Ahotsa aplikazioan aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Hiztuna**.

Hasierako pantailan mezu berriak edo mezu elektronikoa entzuteko, eduki sakatuta ezkerreko aukeraketa-tekla Mezu irakurtzailea irekitzen den arte.

Sarrera ontziko mezuak edo postontziko mezu elektronikoa entzuteko, hautatu mezu bat eta **Aukerak** > **Entzun**. Edozein tekla sakatu irakurketa gelditzeko.

Erreproduktzioa eteteko edo berrekiteko, sakatu nabigazio-tekla. Hurrengo mezura joateko, sakatu nabigazio-tekla eskuinera. Uneko mezua edo mezu elektronikoa errepikatzeko, sakatu nabigazio-tekla ezkerreko. Aurreko mezura joateko, sakatu nabigazio-tekla ezkerreko birritan. Bolumena egokitzeko, mugitu gurpila gora edo behera.

## Mezuak

Uneko mezu edo mezu elektronikoa testu formatuan eta soinurik gabe ikusteko, **Aukerak** > **Ikusi** aukeratu.

## Posta elektronikoa

### E-maila konfiguratzea


Nokiaren posta elektronikorako laguntzailearekin, zure enpresaren kontu elektronikoa konfiguratu dezakezu, adibidez Microsoft Outlook, Mail for Exchange edo Intellisync, hala nola zure Interneteko kontu elektronikoa.

Enpresako posta elektronikoa konfiguratzen duzunean, baliteke zure helbide elektronikoarekin lotuta dagoen zerbitzariaren izena galdetzea. Eskatu xehetasunak zure enpresaren TI sailari.

1. Laguntzailea abiarazteko, zoaz hasiera pantailara, zoaz posta elektronikorako laguntzailera eta sakatu gurrupila.
2. Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza. Laguntzaileak ezarpenak automatikoki konfiguratuta ezin baditu, kontu elektorniko mota eta lotutako kontuaren ezarpenak sartu behar dituzu.

Telefonoak posta elektornikorako bezero gehiago baditu, posta elektronikorako laguntzailea abiaratzen duzunean eskainiko zaizkizu.


### Posta elektronikoa bidali

Aukeratu  > **Mezularitza**.

1. Aukeratu zure postontzia eta **Aukerak** > **Sortu mezu elektr.**

2. Nori eremuan, idatzi hartzaillearen helbide elektronikoa. Hartzaillearen helbide elektronikoa Kontaktuetan badago, hasi idazten hartzaillearen izena eta aukeratu hartzaillea proposamenetatik. Hartzaille bat baino gehiago gehitzen badituzu, idatzi ; helbide elektronikoak banatzeko. Erabili Cc eremua kopia bat beste hartzaillei bidaltzeko, edo Bcc eremua hartzaillei kopia itsu bat bidaltzeko. Bcc ez badago ikusgai, aukeratu **Aukerak** > **Gehiago** > **Erakutsi Bcc eremua**.
3. Gaia eremuan, mezuaren gaia idatzi.
4. Idatzi mezua testu eremuan.
5. Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoetatik:
  - **Gehitu eranskina** — Gehitu mezuan eranskin bat.
  - **Lehentasuna** — Zehaztu mezuaren lehentasuna.
  - **Bandera** — Ezarri mezuari bandera jarraipena egiteko.
  - **Txertatu txantiloia** — Txertatu testua txantiloietatik.
  - **Gehitu hartzaillea** — Gehitu hartzailleak mezuan Kontaktuetatik.
  - **Editatze aukerak** — Moztu, kopia edo itsatsi aukeratutako testua.
  - **Sarrera-aukerak** — Aktibatu edo desaktibatu testu iragarlea edo hautatu idazteko hizkuntza.
6. **Aukerak** > **Bidali** aukeratu.

### Posta elektronikoa irakurri

Aukeratu  > **Mezularitza**.



**Garrantzitsua:** Kontuz ibili mezuak irekitzean.


Mezuek asmo txarreko softwarea eduki dezakete edo, edonola ere, zure telefono edo ordenagailua kalte dezakete.

Jasotako mezu elektronikoa irakurtzeko, aukeratu postontzia eta zerrendako mezu bat.

Mezuaren bidaltzaileari erantzuteko, aukeratu **Aukerak** > **Erantzun**. Mezuaren bidaltzaileari eta beste hartzaile guztiei erantzuteko, aukeratu **Aukerak** > **Erantzun denei**.

Mezua berriro bidaltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Berbidali**.

## Eranskinak deskargatu

Aukeratu  > **Mezularitza** eta postontzi bat.


Jasotako mezu elektronikoen baten eranskinak ikusteko, zoaz eranskinera eta hautatu **Aukerak** > **Ekintzak**. Mezuak eranskin bat badu, hautatu **Ireki** eranskina irekitzeko. Mezuaren eranskin bat baino gehiago badaude, hautatu **Ikusi zerrenda** deskargatutako eta deskargatu gabeko eranskinen zerrenda ikusteko.

Aukeratutako eranskina edo zerrendako eranskin guztiak telefonora deskargatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Deskargatu** edo **Deskargatu guztiak**. Eranskinak ez dira telefonoan gordetzen, eta mezua ezabatzen duzunean ezabatzen dira.

Aukeraturako eranskina edo deskargatutako eranskin guztiak telefonoan gordetzeko, aukeratu **Aukerak** > **Gorde** edo **Gorde guztiak**.

Aukeratutako eta deskargatutako eranskina ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ekintzak** > **Ireki**.

## Postontzitik deskonektatu

Aukeratu  > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Telefonoa eta posta elektronikoko zerbitzariaren tarteko sinkronizazioa eteteko, eta posta elektronikoarekin hari gabeko konexiorik gabe lan egiteko, aukeratu **Aukerak** > **Deskonektatu**. Postontziak **Deskonektatu** aukera ez badauka, aukeratu **Aukerak** > **Irten** postontzitik deskonektatzeko.

Sinkronizazioa berriz abiarazteko, aukeratu **Aukerak** > **Konektatu**.

## Posta elektronikoen ezarpen orokorrak

Aukeratu  > **Mezularitza**, postontzia eta **Aukerak** > **Ezarp.** > **Ezarpen globalak** eta hurrengoetatik:

- **Mezu zerrenda diseinua** — Aukeratu sarrera ontzian dauden mezu elektronikoen testuaren linea bat edo bi erakustea nahi duzun.
- **Testu gorputz aurrebista** — Aukeratu sarrera ontziko mezuen zerrendan zehar mugitzen zarenean mezuak aurreikustea nahi duzun ala ez.
- **Titulu bereizleak** — Aukeratu **Aktibatu** mezu elektronikoen zerrenda zabaltzeko eta tolesteko.
- **Deskar. jakinarazpenak** — Aukeratu mezu elektronikoen eranskin bat deskargatu denean jakinarazpen bat agertzea nahi duzun ala ez.


## Mezuak

- **Hasierako pantaila** — Zehaztu hasiera pantailako informazio gunean mezu elektronikoen zenbat lerro agertu behar diren.

## ActiveSync


Mail for Exchange aplikazioaren erabilera PIM datuen hari gabeko sinkronizaziora mugatuta dago Nokia telefonoaren eta baimendutako Microsoft Exchange zerbitzarien artean.

## Mezuak SIM txartelean ikusi

Aukeratu  > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **SIM mezuak**. SIMeko mezuak ikusi aurretik, telefonoko karpeta batean kopiatu behar dituzu.

1. Mezuak markatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Markatu/Marka kendu** > **Markatu** edo **Markatu guztiak**.
2. Aukeratu **Aukerak** > **Kopiatu**. Karpeten zerrenda bat irekitzen da.
3. Kopiatzen hasteko, aukeratu karpeta bat. Mezuak ikusteko, ireki karpeta.

## Informazio zerbitzuko mezuak


Aukeratu  > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Zelula-difusioa**.

Informazio zerbitzuarekin (sareko zerbitzua) gai desberdinei buruzko mezuak jaso daitezke zerbitzu hornitzailearengandik, eguraldia eta errepedeen egoerari buruzkoak, adibidez. Eskuragarri dauden gaiak eta gaien

zenbaki aipagarrienak ezagutzeko, jo zerbitzu hornitzailearengana.

Informazio zerbitzuko mezuak ezin dira UMTS sareetan jaso. Datu paketeen konexioak informazio zerbitzuko mezuak jasotzea eragotz dezake.

## Zerbitzu komandoak

Aukeratu  > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Zerbitzu-komandoak**.


Zerbitzu komandoekin (sareko zerbitzua) zerbitzu eskaeretara (USSD komando bezala ezagunak ere) sar zaitezke eta bidal ditzakezu, hala nola zure zerbitzu hornitzailearen sare zerbitzuen aktibatze komandoak.

## Mezuen ezarpenak

Ezarpenak telefonoan aurrez zehaztuta egon daitezke, edo mezu baten bidez jaso ditzakezu. Ezarpenak eskuz zehazteko, bete **Nahitaez zehaztu** edo izartxo batez markatuta dauden eremuak.

Zerbitzu hornitzaileak mezuen zentro edo sargune batzuk edo guztiak aurrez ezartzen ditu, eta hauek ezin dira aldatu, sortu, editatu edo ezabatu.


## Testu mezuen ezarpenak

Aukeratu  > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Testu mezua**.

Aukeratu hauetatik:

- **Mezu zentroak** — Ikusi zehaztutako testu mezuen zentro guztien zerrenda.
- **Erabil. ari den mezu zent.** — Aukeratu testu mezuak bidaltzeko erabili nahi den mezuen zentroa.
- **Karaktere kodeketa** — Karaktereak beste kodeketa sistema batera bihurtzeko (aukera eskuragarri dagoenean), aukeratu **Euskarri mugatua**.
- **Txostena jaso** — Aukeratu sareak zure mezuei buruzko bidalketa txostenak igortzea nahi duzun ala ez (sareko zerbitzua).
- **Mezuaren baliotasuna** — Aukeratu mezu zentroak zenbat denboran saiatu behar duen mezua bidaltzen, lehenengo saiakerak huts egingo balu (sareko zerbitzua). Zehaztutako baliozkotasun epean mezua ezin izan bada bidali, mezuen zentrotik ezabatuko da.
- **Mez. formatu hon. bidali** — Jo zerbitzu hornitzailearengana zure mezuen zentroak testu mezuak beste formatuetara bilaka ditzakeen jakiteko.
- **Konexiorik gogokoena** — Aukeratu erabili nahi den konexioa.
- **Zentro beretik erantzun** — Aukeratu testu mezuei erantzuteko zentroko zenbaki berdina erabili nahi duzun ala ez (sareko zerbitzua).

## Multimedia mezuen ezarpenak

Aukeratu  > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Multimedia mezua**.


Aukeratu hauetatik:

- **Irudiaren neurria** — Zehaztu multimedia mezuetako irudien tamaina.

- **MMS sortze-modua** — **Gidatua** aukeratzen bada, bidali behar den mezua hartzaileak onartzen duen ala ez jakin daiteke. **Murritzua** aukeratzen bada, telefonoak onartzen ez diren mezuen bidalketa eragotziko du. Mezuetan edukiak gehitzeko jakinarazpenik jaso gabe, aukeratu **Librea**.
- **Erabil. ari den sarbidea** — Aukeratu konektatzeko sargune lehenetsia.
- **Multimedia berreskuratz.** — Aukeratu mezuak jasotzeko modua. Etxeko sarean mezuak automatikoki jasotzeko, aukeratu **Autom. etxeko sarean**. Etxeko saretik kanpo, ohar batek multimedia mezuen zentroan mezu berri bat dagoela jakinaraziko dizu. **Automatikoa beti** aukeratuz gero, telefonoak automatikoki datu pakete aktiboan konexio bat egingo du mezua berreskuratzeko, bai etxeko sarean baita ibiltaritzan ere.
- **Izengab. mezuak onartu** — Aukeratu igorle ezezagunen mezuak ukatu nahi dituzun ala ez.
- **Publizitatea jaso** — Aukeratu iragarkiak multimedia mezuen bidez jaso nahi dituzun ala ez.
- **Txostenak jaso** — Aukeratu bidalitako mezuen egoera erregistroan agertzea nahi duzun ala ez (sareko zerbitzua).
- **Ukatu txosten-bidalketa** — Aukeratu zure telefonoak jasotako mezuen bidalketa txostenak bidaltzea nahi duzun ala ez.
- **Mezuaren baliotasuna** — Aukeratu mezu zentroak zenbat denboran saiatu behar duen mezua bidaltzen, lehenengo saiakerak huts egingo balu (sareko zerbitzua). Zehaztutako denbora epean mezua ezin izan bada bidali, mezuen zentrotik ezabatuko da.

## Kontaktuak


### Web zerbitzuen mezu ezarpenak

 sakatu, eta **Mezularitza** > **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Zerbitzu mezua** aukeratu.

Aukeratu zerbitzu mezuak jaso nahi dituzun ala ez. Zerbitzu mezu bat jasotzen duzun bakoitzean, telefonoak automatikoki arakatzailera aktibatuta eta sare konexioa hastea nahi baduzu, edukiak berreskuratu ahal izateko, **Deskargatu mezuak** > **Automatikoki** aukeratu.

### Zelula-difusioaren ezarpenak

Eskuragarri dauden gaiak eta hauei lotutako zerbakiak zerbitzu-hornitzailearekin egiaztatu.


 sakatu, eta **Mezularitza** > **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Zelula-difusioa** aukeratu.

Honako hauetatik aukeratu:

- **Harrera** — Aukeratu zelula-difusioari buruzko mezuak jaso nahi dituzun ala ez.
- **Hizkuntza** — Aukeratu jasoko dituzun mezuen hizkuntza: **Guztiak**, **Aukeratutakoak** edo **Bestelakoa**.

## 9. Kontaktuak


### Kontaktuei buruz

Aukeratu  > **Kontaktuak**.

Kontaktuekin kontaktuen informazioa gorde eta egunera dezakezu, adibidez, telefono zerbakiak, helbideak eta helbide elektronikoak. Kontaktuari tonu pertsonal bat edo argazki bat gehi diezaiokezu. Kontaktu taldeak ere sor

- **Gaien detekzioa** — Aukeratu telefonoak automatikoki zerbaki berriak bilatu eta gaien zerrendan izenik gabe gordetzea nahi duzun ala ez.

### Ezarpen gehiago

 sakatu, eta **Mezularitza** > **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Bestelakoak** aukeratu.

Honako hauetatik aukeratu:


- **Gorde bidalitako mezuak** — Aukeratu **Bidalitakoak** karpetera bidalitako testu mezuen, multimedia mezuen edo mezu elektronikoaren kopia bat gorde nahi duzun ala ez.
- **Gordetako mezu kopurua** — Zehaztu bidalitako karpetan zenbat mezu gorde nahi dituzun aldi berean. Muga gaintitzen denean, mezurik zaharrena ezabatzen da.
- **Erabiltzen ari den memo.** — Aukeratu mezuak gordetzeko memoria.

ditzaitezue, honela aldi berean hainbat kontakturekin komunikatu ahal izango duzu eta kontaktu informazioa gailu bateragarrietara bidal dezakezu.

▶ ikonoa ikusten duzun bakoitzean, zoaz eskuinera eskuragarri dauden aukerak ikusteko. Zerrenda ixteko, mugitu ezkerrean.



## Kontaktuekin lan egin

Aukeratu  > **Kontaktuak**.

Kontaktu bat sortzeko, aukeratu **Aukerak** > **Kontaktu berria** eta idatzi kontaktuaren xehetasunak.

Memoria-txarteletik kontaktu baten xehetasunak kopiatzeko, eskuragarri badago, aukeratu **Aukerak** > **Segurtasun kopia egin** > **Mem. txartelatik telef.**

Kontaktua bilatzeko, hasi kontaktuaren izena bilaketa eremuan sartuz.

Bilaketa iragarle modura aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aktib. bil. auresalea**.

Kontaktua bilatzeko bilaketa iragarle moduan, hasi kontaktuaren izena bilaketa eremuan sartuz. Proposatutako hurrengo elementura mugitzeko, sakatu \*.


## Kokapen informazioa

Mapen erabilera mugatuta egon daiteke erosi duzun lizentziaren arabera.



**Oharra:** Mapak, sateliteko irudiak, ahots-fitxategiak, gidak edo trafikoaren informazioa deskargatzean datu kopuru handiak transmititzen dira (sareko zerbitzua).


Ia mapa digital gehienak neurri batean edo bestean zehaztu gabe edo osatu gabe daude. Ez oinarritu telefono honetan ematen diren mapetan soilik.

Hautatu  > **Kontaktua**.

Kontaktu bati Maps aplikazioko kokapen-informazioa gehitzeko, joan kontaktura eta hautatu **Aukerak** > **Editatu** > **Aukerak** > **Gehitu kokapena**.

Kontaktu bati Maps aplikazioko kokapen-informazioa gehitu badiozu, kokapena mapan ikus dezakezu. Joan kontaktura eta hautatu **Aukerak** > **Erakutsi Mapetan**.

## Kontaktuen taldeak sortu

Aukeratu  > **Kontaktua**.

1. Kontaktu talde bat sortzeko, zoaz taldean gehitu nahi duzun kontaktu bakoitzera eta aukeratu **Aukerak** > **Markatu/Marka kendu** > **Markatu**.
2. Aukeratu **Aukerak** > **Taldea** > **Taldean gehitu** > **Sortu talde berria** eta idatzi zure taldearentzako izen bat.

Konferentzia zerbitzua erabiliz taldera konferentzia deiak egin nahi badituzu, zehaztu hurrengoak:

- **Konf. zerbitzuaren zk.** — Idatzi konferentzia deierako zerbitzuaren zenbakia.
- **Konf. zerbitzuaren ID** — Idatzi konferentzia deiaren IDa.
- **Konf. zerbitzuaren PIN** — Idatzi konferentzia dei zerbitzuaren PIN kodea.

Konferentzia zerbitzua erabiliz taldeari konferentzia dei bat egiteko, aukeratu taldea, zoaz eskuinera eta aukeratu **Deitu konf. zerb.**


## Urruneko datu-base batean kontaktuak bilatu

Urruneko kontaktuen bilaketa aktibatzeko, aukeratu **Aukerak > Ezarpenak > Kontaktuak > Bilatu urrunetik**. Urruneko datu-base batean kontaktuak bilatzeko, aukeratu **Kontaktuak > Aukerak > Bilatu urrunetik**. Idatzi bilatu nahi duzun kontaktuaren izena eta aukeratu **Bilatu**. Telefonoak urruneko datu basearekin datu konexio bat ezartzen du.

Hasiera pantailan kontaktuak bilatzeko, hasi idazten hasiera pantailan letrak edo zenbakiak eta aukeratu proposatzen diren emaitzen datu-baseak.

Urruneko kontaktuen datu-basea aldatzeko, aukeratu **Aukerak > Ezarpenak > Kontaktuak > Urruneko bil. zerbitzaria**. Ezarpen honek Kontaktu eta Egutegi aplikazioek erabiltzen dituen datu-basean eta hasiera pantailan eragina du, baina ez posta elektronikoak erabiltzen duen datu basea.

## Kontaktuko direktorioak kudeatu


Aukeratu  > **Kontaktuko**.

Download! aplikaziotik kontaktu direktorioak instala ditzakezu.

Urean erabiltzen duzun kontaktu direktorioa aldatzeko, aukeratu kontaktu zerrendaren goialdea eta eskuragarri dauden direktorioak.

Kontaktuko direktorioak antolatzeko, aukeratu **Aukerak > Antol. kont. zerrendak** eta mugitu nahi duzun direktorioa.

## Kontaktuei tonuak esleitu


Aukeratu  > **Kontaktuko**.

Kontaktuko bati dei-tonu bat gehitzeko, aukeratu kontaktua, **Aukerak > Dei tonua** eta dei-tonua. Kontaktua deitzen zaituenean dei-tonua entzungo duzu.

Kontaktuko talde bati dei-tonu bat esleitzeko, aukeratu kontaktu taldea, **Aukerak > Taldea > Dei tonua** eta dei-tonua.

Tonua ezabatzeko, **Lehenetsitako tonua** aukeratu tonuen zerrendan.

## Kontaktuko ezarpenak aldatu


Hautatu  > **Kontaktuko**.

Kontaktuko aplikazioaren ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukerak > Ezarpenak > Kontaktuko** eta hurrengoetatik:

- **Erakutsiko diren kontak.** — Aukeratu kontaktuko erakusten dituen memoria.
- **Lehenetsitako memoria** — Aukeratu kontaktuko gordetzeko memoria lehenetsia.
- **Izen ikuspegia** — Aldatu kontaktuen izenak agertzen diren modua.
- **Kont. zerren. lehenetsia** — Aukeratu zer kontaktu direktorio irekiko den kontaktu aplikazioa irekitzen duzunean.
- **Urruneko bil. zerbitzaria** — Aldatu urruneko kontaktuen datu-basea. Aukera hau eskuragarri dago soilik zure zerbitzu-hornitzaileak urruneko kontaktuen datu-baseak onartzen baditu.

## 10. Egutegia

### Egutegiari buruz

Aukeratu  > **Egutegia**.


Egutegiarekin, antolatutako gertaerak sor eta ikus ditzakezu eta egutegi ikuspegi ezberdinen artean alda dezakezu.

Hilabete ikuspegian, egutegi sarrerak hiruki batekin adierazten dira. Urteurren sarrerak harridura ikur batekin adierazten dira. Aukeratzen duzun egunaren sarrerak zerrenda batean agertzen dira.

Egutegi sarrerak irekitzeko, aukeratu egutegi ikuspegi bat eta sarrera bat.

► ikonoa ikusten duzun bakoitzean, zoaz eskuinera eskuragarri dauden aukerak ikusteko. Zerrenda ixteko, mugitu ezkererra.

### Egutegi sarrerak sortzea

Hautatu  > **Egutegia**.

Mota hauetako egutegi sarrerak sor ditzakezu:

- Bilera sarrerak data eta ordu jakina ezarrita duten gertaerak gogorarazten dizkizute.
- Bilera eskaerak parte hartzaileei bidal diezaiekezun gonbidapenak dira. Bilera eskaerak sortu ahal izan baino lehen, gailuan sarrera ontzi bateragarri bat konfiguratuta izan behar duzu.

- Memo sarrerak egun osoari lotuta daude, baina ez egunaren ordu jakin bati.
- Urtemuga sarrerak urtebetetzeak eta data bereziak gogorarazten dizkizute. Egund jakin bati lotuta daude, baina ez egunaren ordu jakin bati. Urtemuga sarrerak urtero errepikatzen dira.
- Egiteko sarrerak epe bat duten ataza bat gogorarazten dizute, baina egunaren ordu jakin bati lotuta ez dagoena.

Egutegi sarrera bat sortzeko, hautatu data bat, **Aukerak** > **Sarrera berria**, eta sarrera mota.


Bilera sarreraren lehentasuna ezartzeko, hautatu **Aukerak** > **Lehentasuna**.

Sinkronizatzean sarrera nola kudeatu behar den definitzeko, hautatu **Pribatua** sarrera ezkutatzeko egutegia konektatuta daudenean ikusi ahal badute, **Publikoa** sarrera ikus dezaten, edo **Bat ere ez** sarrera zure ordenagailuan kopia ez dadin.

Sarrera gailu bateragarri bati bidaltzeko, hautatu **Aukerak** > **Bidali**.

Bilera sarrera baten bilera eskaera burutzeko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu partaideak**.

### Bilera eskaerak sortzea

Hautatu  > **Egutegia**.

## Egutegia

Bilera eskaerak sortu ahal izan baino lehen, gailuan sarrera ontzi bateragarri bat konfiguratuta izan behar duzu.

Bilera eskaera bat sortzeko:

1. Bilera sarrera bat sortzeko, hautatu egun bat eta **Aukerak > Sarrera berria > Bilera eskaera**.
2. Idatzi parte hartzaileen izenak. kontaktu zerrenda batetik izenak gehitzeko, idatzi hasierako karaktereak eta hautatu bat datozen aukeren artean. Hautazko parte hartzaileak gehitzeko, hautatu **Aukerak > Gehitu partaideak**.
3. Idatzi gaia.
4. Idatzi hasiera eta amaiera orduak, edo hautatu **Egun osoa**.
5. Idatzi kokalekua.
6. Ezarri alarma bat sarrerarentzat, beharrezkoa bada.
7. Bilera errepikatu behar bada, ezarri errepikapen-epea eta idatzi amaiera data.
8. Adierazi deskribapena.

Bilera eskaeraren lehentasuna ezartzeko, hautatu **Aukerak > Lehentasuna**.

Bilera eskaera bidaltzeko, hautatu **Aukerak > Bidali**.

## Bileren kokapena

Mapen erabilera mugatuta egon daiteke erosi duzun lizentziaren arabera.




**Oharra:** Mapak, sateliteko irudiak, ahots-fitxategiak, gidak edo trafikoaren informazioa deskargatzean datu kopuru handiak transmititzen dira (sareko zerbitzua).

Ia mapa digital gehienak neurri batean edo bestean zehaztu gabe edo osatu gabe daude. Ez oinarritu telefono honetan ematen diren mapetan soilik.

Bilera bat edo bilera-eskaera bat editatzerakoan Maps aplikazioko kokapen-informazioa gehitzeko, joan kokapenaren eremura eta hautatu **Aukerak > Gehitu kokapena**.

Bilera edo bilera-eskaera bati Maps aplikazioko kokapen-informazioa gehitu badiozu, kokapena mapan ikus dezakezu. Ireki bilera edo bilera-eskaera eta hautatu **Erakutsi Mapetan**.

## Egutegiaren ikuspegiak

Aukeratu  > **Egutegia**.

Hurrengo ikuspegiaren artean alda dezakezu:

- Hilabete ikuspegiak uneko hilabetea eta aukeratutako egunaren sarrerak zerrenda batean erakusten ditu.
- aste ikuspegiak gertaerak zazpi egunetako kutxetan erakusten ditu.
- Egun ikuspegiak aukeratutako eguneko gertaerak hasiera dataren arabera sailkatuta erakusten ditu.
- Egitekoen ikuspegiak egiteko elementu guztiak erakusten ditu.


- Agenda ikuspegiak aukeratutako eguneko gertaera guztiak erakusten ditu.

Ikuspegia aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aldatu ikuspegia** eta nahi duzun ikuspegia.



**Aholkua:** aste ikuspegia irekitzeko, aukeratu aste zenbakia.

## 11. Argazkiak

Hautatu  > **Galeria** > **Irudiak, bideoak** eta hurrengoetatik:

- **Hartutakoak** — Ikusi ateratako argazki eta bideo guztiak.
- **Hilabeteak** — Ikusi argazkiak eta bideoak ateratako hilabetearen arabera sailkatuta.
- **Albumak** — Ikusi album lehenetsiak eta zuk sortutakoak.
- **Etiketak** — Ikusi elementu bakoitzarentzat sortu dituzun etiketak.
- **Deskargak** — Ikusi saretik deskargatutako edo multimedia mezuetan eta mezu elektronikoetan jasotako elementuak eta bideoak.

## 12. Kamera

Segurtasun distantzia bat mantentzeko ezazu flasha erabiltzerakoan. Ez erabili flasha pertsona edo animaliangandik hurbil. Ez estali flasha argazkia ateratzen ari zaren bitartean.

Hurrengo edo aurreko hilabeteko egunera, astera, egunera eta agenda ikuspegira mugitzeko, aukeratu nahi duzun eguna.

Ikuspegi lehenetsia aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Ikuspegi lehenetsia**.

- **Denak** — Ikusi elementu guztiak.
- **Par. on-line** — Igo argazkiak eta bideoak sarera.

Zure memoria-txartel bateragarrian (sartuta badago) gordetako fitxategiak  bidez adierazita daude.


Fitxategiak beste toki batera kopiatzeko edo mugitzeko, fitxategia aukeratu eta **Aukerak** > **Mugitu eta kopiatu** sakatu.

Telefonoak bi kamera ditu argazkiak ateratzeko eta bideoak grabatzeko. Bereizmen handiko kamera nagusia telefonoaren atzeko aldean dago, modu horizontalean, eta bereizmen gutxiagoko bigarren kamera telefonoaren aurreko aldean dago, modu bertikalean. Lehen kamera

## Kamera

aktibatuta dagoenean bigarren kamera aktibatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ordezko kamera erabili**.

## Argazkiak atera








Hautatu  > **Kamera**. Kamera-tekla sakatuta ere kamera aktibatzen da .


Zure telefonoak 2592 x 1944 pixel arte (5 Mpix) pixeleko bereizmena duten irudiak onartzen ditu. Gida honetan irudiaren bereizmena modu ezberdinean azal daiteke.


Argazki bat ateratzeko, erabili pantaila bisore gisa eta sakatu argazkiak ateratzeko tekla. Telefonoak argazkia Galerian gordetzen du.

Argazkia atera aurretik zooma handitzeko edo txikitzeko, erabili zoomaren teklak.

Tresna-barrak hainbat elementuren eta ezarpenen lasterbideak eskaintzen dizkizu argazki bat atera edo bideo bat grabatu aurretik eta ondoren. Hautatu hurrengoan artetik:

-  Aldatu argazki modura.
-  Aldatu bideo modura.
-  Aukeratu eszena.
-  Itzali bideoaren argia (bideo moduan soilik)
-  Piztu bideoaren argia (bideo moduan soilik)
-  Aukeratu flash modua (argazkietan soilik).
-  Aktibatu tenporizadorea (argazkietan soilik).

 Aktibatu sekuentzia modua (argazkietan soilik).

 Hautatu kolorearen tonua.

 Doitu zurien balantzea.

Eskuragarri dauden aukerak hautatuta duzun moduaren eta zauden ikuspegiaren arabera dira. Ezarpen lehenetsiak berrezartzen dira kamera ixten duzunean.

Kameraren tresna-barra pertsonalizatzeko, aldatu argazki modura eta hautatu **Aukerak** > **Pertsonaliz. tresna-barra**.


Tresna-barra argazki bat atera edo grabaketa bat egin aurretik eta ondoren ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Erakutsi tresna barra**.

Tresna-barra behar duzunean bakarrik ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Ezkutatu tresna barra**.

## Atera argazki panoramiko bat

1. Modu panoramiko erabiltzeko, hautatu **Aukerak** > **Modu panoramiko**.
2. Sakatu kamera-tekla. Aurrebista panoramikoak bistaritzen da.
3. Biratu astiro eskuinera edo ezkerreara. Ezin duzu norabidez aldatu. Pantailako gezia gorria bada azkarregi ari zara biratzen.
4. Argazki panoramiko amaitzeko, sakatu kamera-tekla.

## Grabatu bideoak

Hautatu  > Kamera.

1. Kamera argazki moduan badago, hautatu bideo modua tresna-barran.
2. Grabatzen hasteko, sakatu kamera-tekla.
3. Grabaketa eteteko, hautatu **Eten**. Hautatu **Jarraitu** grabatzen jarraitzeko.
4. Grabaketa eteteko, hautatu **Gelditu**. Bideoa automatikoki gordetzen da Galerian. Bideoaren gehienezko luzera memoria eskuragarriak mugatzen du.

## Kokapen informazioa

Kokapen-informazioa automatikoki gehi dezakezu ateratako argazkietan eta grabatutako bideoetan. Adibidez, Argazkiak aplikazioan argazki bat non atera zen jakin dezakezu.

## 13. Internet




### Web arakatzailerak


Web arakatzailerak aplikazioarekin, html (Hypertext Markup Language) kodeketa erabiltzen duten web orriak ikus daitezke sortu ziren bezala. Telefono mugikorrontzat zuzendutako web orriak ere araka daitezke eta xhtml (Extensible Hypertext Markup Language) edo wml (Wireless Markup Language) erabil daitezke.

Web arakatzeko, Interneteko sargune batek konfiguraturata egon behar du telefonoan.

Lortutako materialari kokapen informazioa gehitzeko, kameran **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Grabatu kokapena** > **Jarrita** aukeratu.


Kokapenaren informazio adierazleak pantailaren behealdean ikusten dira:


-  — Kokapen informazioa ez dago eskuragarri. GPSak aktibo jarraitzen du atzeko planoan hainbat minutuz. Satelite-konexio bat aurkitzen bada eta adierazlea  gisa agertzen bada, bitarte horretan ateratako argazkiei eta grabatutako bideoei jasotako GPS kokapen-informazioan oinarritutako etiketak gehitzen zaizkie.
-  — Kokapen informazioa eskuragarri dago. Kokapen-informazioa ateratako materialean gehitzen da.

Kokapen-informazioa duten fitxategiek  adierazlea dute Argazkiak aplikazioan.

### Sarea arakatu

Aukeratu  > **Internet** > **Webgunea**.

 **Lasterbidea:** Arakatzailerak irekitzeko, eduki sakatuta **0** hasierako pantailan.

Sarea arakatzeko, laster marken ikuspegiari, aukeratu laster marka bat edo hasi web helbidea idazten ( eremua automatikoki irekitzen da) eta aukeratu **Hona joan**.

Baliteke web orri batzuk ikusteko memoria kopuru handia behar duten materiala edukitzea, adibidez grafikoak eta

## Internet

soinuak. Horrelako orri bat kargatzen ari den bitartean zure telefonoa memoriarik gabe geratzen bada, orrialdeko grafikoak ez dira ikusiko.

Grafikoak desgaitutako web orriak arakatzeko, memoria aurrezteko eta orrialdea kargatzeko abiadura handitzeko, hautatu **Aukerak > Ezarpenak > Orria > Edukia kargatu > Testua soilik**.

Web helbide bat idazteko, sakatu **Aukerak > Joan hona: > Web-orri berria**.

Webgunearen edukia eguneratzeko, aukeratu **Aukerak > Web-orriaren aukerak > Birkargatu**.

Uneko webgunea laster marka gisaa gordetzeko, aukeratu **Aukerak > Web-orriaren aukerak > Laster-marka gisa gorde**.

Uneko arakatzeko-saioan ikusi dituzun orrien argazkiak ikusteko, aukeratu **Atzera** (eskuragarri dago **Historia-zerrenda** arakatzailerik ezarpenetan aktibatuta badago eta uneko web orria ez bada bisitatzen duzun lehenengoa).

Leihorik askoren irekitze automatikoa baimendu edo galarazteko, aukeratu **Aukerak > Web-orriaren aukerak > Blokeatu popup-ak** edo **Pop up-ak baimendu**.

Lasterbide teklen mapa ikusteko, aukeratu **Aukerak > Teki. lasterb..** Lasterbide teklak editatzeko, hautatu **Editatu**.



**Aholkua:** Aplikaziotik edo konexiotik irten gabe arakatzailerik minimizatzeko, sakatu amaiera-tekla behin.

## Arakatzaileraren tresna barra

Arakatzaileraren tresna barrak gehien erabilitako funtzioetara joatea errazten du.

Tresna barra irekitzeko, gurpila luze sakatu webgune bateko hutsune batean. Tresna barran mugitzeko, gurpilarekin ezkerretara edo eskuinetara mugitu. Funtzio bat aukeratzeko, gurpila sakatu.

Tresna barran aukeratu:

- **Maiz erabilitako estekak** — Gehien ikusitako webguneen zerrenda.
- **Orri-ikuspegia** — Ikusi uneko webgunearen ikuspegi orokorra.
- **Bilatu** — Bilatu uneko webguneko gako hitzak.
- **Birkargatu** — Eguneratu orria.
- **Harp. sareko jarioetara** (eskuragarri badago) — Ikusi uneko webgunean eskuragarri dauden web iturriak eta harpidetu haietako batera.

## Orrietan nabigatu

Minimapa eta Orrialdearen ikuspegiak informazio kopuru handia duten web orrialdeetan nabigatzeko laguntzen dute.

Minimapa aktibatuz, aukeratu **Aukerak > Ezarpenak > Orokorra > Mapa txikia > Aktibatu**. Web orria handi batean zehar zoazenean, Minimapa irekitzen da eta orrialdearen ikuspegi orokorra erakusten du.

Minimapan mugitzeko, mugitu ezkerretara, eskuinetara, gora edo behera. Nahi duzun kokapena aurkitzen duzunean, utzi mugitzeari. Minimapa desagertu egiten da eta aukeratzeko kokapenean uzten zaitu.



Informazio kopuru handi bat duen web orri bat arakatzen duzunean, Orria ikuspegi orokorra erabili dezakezu web orrialdeak daukan informazio mota ikusteko.

Sakatu **8** uneko web orriaren ikuspegi orokorra ikusteko. Web orriko nahi den lekua aurkitzeko, mugitu gora, beheara, ezkerretara edo eskuinetara. Sakatu **8** zooma berriz hurbildu eta web orriaren zati zehatz bat ikusteko.

## Eduki bilaketa

Uneko webgunean testuak, telefono zenbakiak edo helbide elektronikoak bilatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Testua** eta nahi duzun aukera. Joan aurreko emaitzara, igo. Joan hurrengo emaitzara, jaitsi.



**Aholkua:** Testua momentuko webgunean bilatzeko, sakatu **2**.

## Elementuak deskargatu eta erosi

Tonuak, argazkiak, operatzaileen logoak, gaiak eta bideoak deskarga daitezke, besteak beste. Elementu hauek doan eskura edo eros daitezke. Deskargatutako elementuak telefonoko dagozkien aplikazioek onartzen dituzte, adibidez deskargatutako argazki bat Galeria atalean gorde daiteke.



**Garrantzitsua:** Seguruak diren iturrietako aplikazio eta softwareak soilik instalatu eta erabili. Symbian Signed edo Java Verified™ aplikazioen proba gainditu dutenak, adibidez.

Elementu bat deskargatzeko:

1. Aukeratu esteka.
2. Aukeratu elementua erosteko aukera egokia (adibidez, **Erosi**).
3. Kontuz irakurri eskuratutako informazio guztia.
4. Deskarga jarraitu edo ezetzatzeko, aukeratu aukera egokia (adibidez, **Onartu** edo **Ezetzatu**).


Deskarga bat hasten duzunean, uneko araketaren sesioko abiarazitako eta osatutako deskargak bistaritzen dira.


Zerrenda aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Deskargak**. Zerrendan, aukeratu elementu bat eta **Aukerak** abiarazitako deskargak ezetzatzeko edo osatutako deskargak ireki, gorde edo ezabatzeko.

## Laster markak

Hautatu  > **Internet** > **Webgunea**.

Laster-marken ikuspegia arakatzailera irekitzen duzunean agertzen da. Berriki bisitatur. orriak Berriki bistatutako orriak karpetan, Web helbideak zerrenda batetik edo laster-marka bilduma batetik hauta daitezke.

Web helbide bat idazten hasten bazara,  eremua automatikoki irekitzen da.

 sargune lehenetsian zehaztu den hasierako orrialdea adierazten du.

Aukeratu **Aukerak** eta hauetatik:

- **Joan hona:** — Idatzi web helbide berri bat, joan aurreko web orrira edo ikusi gordetako web jarioetarako eta blogetarako estekak.

## Internet

- **Laster-mark. aukerak** — Bidali eta gehitu laster-markak eta ezarri laster-markak hasierako orri gisa.
- **Las.-mark. kudeatzail.** — Editatu, mugitu eta ezabatu laster-markak.

## Cache ezabatu

Atzitutako informazioa edo zerbitzuak telefonoaren cache memorian gordetzen dira.

Cachea datuak denbora batez gordetzeko erabiltzen den memoriaren kokaleku bat da. Pasahitzak erabiliz ezkutuko informaziorik sartu edo sartzan saiatuz gero, hustu beti gordailua erabili ondoren.

Cachea husteko, aukeratu **Aukerak** > **Garbitu datu pribatuak** > **Cachea**.

## Konexioa amaitu

Konexioa amaitu eta arakatzaila konexiorik gabe ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Deskonektatu**.

Konexioa amaitu eta arakatzaila ixteko, hautatu **Aukerak** > **Irten**.

Konexioa amaitu gabe arakatzaila minimizatzeke, sakatu amaitzeko tekla behin. Konexioa amaitzeko, eduki sakatuta amaitzeko tekla.

Sareko zerbitzariak bisitatutako web orrialdeei buruz gordetako informazioa ezabatzeke, hautatu **Aukerak** > **Pribat. datuak ezabatu** > **Cookieak**.

## Konexio seguruak

Segurtasun adierazlea (🔒) konexioa dagoen bitartean bistaritzen bada, telefonoa eta Interneteko atebide edo zerbitzariaren arteko datu transmisioa kodifikatuta egongo da.

Segurtasun ikonoak ez du esan nahi ataka eta edukiaren zerbitzariaren (datuak gordetzen diren tokiaren) arteko datu igorpena segurua denik. Zerbitzu-hornitzaileak pasagunea eta edukien zerbitzariaren arteko datu igorpena ziurtatzen du.


Segurtasun ziurtagiriak zerbitzu batzuentzat beharrezkoak izan daitezke, adibidez bankuen zerbitzuak. Zerbitzariaren identitatearen egiazkoa ez dela edo zure telefonoan segurtasun ziurtagiri egokia ez duzula jakinaraziko zaizu. Informazio gehiago jasotzeko, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.



**Garrantzitsua:** Ziurtagiriak erabiltzeak urrutiko konexioa eta software instalazioarekin lotuta egon daitezkeen arriskuak ia nabarmen gutxitzen dituen arren, ziurtagiri horiek zuzentasunez erabili behar dira segurtasun gehigarri hori benetan aprobetxatu ahal izateko. Ziurtagiri bat izateak soilik, berez, ez du eskaintzen inolako babes motarik. Ziurtagiriaren administratzaileak ziurtagiri zuzenak, egiazkoak edo fidagarriak eduki behar ditu ziurtasun gehigarria erabilgarria izan dadin. Ziurtagirik bizi iraupen mugatua izaten dute. "Ziurtagiri iraungia" edo "Ziurtagiri onartezina" oharrak agertzen badira, ziurtagiriak onargarria izan behar lukeen arren, egiazta ezazu telefonoko data eta ordua zuzenak direla.

Ziurtagiriaren ezarpen datutik aldatu baino lehen, ziurtagiriaren jabea konfidantzazkoa dela eta ziurtagiria benetan zerrendan dagoen jabearena dela egiazta ezazu.

## Web ezarpenak

Hautatu  > **Internet** > **Webgunea** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** eta aukera hauetariko bat:

### Ezarpen orokorrak

- **Sarbidea** — Lehenetsitako sarbidea aldatu. Gerta liteke sarbide batzuk edo guztiak zerbitzu-hornitzaileak berak ezartzea. Baliteke ezinezkoa izatea zerbitzariak aldatzea, sortzea, exekutatzea edo ezabatzea.
- **Hasierako orria** — Zehaztu hasierako orria.
- **Mapa txikia** — Mini Mapa gaitu edo ezgaitu Mini Mapak web orri nabigazioan laguntzen du.
- **Historia-zerrenda** — **Aktibatu** hautatzen baduzu arakatzan duzun bitartean, uneko saioan ikusi dituzun orrien zerrenda bat ikusteko, hautatu **Atzera**.
- **Segurtasun-abisuak** — Segurtasun jakinarazpenak ezkutatu edo erakutsi.
- **Java/ECMA skripta** — Scripten erabilera gaitu edo ezgaitu.
- **Java/ECMA script erroreak** — Hautatu skript jakinarazpenak jaso nahi dituzun.
- **Deskargatu artean ireki** — Hautatu fitxategi bat deskargatzerakoan irekitzeko gai izan nahi duzun.

### Orrialdearen ezarpenak

- **Edukia kargatu** — Hautatu arakatzan duzun bitartean irudiak eta beste objektuak kargatu nahi dituzun. **Testua**

**soilik** hautatuz gero, arakatzeko-saioan zehar irudiak edo objektuak kargatzeko, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Kargatu irudiak**.

- **Lehenetsitako kodeketa** — Karaktereak ez badira behar bezala agertzen, beste kodeketa bat aukera dezakezu uneko orriaren hizkuntzaren arabera.
- **Blokeatu popup-ak** — Arakatzan pop-up desberdinen irekitze automatikoa baimendu edo blokeatu.
- **Birkargatze automatikoa** — Hautatu arakatzan duzun bitartean web orriak automatikoki eguneratzea nahi duzun.
- **Letra-tamaina** — Web orrialdeetan erabiliko den letraren tamaina zehaztu.

### Pribatutasun ezarpenak

- **Berriki bisitatur. orriak** — Laster-marken biltze automatikoa gaitu edo ezgaitu. **Berriki bisitatur. orriak** karpetan bisitatutako web orrialdeen helbideak gordetzen jarraitu nahi baduzu, baina aldi berean karpeta laster-marken ikuspegitik gorde nahi baduzu, **Ezkutatu karpeta** aukeratu.
- **Inprim. dat. gordetzen** — Hautatu web orri batean modu ezberdinetan sartu dituzun pasahitz datuak edo datuak gordetzea eta orria irekitzen duzun hurrengo aldian erabiltzea nahi duzun.
- **Cookieak** — Cookieen jasotzea eta bidalketa gaitu edo ezgaitu.

### Web iturrien ezarpenak

- **Aut. eguneratzeko sarbid.** — Hautatu eguneratzeko nahi duzun sarbidea. Aukera hau eskuragarri egongo da **Eguneratze automatik.** aktibo dagoenean.

## Internet

- **Ibilitaritzan eguneratu** — Hautatu ibilitaritzan zauden bitartean web jarioak automatikoki eguneratzea nahi duzun ala ez.

## Sarean partekatu

### Sarean partekatzeari buruz

Aukeratu  > **Internet** > **Par. on-line.**

Share online zerbitzuarekin, zure telefonoko irudiak, bideo klipak eta soinu klipak bateragarria den sareko partekatze zerbitzu batean sar ditzakezu, hala nola, albumak edo blogak. Zerbitzu hauetan sarrerak ikus eta sarrerei buruzko zerbait idatz dezakezu, eta idatzi duzuna bateragarria den Nokia gailu batera deskarga dezakezu.

Sarean partekatzeko zerbitzuaren eskuragarritasuna eta eduki mota bateragarriak desberdinak izan daitezke.

### Zerbitzuetara harpidetu

Aukeratu  > **Internet** > **Par. on-line.**

Sareko partekatze zerbitzuetara harpidetzeko, joan zerbitzu hornitzailearen webgunera eta egiaztatu zure Nokia telefonoa zerbitzuarekin bateragarria den ala ez. Sortu kontu bat webgunean adierazi bezala. Kontuarekin zure telefonoa konfiguratzeko beharrezkoak diren erabiltzaile izena eta pasahitza jasoko dituzu.

1. Zerbitzu bat aktibatzeko, zure telefonoan ireki Share online aplikazioa eta aukeratu zerbitzu bat eta **Aukerak** > **Aktibatu**.

2. Baimendu telefonoa sare konexio bat sor dezan. Internet sargune bat eskatzen bazaizu, aukeratu zerrendako bat.
3. Sartu zure kontuan zerbitzu hornitzailearen webgunean esaten dizuten bezala.

Lineako partekatze zerbitzuko Nokia zerbitzuak doakoak dira. Zure zerbitzu hornitzaileak sarearen bidez transferitutako edozein datugatik kobratu lezake. Hirugarrenek hornitutako zerbitzuen eskuragarritasun eta kostuei buruzko informaziorako, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin edo hirugarrenekin.

### Sarrera bat sortu

Aukeratu  > **Internet** > **Par. on-line.**

Zerbitzu bati multimedia fitxategiak bidaltzeko, hautatu zerbitzu bat eta **Aukerak** > **Karga berria**. Lineako partekatzearen zerbitzuak fitxategiak bidaltzeko kateak eskaintzen baditu, hautatu nahi duzun katea.

Irudiak, bideo klipak edo soinu klipak sarrerara gehitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Sartu**.

Idatzi elementuaren titulua edo deskribapena, eskuragarri badago.

Sarrerara etiketak gehitzeko, aukeratu **Etiketak**:

Fitxategiaren barneko kokapen informazioa bidaltzea posible egiteko, hautatu **Kokap.:**

Fitxategi baten pribatutasun maila ezartzeko, aukeratu **Pribatut.:** Guztiei zure fitxategia ikustea baimentzeko, aukeratu **Publikoa**. Besteek zure fitxategia ez ikusteko,

aukeratu **Pribatua**. **Lehenetsia** ezarpena zerbitzu hornitzailearen webgunean zehaz dezakezu.

Sarrera zerbitzura bidaltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Kargatu**.

## Nokiaren Bideo Zentroa


Nokia-ren Bideo zentroarekin (sareko zerbitzua), bideoak deskargatu eta zuzenean erreproduzi ditzakezu Interneteko bideo zerbitzu bateragarrietatik, datu pakete edo WLAN konexio bat erabiliz. Bideoak ordenagailu bateragarri batetik telefonora transferi daitezke eta Bideo zentroan ikusi.

Bideoak deskargatzeko datu paketeen sarguneak erabiltzeko zure zerbitzu hornitzailearen saretik datu kantitate handiak bidaltzea esan nahiko luke. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.

Telefonoak zerbitzu lehenetsiak eduki ditzake.

Zerbitzu hornitzaileek dohaineko edukia eskain dezaketeko edo bestela gastuak kobratu. Egiatzatu prezioak zerbitzuan edo galdetu zerbitzu hornitzaileari.

## Bideoklipak ikusi eta deskargatu Bideo zerbitzuetara konektatu

1. Aukeratu  > **Internet** > **Bid. zentr.**
2. Bideo bat instalatzeko zerbitzu bati konektatzeko, aukeratu **Bideoak** eta nahi duzun bideo zerbitzua aukeratu zerbitzu katalogotik.

## Bideoklip bat ikusi

Instalaturako bideo zerbitzuen edukiak arakatzeko, **Bideo jarioak** aukeratu.

Bideo zerbitzu batzuen edukia kategorietan sailkatuta dago. Bideoklipak arakatzeko, kategoria bat aukeratu.

Zerbitzuan bideoklip bat bilatzeko, **Bideo bilaketa** aukeratu. Baliteke bilaketa eskuragarri ez egotea zerbitzu guztietan.

Bideo batzuk zuzenean erreproduzitu daitezke, baina beste batzuk lehenengo telefonora deskargatu behar dira. bideo bat deskargatzeko, **Aukerak** > **Deskargatu** aukeratu. Aplikazioa irekiz gero, deskargek atzeko planoan jarraitzen dute. Deskargatutako bideoklipak Nire Bideoetan gordetzen dira.

bideo batekin airetik lana egiteko edo deskargatutako bat ikusteko, **Aukerak** > **Erreproduzitu**. aukeratu. Bolumena egokitzeko, bolumenaren tekla erabili.



**Abisua:** Bolumen altuarekin jarraian denbora gehiegi egoteak zure entzumena kaltetu dezake. Entzun musika bolumen egokian eta ez eduki telefonoa belarriaren ondoan bozgorailua abian denean.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoak:

- **Jarraitu deskarga** — Geldirik dagoen deskarga edo huts egin duena berrabiatu.
- **Ezeztatu deskarga** — Deskarga bat ezeztatu.
- **Aurrebista** — Bideoklip bat aurreikusi
- **Jario xehetasunak** — Bideoklip baten informazioa ikusi.
- **Freskatu zerrenda** — Bideoklipen zerrenda eguneratu.

## Pertsonalizazioa

- **Ireki esteka arakatz.** — Web arakatzailan esteka bat ireki.

## Deskargak antolatu

Bideoklipak automatikoki deskargatzeko aplikazioa ezartzeak zure zerbitzu-hornitzailearen saretik datu kantitate handiak bidaltzea eragin dezake. Datu transmisioen kostuei buruzko informazioa jasotzeko jo zure zerbitzu-hornitzailearengana. Zerbitzu batean bideoklipen deskarga automatiko baten ordutegia ezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Jarri deskargak taulan**. Bideo Zentroak bideoklipak automatikoki deskargatzen ditu egunero bideo berriak zuk ezarritako orduan.

Antolatutako deskargak ezeztatzeko, aukeratu **Eskuzko deskarga** deskarga modu bezala.

## Bilatu

### Bilaketa bat egin

Aukeratu  > **Internet** > **Bilaketa**.

Mugikorraren edukiak bilatzeko, idatzi bilaketa hitzak bilaketa eremuan edo arakatu eduki kategoriak. Bilaketa hitzak sartzen dituzun bitartean, emaitzak kategorien arabera sailkatzen dira. Berriki sartutako emaitzak zerrendaren goialdean agertuko dira, hitzarekin bat badatoz.

Interneten web orriak bilatzeko, aukeratu **Bilatu Interneten**, bilaketa hornitzaile bat eta sartu bilaketa hitzak bilaketa eremuan. Aukeratu duzun bilaketa hornitzailea lehenetsitako Internet bilaketa hornitzaile bezala ezartzen da.

Jadanik bilaketa hornitzaile lehenetsi bat ezarri bada, aukeratu ezazu bilaketa abiatzeko edo aukeratu **Bilaketa zerbitzuak** beste bilaketa hornitzaile bat erabiltzeko.

Zerbitzu hornitzaile lehenetsia aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aukeratu zerbitzua**.

Herrialde edo eskualde ezarpenak aldatzeko hornitzaile gehiago aurkitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Herrialdea edo eskuald.**

## Nokia Musika Denda

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **Mus. denda**.

Nokia Musika Dendan (sareko zerbitzua) telefonora deskargatzeko musika bila, araka eta eros daiteke. Musika erosteko, lehenik zerbitzuan erregistratu behar da.

Nokia Musika Dendan sartzeko, Interneteko sargune zuzena behar da.

Nokia Music Store ez dago eskuragarri herrialde eta eskualde guztietan.

### Nokia Musika Dendaren ezarpenak

Nokia Music Store zerbitzuaren ezarpenen eskuragarritasuna eta itxura alda litezke. Zenbait ezarpen lehenetsiak eta editaezinak izan daitezke. Baliteke erabiliko den sargunea idatzi behar izatea Nokia Music Store zerbitzura konektatzen zarenean. Aukeratu **Lehenetsitako sarbidea**.

Nokia Music Store zerbitzuan, ezarpenak edita daitezke **Aukerak** > **Ezarpenak** aukeraturaz.

## 14. Pertsonalizazioa

### Pantailaren gaia aldatu

Aukeratu  > **Ezarpenak** > **Gaiak**.

Aplikazioetan erabiltzen den gaia aldatzeko, aukeratu **Orokorra**.

Menu nagusiaren gaia aldatzeko, aukeratu **Menu-ikusp.**

Aplikazio baten gaia aldatzeko, aplikazioaren karpeta aukeratu.

Momentuko atzealdeko irudia aldatzeko, aukeratu **Horma-papera**.

Pantaila babeslearentzako irudi bat aukeratzeko, aukeratu **Bater. aurrezl.**

Efektuak pizteko edo itzaltzeko, aukeratu **Orokorra** > **Aukerak** > **Gaiaren efektuak**.

### Profilak


Aukeratu  > **Ezarpenak** > **Profilak**.

Tonuak doitu eta pertsonalizatu egin daitezke, deientzako, abisu tonuentzako, eta gailuaren tonuak gertaera edo dei egile talde desberdinetarako. Profil aktiboa pantailaren goialdean agertzen da hasiera pantailan. Izan ere, profil aktiboa Orokorra bada, gaurko data bakarrik agertuko da.

Profil berri bat sortzeko, aukeratu **Aukerak** > **Berria sortu** eta ezarpenak zehaztu.

Profila pertsonalizatzeko, profil bat aukeratu eta **Aukerak** > **Pertsonalizatu**.

Profila aldatzeko, profil bat aukeratu eta **Aukerak** > **Aktibatu**. Lineaz kanpoko profilak gailua piztea, mezuak jaso edo bidali, edo haririk gabeko LANa, Bluetooth konektibitatea, GPSa edo FM irratia ustekazbez erabiltzea saihesten du; honek profila aukeratzen denean aktibo dauden internet konexioak amaitzen ditu. Lineaz kanpoko profilak ez du geroago haririk gabeko LAN edo Bluetooth konexio bat ezartzea edo GPS edo FM irratia erabiltzea saihesten, horregatik erabili daitezkeen segurtasun neurriak bete hauetako ezaugarriren bat erabiltzerakoan.


Hurrengo 24 orduetako epe bat arte, profil bat aktibo izateko, profilera joan, aukeratu **Aukerak** > **Epea ezarrita** eta ordua zehaztu. Epea igarotakoan profila aurreko epe gabeko profilera itzultzen da. Profilak epe bat duenean,  agertuko da hasiera pantailan. Lineaz kanpo profilari ezin zaio eperik ezarri.

Sortu duzun profil bat ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu profila**. Aurretik zehaztutako profilak ezin dira ezabatu.

### Sentsorearen ezarpenak

Isilarazi deiak edo errepikarazi alarmak telefonoa biratuta.

## Ahots-komandoak

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Sentsore-ezarp..**

Hautatu hurrengoan artetik:

# 15. Ahots-komandoak

Ahots identifikadoreak erabili aurretik, kontuan izan hurrengo hau:

- Ahots idenifikadoreak ez dute hizkuntzaren arabera funtzionatzen. Hitzunaren ahotsaren arabera funtzionatzen dute.
- Izena esaterakoan, grabatu zenuen modu berean ahoskatu behar da.
- Ahots identifikadoreek erraz nabarmentzen dute inguru-zarata. Grabatu eta erabili ezazu ingurugiro isiletan.
- Ez dira onartzen izen oso motzak. Erabili izen luzeak, eta saiatu zenbaki ezberdinentzat antzeko izenak ez erabiltzen.



**Oharra:** Ahots identifikadoreak erabiltzea zaila izan daiteke ingurune zaratatsu batean edo larrialdi batean; beraz, egoera guztietan ez da gomendatzen ahotsez markatutako dietan fidatzea.

Ahots-komandoak erabil ditzakezu telefono deiak egiteko eta aplikazioak irekitzeko eta profilak aktibatzeko.

Telefonoak ahots-etiketa bat sortzen du kontaktu, profil eta aplikazio bakoitzerako. Ahots-komandoak ez dira hiztunaren arabekoak; izan ere gailuko ahots-egiaztapena erabiltzaile

- **Sentsoreak** — Aktibatu sentsoreak.
- **Biratze kontrola** — Isilarazi deiak edo errepikarazi alarmak telefonoa biratuta.

nagusiaren ahotsera egokitzen da ahots-komandoak hobeto igartzeko.

Ahots-komando bat erabiltzeko eduki sakatuta eskuineko aukeraketa tekla eta esan ahots-komandoa garbi. Telefonoak ez badu ahots-komandoa behar-bezala ezagutzen, hautatu aukera emaitza posibleen zerrendan edo hautatu **Irten** uzteko.

## Ahots komandoen ezarpenak

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Ahots-komd..**

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta hurrengoetatik:


- **Sintetizadorea** — Detektatutako ahots komandoak erreproduzitzen dituen sintetizadorea aktibatzea.
- **Erreproduktz. bolumena** — Hizketaren bolumena doitzea.
- **Ezagutze-sentsibilitatea** — Ahots komandoaren detektatze sentsibilitatea doitzea.
- **Komando-egiaztapena** — Ahots komandoak automatikoki, eskuz edo ahots-egiaztepenaren bidez onartu behar diren hautatzea.
- **Ahots-moldaketak ezab.** — Ahots detekzioa berrezartzea gailuaren oinarrizko erabiltzailea aldatzerakoan.



## 16. Denbora antolatu

### Erlojuaren alarma

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **Erlojua**.

Alarma aktiboak eta ez aktiboak ikusteko, ireki alarmaen fitxa. Alarma berri bat ezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Alarma berria**. Errepikapena zehaztu, nahi izanez gero. Alarma bat aktibatuta dagoenean,  azaltzen da.

Alarma isilarazteko, **Gelditu** aukeratu. Alarma aldi batetarako gelditzeko, **Errepikatu** aukeratu. Alarmak jotzerakoan telefonoa itzalita badago, bere kasa piztuko da eta alarmaren tonua joko du.



**Aholkua:** errepikatu moduan ezarritako alarmaren errepikapen maiztasuna zehazteko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Alarma errepika. tarte**.

Alarma bertan behera uzteko, aukeratu **Aukerak** > **Alarma kendu**.

## 17. Bulegoko aplikazioak

### Hiztegia

Aukeratu  > **Antolatzailea** > **Hiztegia**.

Hitzak hizkuntza batetik bestera itzultzeko, idatzi testua bilaketa eremuan. Testua sartzen duzun bitartean, hitz proposamenak agertuko dira. Hitz bat itzultzeko, aukeratu zerrendatik hitz bat.

Ordua, data eta erloju motaren ezarpenak aldatzeko **Aukerak** > **Ezarpenak** aukeratu.

### Erlojuaren ezarpenak

Aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Ordua edo data aldatzeko, aukeratu **Ordua** edo **Data**.

Hasiera pantailan agertzen den erlojua aldatzeko, aukeratu **Erloju mota** > **Analogikoa** edo **Digitala**.

Telefono mugikorraren sareak ordua, data eta ordu-zona eguneratzeko (sare zerbitzua), aukeratu **Ordu-eguneratze autom.** > **Aktibatu**.

Alarma tonua aldatzeko, aukeratu **Erlojuaren alarma-tonua**.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoak:

- **Entzun** — Entzun aukeratutako hitza.
- **Historia** — Bilatu uneko saioan lehenago itzulitako hitzen bat.
- **Hizkuntzak** — Aldatu jatorrizko hizkuntza edo xede hizkuntza.

## Bulegoko aplikazioak

- **Hizkuntzak** — Deskargatu hizkuntzak Internetetik edo ezabatu hizkuntzaren bat hiztegitik. Ezin duzu ingelesa hiztegitik ezabatu. Ingelesaz gain beste bi hizkuntza instala ditzakezu.
- **Hizketa** — Editatu ahots funtzioen ezarpenak. Ahotsaren abiadura eta bolumena doi ditzakezu.

## Bihurgailua

Bihurgailuarekin neurriak unitate batetik bestera bihur ditzakezu.

Bihurgailuak zehaztasun mugatua du eta biribiltze erroreak izan ditzake.

## Moneta bihurgailua

Hautatu  > **Antolatzailea** > **Bihurgailua**.

Hautatu **Mota** > **Moneta**. Moneta bihurketak egin aurretik, oinarrizko moneta bat eta truke-tasak zehaztu behar dituzu. Oinarrizko monetaren izen lehenetsia Etxekoa da. Oinarrizko monetaren truke-tasa beti 1 izango da.

1. **Aukerak** > **Trukeak** aukeratu.
2. Beste monetaren izen lehenetsia Atzerrikoa da. Moneta baten izena aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Moneta berrizendatu**.
3. Moneten truke-tasak gehitu eta hautatu **Eginda**.
4. Beste Unitate eremuan, hautatu bihurketaren emaitzarako erabiliko den moneta.

5. Lehenengo Kopurua eremuan, idatzi bihurtu nahi duzun balioa. Beste Kopurua eremuak automatikoki erakutsiko du bihurtutako balioa.

Oinarrizko moneta aldatzeko, **Aukerak** > **Trukeak** aukeratu, gero moneta eta azkenik **Aukerak** > **Oinar. moneta gisa jarri** aukeratu.

Oinarrizko moneta aldatuz gero, truke-tasa berriak zehaztu behar dira, aurreko truke-tasa guztiak garbitzen baitira.

## Bihurtu neurriak

Hautatu  > **Antolatzailea** > **Bihurgailua**.

1. Mota eremuan, hautatu erabili nahi duzun neurria.
2. Lehenengo Unitatea eremuan, hautatu bihurtu nahi duzun unitatea.
3. Beste Unitatea eremuan, hautatu bihurketaren emaitzarako erabiliko den unitatea.
4. Lehenengo Kopurua eremuan, idatzi bihurtu nahi duzun balioa.

Beste Kopurua eremuak automatikoki erakutsiko du bihurtutako balioa.

## Kalkulagailua

Aukeratu  > **Antolatzailea** > **Kalkulag..**

Kalkulagailuaren doitasuna mugatua da, eta kalkulu errazak egiteko soilik balio du.

Eragiketa bat egiteko, eragiketaren lehenengo zenbakia idatzi. Funtzioen mapan egin nahi duzun eragiketa aukeratu,

adibidez batuketa edo kenketa. Eragiketaren bigarren zenbakia aukeratu eta = sakatu. Kalkulagailuak eragiketak idazteko erabilitako ordena jarraitzen du. Eragiketaren emaitza edizio eremuan geldituko da eta hurrengo eragiketaren lehenengo zenbaki bezala erabil daiteke.

Telefonoak azken eragiketaren emaitza memorian gordetzen du. Kalkulagailutik ateratzek edo gailua itzaltzek ez du memoria ezabatzen. Kalkulagailua berriro irekitzen duzunean gordetako azken emaitza berreskuratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Azken emaitza**.

Eragiketa baten zenbakiak edo emaitzak gordetzeko, aukeratu **Aukerak** > **Memoria** > **Gorde**.

Memorian gordetako emaitzak berreskuratzeko eta ondorengo eragiketan erabiltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Memoria** > **Berreskuratu**.

## Ohar aktiboak

Ohar aktiboekin argazkiak, soinuak eta bideoak dituzten oharrak sor ditzakezu. Oharrak kontaktuei lot diezazkiekezu. Oharra kontaktuarekin hitz egiterakoan erakutsiko da.

## Oharrak sortu eta editatu

Aukeratu  > **Antolatzailea** > **Ohar aktib.**

Ohar bat sortzeko, hasi idazten.


Ohar bat editatzeko, aukeratu oharra eta **Aukerak** > **Editatze aukerak**.

Testuan letra lodia edo etzana erabiltzeko, edo testua azpimarratzeko edo letraren kolorea aldatzeko, eduki sakatuta # eta mugitu testua aukeratzeko. Ondoren, aukeratu **Aukerak** > **Testua**.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

- **Txertatu objektua** — Txertatu irudiak, soinu edo bideoklipak, bisita-txartelak, Interneteko laster-markak eta fitxategiak.
- **Txertatu berria** — Gehitu oharrean elementu berriak. Soinu eta bideoklipak grabatu eta argazkiak atera ditzakezu.
- **Bidali** — Bidali oharra.
- **Lotu oharra deiari** — Aukeratu **Gehitu kontaktuak** ohar bat kontaktu bati lotzeko. Dei bat egiterakoan edo kontaktuaren dei bat jasotzerakoan agertuko da oharra.

## Ohar aktiboen ezarpenak

Aukeratu  > **Antolatzailea** > **Ohar aktib.** eta **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Oharrak non gorde nahi dituzun aukeratzeko, aukeratu **Erabilitako memoria** eta nahi duzun memoria.

Ohar aktiboen diseinua aldatzeko edo oharrak zerrenda gisa ikusteko, aukeratu **Aldatu ikuspegia** > **Sareta** edo **Zerrenda**.

Ohar bat atzealdean ikusteko deiak egiterakoan edo jasotzerakoan, aukeratu **Erak. oharra deian zehar** > **Bai**.



**Aholkua:** aldi baterako deietan zehar oharrak ikusi nahi ez badituzu, aukeratu **Erak. oharra deian**

## Ezarpenak

**zehir** > Ez. Modu honetan, ez dituzu oharren eta kontaktu-txartelen arteko estekak ezabatu behar.

## Quickoffice buruz

Aukeratu  > **Antolatzailea** > **#Quickoffice**.

Quickoffice Quickword-en datza Microsoft Word dokumentuak ikusteko, Quicksheet Microsoft Excel lan-orriak ikusteko, Quickpoint Microsoft PowerPoint aurkezpenetarako eta Quickmanager softwarea erosteko. Microsoft Office 2000, XP eta 2003 dokumentuak (DOC, XLS eta PPT fitxategi formatuak) Quickoffice-ekin ikus ditzakezu. Quickoffice-ren editore bertsioa baldin badaukazu, fitxategiak editatu ditzakezu.

Ez ditu edozein ezaugarri edo formatutako karpetak onartzen.

## Zip kudeatzailea

Aukeratu  > **Antolatzailea** > **Zip**.

Zip kudeatzailearekin, fitxategi berriak sor ditzakezu konprimitutako ZIP formatuko fitxategiak gordetzeko; fitxategi batera konprimitutako fitxategi edo direktorio bat baino gehiago gehitu; babestutako fitxategien pasahitza ezarri, ezabatu edo alda dezakezu; eta ezarpenak aldatu, adibidez konpresioaren xehetasunak eta fitxategien izenen kodeketa.

Fitxategi fitxategiak telefonoaren memorian edo memoria-txartel batean gorde ditzakezu.

## PDF reader

Aukeratu  > **Antolatzailea** > **Adobe PDF**.

PDF reader aplikazioarekin, PDF dokumentuak telefonoaren pantailan irakurri, dokumentuetan testua bilatu, ezarpenak aldatu (zooma, orrien ikuspegia, etab.) eta PDF fitxategiak mezu elektronikoko bidez bidal ditzakezu.

## Oharrak

### Oharrak idatzi

Aukeratu  > **Antolatzailea** > **Oharrak**. Ohar bat sortzeko, idatzi testua. Oharren editorea automatikoki irekiko da.

Oharretan jasotzen dituzun testu arrunt formatuko fitxategiak (.txt fitxategi formatua) gorde ditzakezu.

### Kudeatu oharrak

Hautatu  > **Antolatzailea** > **Oharrak**.

Hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

- **Ireki** — Ireki oharra.
- **Bidali** — Oharra gailu bateragarrietara bidaltzea.
- **Ezabatu** — Ohar bat ezabatu. Hainbat nota ezaba ditzakezu aldi berean. Ezabatu nahi dituzun oharrak markatzeko, hautatu **Aukerak** > **Markatu/Marka kendu** eta ezabatu oharrak.
- **Sinkronizazioa** — Sinkronizatu oharrak gailu bateragarrietako aplikazio bateragarrieekin edo zehaztu sinkronizazio ezarpenak.

## 18. Ezarpenak

### Ezarpen laguntzailea

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpen lag..**

Ezarpenen morroiak telefonoa konfiguratzeko du zerbitzu-hornitzailean oinarritutako operadorearen eta posta elektronikoa ezarpenak zehaztuz. Bestelako ezarpenak ere zehatz daitezke.

Zerbitzu hauek erabiltzeko, zure zerbitzu hornitzailearekin harremanetan jarri beharko zara datu konexioa edo beste zerbitzu bat aktibatzeko.

### Ziurtagiriaren kudeaketa

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Segurtasuna** > **Ziurtagiriaren kudeaketa**.

Ziurtagiri digitalen ez dute segurtasuna bermatzen; softwarearen jatorria egiaztatzeko erabiltzen dira.

Ziurtagiriaren kudeaketa ataleko pantaila nagusian, telefonoan gordetako autoritate ziurtagiriaren zerrenda bat ikus daiteke. Eskuinetara joan ziurtagiri pertsonalen zerrenda bat ikusteko, eskuragarri badago.

Ziurtagiri digitalak Interneteko bankuetara, zenbait webgunetara edo urrutiko zerbitzari batera konektatzeko erabili behar dira, hau da, informazio konfidentziala bidaltzen den ekintzetan. Halaber, birus edo beste software maltzuraren arriskua murrizteko, eta deskargatutako eta

instalaturako softwarearen egiazkotasuna ziurtatzeko ere erabiliko dira.



**Garrantzitsua:** Ziurtagiriak erabiltzeko urrutiko konexioa eta software instalazioarekin lotuta egon daitezkeen arriskuak ia nabarmen gutxitzen dituen arren, ziurtagiri horiek zuzentasunez erabili behar dira segurtasun gehigarri hori benetan aprobetxatu ahal izateko. Ziurtagiri bat izateak soilik, berez, ez du eskaintzen inolako babes motarik. Ziurtagiriaren administratzaileak ziurtagiri zuzenak, egiazkoak edo fidagarriak eduki behar ditu ziurtasun gehigarria erabilgarria izan dadin. Ziurtagirik bizi iraupen mugatua izaten dute. "Ziurtagiri iraungia" edo "Ziurtagiri onartezina" oharrak agertzen badira, ziurtagiriak onargarria izan behar lukeen arren, egiazta ezazu telefonoko data eta ordua zuzenak direla.

### Ikusi zirtagiri xehetasunak—aztertu egiazkotasuna

Zerbitzari batez fidatu ahal izateko, bere ziurtagiriaren sinadura eta baliozkotasuna egiaztatu.

Zerbitzariaren identitatea egiazkoa ez dela edo zure telefonoan segurtasun ziurtagiri egokia ez duzula jakinaraziko zaizu.

Ziurtagiriari buruzko informazioa egiaztatzeko, ziurtagirira joan eta hautatu **Aukerak** > **Ziurtagiriaren xehetas..**

## Datuen kudeaketa

Ziurtagiriaren baliozkotasuna egiaztatzen da eta hauetako oharren bat ikusiko da:

- **Ziurtagiria ez da fidagarria** — Ez duzu ziurtagiria erabiltzeko aplikaziorik zehaztu.
- **Ziurtagiria iraungita** — Ziurtagiriaren baliozkotasun epea iraungi da.
- **Ziurtagiriak oraindik ez du balio** — Ziurtagiriaren baliozkotasun epea oraindik ez da hasi.
- **Ziurtagiri hondatuta** — Ziurtagiria ezin da erabili. Ziurtagiri-hornitzailearengana jo.

## Aldatu fidagarritasun ezarpenak


Ziurtagiriaren ezarpen datutik aldatu baino lehen, ziurtagiriaren jabea konfidantzakoa dela eta ziurtagiria benetan zerrendan dagoen jabearena dela egiazta ezazu.

Autoritate ziurtagiri batera joan eta **Aukerak > Segurtasun ezarpenak** aukeratu. Ziurtagiriaren arabera, aukeraturako ziurtagiria erabil dezaketen aplikazioen zerrenda agertzen da. Adibidez:

- **Symbian instalazioa: Bai** — Ziurtagiri honek Symbian sistema eragileko aplikazio berrien iturriak ziurtatzen ditu.
- **Internet: Bai** — Ziurtagiri honek zerbitzariak ziurtatzen ditu.
- **Aplikazio instalazioa: Bai** — Ziurtagiri honek Java aplikazio berrien jatorria ziurtatzen du.

Hautatu **Aukerak > Segurtas. ezarp. editatu** balioa aldatzeko.

## Osagarri arrunten ezarpenak

Aukeratu  > **Ezarpenak > Ezarpenak eta Orokorra > Osagarriak.**


Osagarri gehienekin, honakoa egin dezakezu:

Gailura osagarri bat konektatzerakoan zein profil aktibatzen den zehazteko, osagarria aukeratu eta **Profil lehenetsia.**

Osagarri bat instalatuta dagoenean 5 segundo eta gero gailuak automatikoki telefono deiak erantzun ditzan, aukeratu **Erantzun automatikoa > Aktibatu.** Dei-tonu mota **Behin bip egin** edo **Isilik** bigarren profilean ezartzen bada, erantzun automatikoa ezgaitzen da.

Gailua osagarri bati konektatuta dagoen bitartean argitzeko, aukeratu **Argiak > Aktibatu.**

## Jatorrizko ezarpenak berrezartzea

Gailuaren jatorrizko ezarpenak berrezartzeko, aukeratu  > **Ezarpenak > Ezarpenak eta Orokorra > Fabrikako ezarp..** Honetarako, gailuaren blokeo kodea beharrezkoa da. Berrezarri ondoren, gailuak pizteko denbora gehiago beharko du. Honek ez du dokumentuetan, kontaktu informazioan, egutegi sarreretan eta beste fitxategietan eraginik.

# 19. Datuen kudeaketa

## Fitxategi kudeatzailea

Aukeratu  > **Antolatzailea** > **Fitxat.-kud..**

Fitxategi kudeatzailearekin, zure telefonoko, memoria txarteleko edo kanpoko unitate bateko fitxategiak araka, kudea eta ireki ditzakezu telefonoan.


Eskuragarri dauden aukerak desberdinak dira aukeratutako memoriaren arabera.


## Aplikazioak instalatu


Hautatu  > **Aplikazioak** > **Aplik. kudtz..**

Instalazio fitxategiak telefonora bidal ditzakezu, ordenagailu bateragarri batetatik, arakutzen ari zarenean deskarga ditzakezu, multimedia mezu gisa jaso, mezu elektronikoko batean eranskin gisa jaso, baita bestelako konektibitate metodoak erabilia lortu ere, adibidez, Bluetooth bidez. Nokia Application Installer erabil dezakezu Nokia Ovi Suite programarekin telefonoan aplikazio bat instalatzeko.

Aplikazio kudeatzailearen aplikazioek ondorengoak adierazten dituzte:

 SIS edo SISX aplikazioa

 Java™ aplikazioa

 widgetak



**Garrantzitsua:** Seguruak diren iturrietako aplikazio eta softwareak soilik instalatu eta erabili. Symbian Signed edo Java Verified aplikazioen proba gainditu dutenak, adibidez.

Instalatu aurretik, ondorengoak kontutan izan:

- Aplikazio mota, bertsio zenbakia eta hornitzaile edo egilea jakiteko, **Aukerak** > **Xehetasunak ikusi** aukeratu.

Aplikazioaren segurtasun ziurtagirien xehetasunak ikusteko, Xehetasunak: atalean, zoaz Ziurtagiriak: aukerara eta aukeratu **Xehetasunak ikusi**.


- Dagoeneko instalatuta dagoen aplikazio baten eguneratze edo konponketa fitxategi bat instalatzen baduzu, jatorrizko aplikazioa berreskuratzeko, jatorrizko fitxategia edo ezabatutako software paketearen babeskopia izan beharko duzu. Jatorrizko aplikazioa berreskuratzeko, aplikazioa ezabatu eta aplikazioa berriro instalatu, jatorrizko instalazio fitxategia edo babeskopia erabilia.

JAR fitxategia beharrezkoa da Java aplikazioak instalatzeko. Hau falta bada, baliteke gailuak deskargatzeko eskatzea. Aplikazioarentzako ez bada sargunerik zehaztu, bat aukeratzeko eskatuko zaizu. JAR fitxategia deskargatzean, baliteke erabiltzaile-izena eta pasahitza behar izatea zerbitzarian sartzeko. Hauek

## Datuen kudeaketa

aplikazioaren hornitzaile edo fabrikatzaileak emango dizkizu.

Software edo aplikazio bat instalatzeko:

1. Instalazio fitxategi bat aurkitzeko, aukeratu  > **Aplikazioak** > **Aplik. kudtz.** Bestela, bilatu instalazio fitxategiak fitxategien kudeatzailean edo **Mezularitza** > **Sarrera ontzia** karpetan ireki instalazio fitxategia duen mezua.
2. Aplikazio kudeatzailean, **Aukerak** > **Instalatu** aukeratu. Beste aplikazioetan, instalazioa abiatzeko, instalazio fitxategia aukeratu.

Instalazioan zehar, telefonoak instalazio prozesuaren berri emango dizu. Sinadura edo ziurtagiri digitalik ez duen aplikazio bat instalatzen baduzu, telefonoak ohar bat erakutsiko dizu. Instalazioarekin jarraitu, aplikazioaren jatorria eta edukia seguruak direla dakizunean soilik.

Instalatatuko aplikazio bat abiarazteko, kokatu aplikazioa menuan eta aukeratu ezazu.

**Aukerak** > **Erregistroa ikusi** aukerara joan instalatu edo ezabatu diren softwareak eta instalazio edo ezabatze datak ikusteko.



**Garrantzitsua:** Zure telefonoak birusen aurkako aplikazio bakarra onartzen du. Birusen aurkako aplikazio bat baino gehiago instalatuz gero, telefonoaren jarduna kaltetu liteke, eta telefonoak funtzionatzeari utz liezaioke.

Memoria-txartel bateragarri batean aplikazioak instalatu eta gero, instalazio-fitxategiak (.sis, .sisx) telefonoaren memorian geratzen dira. Fitxategiek memoria handia har dezakete, beste fitxategi batzuk gordetzea eragotziz. Behar adina memoria izateko, erabili Nokia Ovi Suite instalazio fitxategien segurtasun kopia PC bateragarri batean gordetzeko eta ezabatu instalazio fitxategiak telefonoko memoriatik fitxategi kudeatzailea erabiliz..sis fitxategia mezu baten eranskina bada, ezabatu mezua postontziko Mezularitza postontzitik.

## Aplikazioak eta softwarea ezabatu

Hautatu  > **Aplikazioak** > **Aplik. kudtz.**

Joan software-paketera eta hautatu **Aukerak** > **Desinstalatu**. Baieztatzeko, hautatu **Bai**.

Softwarea ezabatzen baduzu eta gero berriro instalatu nahi baduzu, jatorrizko instalazio fitxategia edo software paketearen babeskopia oso bat beharko duzu. Software pakete bat ezabatzen baduzu, ezin izango dituzu software horrekin sortutako dokumentuak ireki.

Software pakete baten bat ezabatu duzunaren menpe bazegoen, baliteke softwareak gehiago ez funtzionatzea. Informazio gehiagorako, irakurri instalatatuko software-paketearen dokumentazioa.

## Gailuen kudeatzailea

### Urruneko konfigurazioa

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Gailu kudeatzailea**.



Gailuen kudeatzailearekin telefonoko ezarpenak, datuak eta softwarea urrunetik kudea ditzakezu.

Zerbitzari batera konekta zaitezke telefonoko konfigurazio-ezarpenak jasotzeko. Zerbitzu hornitzaileak edo enpresako informazio kudeaketa sailak zerbitzarien profilak eta konfigurazio-ezarpenak bidal diezazkizukete. Konfigurazio-ezarpenek telefonoko aplikazioek erabiltzen dituzten konexio-ezarpenak edo bestelako ezarpenak izan ditzakete. Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

Urruneko konfiguraziorako konexioa zerbitzariak abiarazi ohi du, telefonoaren ezarpenak eguneratu behar direnean.

Zerbitzariaren profil bat sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Zerbitzari-profilak** > **Aukerak** > **Zerbitzari-profil berria**.

Zerbitzu-hornitzaileak konfigurazio-mezu bat ere bidal diezazuke ezarpenekin. Honela ez bada, zehaztu datu hauek:

- **Zerbitzariaren izena** — Idatzi konfigurazio-zerbitzariaren izena.
- **Zerbitzariaren IDa** — Idatzi konfigurazio-zerbitzariaren ID errepikaezina.
- **Zerbitzariaren pasahitza** — Idatzi telefonoa zerbitzarian identifikatzeko pasahitza.
- **Sarbidea** — Hautatu konektatzeko erabili beharreko sarbide puntua edo sortu sarbide puntu bat. Konektatzen zaren bakoitzean sarbide puntua aukeratzeko eskatzea hauta dezakezu. Datu-eramailetzat **Internet** hautatzen baduzu soilik izango duzu ezarpen hau eskuragarri.
- **Ostalariaren helbidea** — Idatzi konfigurazio-zerbitzariaren web helbidea.
- **Ataka** — Idatzi zerbitzariaren ataka-zenbakia.

- **Erabiltzailearen izena** eta **Pasahitza** — Idatzi konfigurazio-zerbitzarian dituzun erabiltzaile-izena eta pasahitza.
- **Baimendu konfigurazioa** — Hautatu **Bai** zerbitzariari konfigurazio-saioa abiaraztea baimentzeko.
- **Onartu auto. esk. denak** — Hautatu **Bai** konfigurazio-saioa abiaraztean zerbitzariak baieztapenik eskatzea nahi ez baduzu.
- **Sare-autentifikazioa** — Hautatu http autentifikazioa erabili ala ez.
- **Sare-erabiltzailearen iz.** eta **Sare-pasahitza** — Idatzi autentifikaziorako erabiltzaile-izena eta pasahitza. **Sare-autentifikazioa** erabiltzea hautatzen baduzu soilik izango duzu ezarpen hau eskuragarri.

Zerbitzarira konektatzeko eta telefonoaren konfigurazio-ezarpenak jasotzeko, hautatu **Aukerak** > **Konfigurazioa hasi**.

Hautatutako profilaren konfigurazio-erregistroa ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Erregistroa ikusi**.

Telefonoaren softwarea hari gabeko konexio bidez eguneratzeko, hautatu **Aukerak** > **Eguneratzeak bilatu**. Eguneratzeak ez ditu zure ezarpenak ezabatzen. Telefonoan eguneratze-paketea jasotakoan, jarraitu pantailako argibideak. Instalazioa osatutakoan telefonoa berrabiarazi egiten da. Software eguneratzeak deskargatzean datu kantitate handiak transferi daitezke (sareko zerbitzua). Eguneratzea hasi aurretik behar adina bateria duzula egiaztatu edo kargagailura konektatu.



**Abisua:** Softwarearen bertsio berriak instalatzerakoan, ezin da telefonoa erabili, ezta larrialdi deietarako ere, instalazioa amaitu eta telefonoa berrabiarazi arte. Egiaztatu datuen segurtasun-kopiak egiten dituzula softwarea eguneratu aurretik.

## Lizentziak

### Lizentziei buruz

Aukeratu  > **Aplikazioak** > **Lizentziak**.

Zenbait multimedia fitxategiak, esaterako irudiak, musika edo bideoklipak, erabilera digitaleko legeekin babestuta daude. Fitxategi horien lizentziek erabilera baimendu edo muga dezakete. Adibidez, zenbait lizentziek abesti bat zenbat aldiz entzun daitekeen muga dezakete. Erreprodukzioan zehar birbobinatu, bizkor aurreratu edo abestia eten dezakezu baina gelditzen baduzu, baimendutako entzumen bat erabili duzu.

### Lizentziak erabili

Eskubide digitalen kudeaketak (DRM) babestutako edukiak, berari dagokion aktibazio kode bat dauka edukia erabiltzeko zure eskubideak azalduz.

Telefonoak OMA DRM bidez babestutako edukia badu, aktibazio-gakoen eta edukiaren segurtasun-kopiak egiteko erabili Nokia Ovi Suiteko funtzioa.

Zure telefonoak WMDRM bidez babestutako edukia baldin badauka, aktibazio-gakoak eta edukia galduko dira telefonoaren memoria formateatuz gero. Aktibazio-gakoak

eta edukia gal ditzakezu zure telefonoko fitxategiak hondatuz gero. Aktibazio-gakoak edo edukia galtzeak, zure telefonoan berriz eduki bera erabiltzeko aukera muga dezake. Informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Zenbait aktibazio gako SIM txartel jakin bati lotuak egon daitezke, eta eduki babestua SIM hori telefonoan sartzen bada bakarrik ikusi ahal izango da.

Lizentziak motaren arabera ikusteko, aukeratu **Baliozko lizentz.**, **Baliogabeko liz.** edo **Erabili gabe**.

Kodeen xehetasunak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Lizentziaren xehet.**

Multimedia fitxategi bakoitzeko ondorengo xehetasunak agertzen dira:

- **Egoera** — Egoera **Lizentzia balioduna da**, **Lizentzia iraungi da** edo **Lizentzia baliogab. oraindik da**.
- **Edukiaren igorpena** — **Baimenduta** fitxategia beste telefono batera bidali dezakezula esan nahi du. **Ez dago baimenik** fitxategia beste telefono batera ezin dezakezula bidali esan nahi du.
- **Telefonoaren edukia** — **Bai** fitxategia telefonoan dagoela esan nahi du, eta fitxategiaren bidea agertzen da. **Ez** fitxategia telefonoan ez dagoela esan nahi du.

Kode bat aktibatzeko, lizentzien ikuspegi nagusian, aukeratu **Baliogabeko liz.** > **Aukerak** > **Lizentzia lortu**. Ezarri sare konexio bat mezua agertzean eta multimediarako eskubideak eros ditzakezun webgune batera eramango zaitu.

Fitxategien eskubideak ezabatzen, ireki Baliozko kodeen fitxa edo Erabiltzen ez diren kodeen fitxa, zoaz nahi duzun fitxategira eta aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu**. Fitxategi baterako eskubide ezberdinak badaude, eskubide guztiak ezabatuko dira.

Taldeko kode ikuspegia talde eskubide batekin erlazionatutako fitxategi guztiak erakusten ditu. Eskubide

## 20. Konexioak

### Transferitu edukia beste gailu batera

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Transferen.**

Datuen transferentzia aplikazioarekin edukia transferi dezakezu, adibidez, kontaktuak, bi Nokia telefono bateragarrien artean.

Gailu igorlearen modeloak mugatzen du transferi daitekeen eduki mota. Beste gailuak sinkronizazioa onartzen badu, telefonoaren eta beste gailuaren artean sinkroniza ditzakezu datuak. Beste gailua bateragarria ez bada, zureak jakinaraziko dizu.

Beste gailua SIM txartelik gabe ezin bada piztu, zure SIM txartela sar dezakezu bertan. Zure gailua SIM txartelik gabe pizten denean, konexiorik gabeko profila automatikoki aktibatzen da.

Beste gailuak Bluetooth konexioa onartu behar du.

#### Edukia transferitu

Beste gailu batetik datuak lehenengo aldiz berreskuratzeko:

1. Aktibatu Bluetooth konexioa bi gailuetan.

berdinak dituzten hainbat multimedia fitxategi deskargatu badituzu, ikuspegi honetan guztiak agertuko dira. Talde ikuspegia Baliozko kodeak edo Kode baliogaben fitxetatik ireki dezakezu. Fitxategi hauetara joateko, ireki talde eskubideen karpeta.

2. Edukia zein gailutik transferitu nahi duzun aukeratu. Zure gailuan kode bat sartzea eskatzen zaizu. Idatzi kode bat (1-16 digitu) eta aukeratu **Ados**. Idatzi kode berbera beste gailuan eta aukeratu **Ados**. Gailuak dagoeneko uztartuta daude.

Modelo batzuek Datuen transferentziarako aplikazioa mezu gisa bidaltzen dute. Transferentzia aplikazioa beste gailuan instalatzeko, ireki mezua eta jarraitu argibideak.

3. Zure gailuan aukeratu beste gailutik transferitu nahi duzun edukia.

Edukia beste gailuaren memoriatik gailu honetan dagokion kokapenera transferituko da.

Transferentziaren denbora transferitzen diren datuen araberakoa izango da. Transferentzia eten eta geroago jarrai dezakezu.

Sinkronizazioa bi norabidetakoa da, eta bi gailuetako datuak berdinak izango dira. Edozein gailutik elementu bat ezabatzen bada, sinkronizatzerakoan beste gailutik

## Konexioak

ezabatuko da; ezabatutako elementuak ezin dira sinkronizazioarekin berreskuratu.

Azken egindako transferentzia baten erregistroa ikusteko, ikusbide nagusian lasterbide bat aukeratu eta **Aukerak** > **Erregistroa ikusi**.

## PCrako konexioak

Zure mugikorra PCrako konexioa eta datu komunikazioetarako aplikazio bateragarri anitzekin erabili daiteke. Nokia Ovi Suite aplikazioarekin, adibidez, telefonotik ordenagailu bateragarri batera fitxategiak eta argazkiak bidal daitezke.

Ovi Suite zerbitzuari buruzko informazio gehiagorako, ikus [www.ovi.com](http://www.ovi.com).

## Bluetootha

### Bluetooth-ari buruz

Bluetooth teknologiak hari gabeko konexioak ahalbidetzen ditu 10 metrotara (33 oin) dauden gailu elektronikoan artean. Bluetooth konexioarekin irudiak, bideoak, testuak, enpresa-txartelak eta egutegiko oharrak bidal daitezke, edo hari gabe Bluetooth teknologia erabiltzen duten beste gailuetara konekta zaitezke.

Bluetooth teknologia erabiltzen duten gailuak irrati-uhinak erabiliz komunikatzen direnez, zure gailuak eta besteek ez dute ikuspen-lerro berean egon beharrik. Bi gailuak elkarrengandik gehienez 10 metrora egotea besterik ez da

beharrezkoa. Halere, konexioan interferentziak egon daitezke hormengatik edo beste gailu elektronikoengatik.

Bluetooth konexio bat baino gehiago egon daitezke martxan aldi berean. Esaterako, gailua aurikularretara konektatuta badago, aldi berean fitxategiak beste gailu bateragarri batera alda ditzakezu.

Telefonoa Bluetooth zehaztapenarekin bateragarria da 2.0 + EDR, eta ondorengo profil hauek onartzen ditu: Audio banaketa aurreratua, urruneko audio/bideo kontrola, oinarritzko irudigintza, oinarritzko inprimatzea, gailuen IDa, telefonia-sare konmutatua, fitxategi-transferentzia, audio/bideo banaketa orokorra, sarbide orokorra, Object Exchange orokorra, eskulibrekoak, (HID) entzungailuak, Object Push, kontaktueterako sarbidea, serie ataka eta SIMerako sarbidea. Bluetooth teknologia onartzen duten beste gailu batzuekiko operatibitatea ziurtatzeko, modelo honetarako Nokia konpainiak onartutako osagarri homologatuak erabili behar dira bakarrik. Beste gailuen fabrikatzaileekin egiaztatu gailu horiek telefono honekin bateragarriak ote diren.

Bluetooth teknologia darabilten funtzioek batera indar gehiago behar dute eta, beraz, bateriaren iraupena murrizten dute.

### Segurtasun gomendioak

Telefonoa ezkutuko moduan erabiliz, software kaltegarria saihesteko aukera gehiago daude. Ez onartu Bluetooth konexioa konfiantzazko iturrietatik ez baldin badator. Beste aukera bat Bluetooth funtzioa desaktibatzea izan daiteke. Honek ez die telefonoaren gainerako funtzioei eragiten.

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Konektibitat.** > **Bluetootha.**

Bluetooth konexioa erabiltzen ez duzunean, aukeratu **Bluetootha** > **Desaktibatu** edo **Nire telef. ikusgaitasuna** > **Ezkutatuta.**

Ez uztartu ezezaguna den gailu batekin.

## Gailuak uztartu

Aukeratu  > **Ezarpenak** > **Konektibitat.** > **Bluetootha.**

Ireki uztartutako gailuen fitxa.

Uztartu aurretik, erabaki zein izango den zure pasahitza (1-16 digitu) eta jarri ados beste gailuaren erabiltzailearekin kode bera erabiltzeko. Erabiltzailearen interfazea ez duten gailuek, pasahitz finkoa dute. Gailuak lehen aldiz konektatzen bakarrik beharko duzu pasahitza. Bikoteak egin ondoren, konexioa baimendu ahal izango duzu. Uztartzeak eta konexioa baimentzeak konexioa azkartzen eta errazten du, konexioa egiten duzun bakoitzean ez duzulako baimendu beharko.

SIMera urrutitik sartzeko pasahitzak 16 digitu izan beharko ditu.

1. Aukeratu **Aukerak** > **Gailu berria uztartu.** Gailuak inguruan bilatuko ditu Bluetooth gailuak. Aurrez Bluetooth konexioa erabiliz datuak bidali badituzu, aurreko emaitzen zerrenda agertuko zaizu. Bluetooth gailu gehiago bilatzeko, aukeratu **Gailu gehiago.**
2. Aukeratu konektatu nahi duzun gailua eta idatzi pasahitza. Beste gailuan pasahitz bera adierazi behar da.

3. Aukeratu **Bai** bi gailuak automatikoki konektatzeko edo **Ez** aldiro konexioa eskuz egin nahi baduzu. Bikotea sortu ondoren, beste gailua bikoteen orrira gehituko da.

Bikoteari ezizen bat emateko, aukeratu **Aukerak** > **Esleitu izen laburra.** Ezizena zure gailuan besterik ez da ikusiko.

Uztartze bat ezabatzeko, aukeratu ezabatu nahi duzun gailuaren uztartzea eta **Aukerak** > **Ezabatu.** Uztartze guztiak ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu guztiak.** Gailu batekin konektaturik bazaude eta gailu honekin uztartzea bertan behera uzten baduzu, uztartzea amaituko da eta konexioa etengo da.

Uztartutako gailu bati zure telefonora automatikoki konektatzen uzteko, aukeratu **Baimendutzat ezarri.** Zure gailuaren eta bestearen arteko konexioak zure ezagutarik gabe egin daitezke. Ez da behar bakoitzaren onarpenik edo baimenik. Erabili aukera hori zure gailuekin, adibidez, aurikular edo ordenagailu bateragarriekin edo fidagarria den norbaiten gailuekin Beste gailuen konexio eskaerak aldiro onartu badituzu, aukeratu **Baimnd. gabetzat ezarri.**

Bluetooth bidezko audio osagarri bat erabiltzeko, adibidez Bluetooth eskulibrekoa edo aurikularrak, zure telefonoa eta osagarria uztartu behar dituzu. Pasahitza eta argibide gehiagorako, ikusi osagarrien erabiltzailearen gida. Audio osagarria konektatzeko, piztu osagarria. Zenbait audio osagarri automatikoki konektatzen dira. Bestela, ireki uztartutako gailuen fitxa, osagarria aukeratu eta **Aukerak** > **Konektatu audio gailura.**

## Bluetooth-aren bidez datuak bidali eta jaso

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Konektibitat.** > **Bluetootha.**

1. Bluetooth konexioa lehenengo aldiz irekitzean, zure telefonoari izen bat emateko eskatuko zaizu. Eman izen berezi bat, Bluetooth gailu gehiago ondoan badaude erraztasunez ezagutzeko.
2. Hautatu **Bluetootha** > **Aktibatu.**
3. Hautatu **Nire telef. ikusgaitasuna** > **Guztiei erakutsi** edo **Aldia zehaztu.** **Aldia zehaztu** aukeratzuz gero, besteentzako ikusgai zauden denbora zehaztu behar duzu. Bluetooth teknologia erabiltzen duten beste gailuen erabiltzaileek zure gailua eta idatzi duzun izena ikus dezakete.
4. Bidali nahi den elementua gordeta dagoen aplikazioa ireki.
5. Aukeratu elementua eta **Aukerak** > **Bidali** > **Bluetooth bidez.** Telefonoak bere eskumenean Bluetooth teknologia erabiltzen duten beste gailuak bilatzen eta zerrendatzen ditu.



**Aholkua:** Aurrez Bluetooth konexioa erabiliz datuak bidali badituzu, aurreko emaitzen zerrenda agertuko zaizu. Bluetooth gailu gehiago bilatzeko, aukeratu **Gailu gehiago.**

6. Zein gailutara konektatu nahi duzun aukeratu. Datuak transferitu aurretik beste gailua uztartu behar bada, pasahitza eskatuko zaizu.

Konektatutakoan, **Datuak bidaltzen** agertzen da.

Mezularitza aplikazioko Bidalitakoak karpetak ez ditu Bluetooth konexioaren bidez bidalitako mezuak gordetzen.

Bluetooth konexioaren bidez datuak jasotzeko, aukeratu **Bluetootha** > **Aktibatu** eta **Nire telef. ikusgaitasuna** > **Guztiei erakutsi** uztartu gabeko gailu batetik datuak jasotzeko edo **Ezkutatuta** uztartutako gailuetatik bakarrik datuak jasotzeko. Datuak Bluetooth konexioaren bidez jasotzen dituzunean, profil aktiboaren ezarpenen arabera, tonu bat entzungo duzu eta datuak dauden mezua onartu nahi duzun galdetuko zaizu. Onartuz gero, mezua Mezularitzako aplikazioaren Sarrerako ontziaren karpetan gordeko da.



**Aholkua:** Telefonoko edo memoria-txarteleko fitxategietan sar zaitezke File Transfer Profile Client zerbitzua onartzen duen eta bateragarria den osagarri bat erabiliz (adibidez, ordenagailu eramangarri bat).

Bluetooth konexioa automatikoki deskonektatzen da datuak bidali edo jaso ondoren. Nokia Ovi Suite eta aurikularrak bezalako osagarriak bakarrik konexioa mantentzen dezakete nahiz eta aktibo ez egon.

## Datu-kablea

Memoria txartela kaltetzea edo datuak hondatze ekiditeko, ez deskonektatu USB datu-kablea datuak transferitzen ari direnean.

## Transferitu datuak telefonoaren eta ordenagailuaren artean.

1. Sartu memoria txartel bat telefonoan eta konektatu telefonoa ordenagailu bateragarri batera USB datu-kablearekin.
2. Telefonoak zer modu erabili galdetzen duenean, hautatu **Masa biltegia**. Modu honekin, telefonoa disko gogor aldagarri gida ikus dezakezu ordenagailuan.
3. Transferitu datuak ordenagailuaren eta telefonoaren artean.
4. Eten konexioa ordenagailutik (adibidez, Windows-en hardwarearen morroian Deskonektatu edo Atera sakatuta) memoria-txartela kaltetzea saihesteko.

Telefonoko irudiak ordenagailu bateragarri batera transferitzeko edo telefonoan gordetako irudiak inprimagailu bateragarri batean inprimatzeko, konektatu USB datu-kablea ordenagailura edo inprimagailura eta hautatu **Irudi-transferentzia**.

USB moduaren ezarpenak aldatzeko, hautatu  > **Ezarpenak** > **Konektibitat.** > **USB**.

USB datu-kablearekin erabili ohi duzun USB modua aldatzeko, hautatu **USB konexio-modua**.

Datu-kablea konektatzen duzun bakoitzean telefonoak modua galdetu dezan ezartzeko, hautatu **Konektatzean gald.** > **Bai**.

Nokia Ovi Suite zure telefonoan erabiltzeko, instalatu Nokia Ovi Suite ordenagailuan, konektatu USB datu-kablea eta hautatu **PC Suite**.

## Sinkronizazioa

Aukeratu  > **Ezarpenak** > **Konektibitat.** > **Sink..**

Sinkronizazio aplikazioarekin oharrak, egutegi sarrerak, testu eta multimedia mezuak, arakatzaillearen laster markak edo kontaktuak zenbait aplikazio bateragarriekin sinkroniza daitezke ordenagailu bateragarri batean edo interneten.

Sinkronizazio ezarpenak zerbitzu-hornitzailearen mezu bere batean jaso ditzakezu.

Sinkronizazio profil batek sinkronizaziorako beharrezkoak diren ezarpenak ditu.

Aplikazioa irekitzen duzunean, profil lehenetsia edo erabili berri den sinkronizazio profila bistaratzen da. Profila aldatzeko, zoaz sinkronizazio elementura eta aukeratu **Markatu** profilean sartzeko edo **Marka ken.** kanpoan uzteko.

Sinkronizazio profilak kudeatzeko, aukeratu **Aukerak** eta nahi duzun aukera.

Datuak sinkronizatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Sinkronizatu**. Sinkronizazioa bertan behera uzteko amaitu aurretik, aukeratu **Utzi**.


## WLAN morroia



**Oharra:** Frantzian WLANa eraikinen barruan soilik erabil daiteke.

## Konexioak

Hari gabeko LAN teknologia darabilten funtzioek batera indar gehiago behar dute eta, beraz, bateriaren iraupena murrizten dute.

Hautatu  > **Ezarpenak** > **Konektibitat.** > **WLAN lagun..**

WLAN morroiak hari gabeko LAN sareak aurkitzen eta haietara konektatzen laguntzen dizu. Aplikazioa irekitzen duzunean telefonoa eskuragarri dauden WLAN sareak bilatzen hasten da eta zerrenda batean bistaritzen ditu.


Hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

- **Freskatu** — Eguneratu WLAN sare eskuragarrien zerrenda.
- **WLAN sareak filtratu** — Iragazi aurkitutako sareen zerrendako WLAN sareak. Aplikazioak WLAN sareak bilatzen dituen hurrengo aldirian, hautatutako sareak iragazi egingo dira.
- **Hasi nabigatzen** — Hasi Web-a arakatzeko WLAN sarearen sarbide-puntua erabiliz.
- **Jarraitu nabigatzen** — Web-a arakatzeko jarraitu momentuan aktibo dagoen WLAN konexioa erabiltzen.
- **WLAN deskonektatu** — Deskonektatu WLAN sarerako konexio aktiboa.

- **Xehetasunak** — Ikusi WLAN sarearen xehetasunak.



**Garrantzitsua:** Zure haririk gabeko LAN konexioaren segurtasuna hobetzeko, kodeketa-metodoren bat gaitu beti. Kodeketa-metodoren bat erabiltzeak inor zure datuetan baimenik gabe sartzeko arriskua murrizten du.

**Hasi nabigatzen** edo **Honetarako erabilia** hautatzen duzunean WLAN morroiak hautatutako WLAN sarearentzako sarbide-puntua automatikoki sortzea nahi baduzu, hautatu  > **Ezarpenak** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Hari gab. LANa** > **Int. konektag. azterketa** > **Autom.i abiarazi.** Sarbide-puntua WLAN konexioa behar duten beste aplikazioekin ere erabil daiteke.

WLAN sare seguru bat hautatzen baduzu, dagozkion pasahitzak zehazteko eskatuko zaizu. Ezkutuko sare batera konektatzeko, dagokion zerbitzu-identifikatzailea (SSID) zehaztu beharko duzu.

Aurkitutako WLAN sarea sareko deien konexio batetarako erabiltzeko, hautatu egoera erakusten duen lerroa, **Honetarako erabilia**, nahi duzun sareko dei zerbitzua eta erabili beharreko WLAN sarea.



## 21. Aholku ekologistak

Hona hemen ingurumena babesten laguntzeko aholku batzuk.



### Energia aurreztea

Bateria guztiz kargatu denean eta telefonoa kargagailutik deskonektatzerakoan, gogoratu kargagailua entxufetik deskonektatzen ere.

Honakoa egiten bada ez da bateria horren maiz kargatu behar:

- Itxi eta ezgaitu erabiltzen ari ez zaren aplikazioak, zerbitzuak eta konexioak.
- Murriztu pantailaren argitasuna.
- Ezarri telefonoa ekintzarik gabeko gutxieneko denbora-eparearen ondoren, telefonoa energia aurrezteko modura pasa dadin, telefonoan eskuragarri badago.
- Ezgaitu beharrezkoak ez diren soinuak, hala nola, teklatuko tonuak. Ezarri telefonoaren bolumena bitarteko mailan, ez altuegi ez eta baxuegi ere.

### Birziklatzea

Telefono zaharra birziklatu duzu? Nokia telefono baten materialen %65-80a birzikla daiteke. Eraman erabilitako

produktu elektronikoak, bateriak eta paketatzeak beti bilketa gune berezietara. Honakoa eginez gero, kontrolik gabeko hondakinen ezabapenak saihesten eta materialen birziklapena sustatzen da. Ikusi nola birzikla ditzakezun Nokia produktuak [www.nokia.com/wecycle](http://www.nokia.com/wecycle) edo [www.nokia.mobi/wecycle](http://www.nokia.mobi/wecycle) helbideetan.

Paketatzearen eta erabiltzailearen gidan birziklatzea lekuko birziklamendu planaren arabera egin dezakezu.

### Papera aurreztea

Erabiltzailearen gida honek telefonoa erabiltzen hasten laguntzen du. Argibide gehiago lortzeko, ireki telefonoko laguntza funtzioa (aplikazio gehienetan, hautatu **Aukerak > Laguntza**). Erabiltzailearen gidak eta bestelako laguntza hurrengo helbideetan aurki dezakezu: [www.nokia.com/support](http://www.nokia.com/support).

### Informazio gehiago

Telefonoaren funtzio ekologikoen informazio gehiago lortzeko, ikus [www.nokia.com/ecodeclaration](http://www.nokia.com/ecodeclaration).

# Osagarriak



**Abisua:** Nokia konpainiak modelo zehatz honekin erabiltzeko homologatutako bateria, kargagailu eta osagarriak bakarrik erabili. Bestelakorik erabiliz gero, onarpen eta bermeak indargabetu litezke eta arriskutsua izan liteke. Onartu gabeko kargagailu edo bateria bat erabiltzeak sute, leherketa, isurketa edo bestelako arriskuren bat suposa lezake.

Osagarri homologatuak non eskuratu daitezkeen jakiteko, jo ezazu zure banatzailearengana. Osagarriren baten kablea kentzeko, entxufetik eutsi eta tira, ez eutsi kabletik.

## Nokia Holder Easy Mount HH-20 euskarria CR-111 modeloarentzako

Nokia Holder Easy Mount HH-20 euskarriarekin Nokia CR-111 telefonoa ibilgailuko haizetakoan eraman dezakezu.

Irakurri argibideak arretaz produktua instalatu eta erabili aurretik.

Produktuak zati txikiak izan ditzake. Haurrek hartu ezin dituzten tokietan gorde.

## Segurtasun argibide orokorrak


Gidatzeko edozein baldintzetan segurua bada soilik erabili euskarria. Euskarria edo haren oina instalatzen duzunean, ziurtatu ez duela azeleragailua, balazta edo gidatzerakoan erabiltzen den beste edozein sistema oztopatzen (adibidez,

airbagak) eta ez duela zure ikuspegia ere oztopatzen. Egiatzatu ez dela airbagen irteera inola oztopatzen. Ziurtatu euskarria edo haren oina ez dagoela istripu edo talka bat izanez gero joko zenukeen tokian. Tarteka, egiatzatu oineko bentosa behar bezala eutsita dagoela haizetakora, batez ere, temperatura aldaketa nabarmenak izan badira. Ez utzi oina ibilgailuaren barruan eguzkiak zuzenean ematen diola edo bero handiarekin. Oina eta bentosa kaltetu egin daitezke eta eransteke gaitasuna gal dezakete barneko tenperaturak +70°C (160°F) gainditzen baditu.

## Lotu euskarria

Euskarria oinera lotzeko, sartu oineko euskailua euskarriaren atzeko zuloan. Biratu euskarria eskuinetara 90 gradu, bere lekuan finko geratzen den arte. Euskarria lotzerakoan, ziurtatu mugikorraren pantaila behar bezala ikusteko moduan geratzen dela erabiltzailearentzat. Zure segurtasunerako, instalatu euskarria zutikako posizioan.


Euskarria oinetik kentzeko, biratu euskarria ezkerreara.



## Ezarri oinarria

Oina haizetakoa ezarri aurretik, bilatu gainazal seguru bat eta garbi ezazu beirak garbitzeko produktu eta zapi leun batekin. Giroko tenperatura +15°C (60°F) azpikoa bada, berotu gainazala eta bentosa ile-lehorgailu batekin, beirara behar bezala eutsiko dela ziurtatzeko. Ez berotu beira gehiegi, kaltetu egin baitaiteke.

Sakatu oinaren bentosa beiraren aurka eta biratu oina eskuinera bentosaren eta beiraren artean hutsa sortzeko. Egiaztatu bentosa behar bezala lotuta dagoela.




## Ezarri edo kendu mugikorra

Ez ezarri edo kendu mugikorra gidatu bitartean. Mugikorra euskarrian ezartzeko, itxi mugikorraren tapa, bultza euskarriaren gaineko euskailuari eta sartu mugikorra euskarrian.

Telefonoaren bateria kargatzeko, erabili kargagailu bateragarri bat.


Kargagailuaren kablea euskarriaren atzean ezartzeko, pasa kablea kable-euskarriaren zulotik eta konektatu kargagailua mugikorraren gaineko kargagailuaren konektorerara.

Telefonoa kentzeko, itxi telefonoaren tapa, bultza euskailuari eta atera telefonoa euskarritik, azpitik bultzatuta.



## Bateria

Bentosa beiratik kentzeko, biratu oina ezkerretara, tira bentosaren ertzeko uhaletik eta tira euskarriari eta oinarriari beiratik kentzeko.



## Bateria

### Bateria eta kargagailuaren informazioa

Telefonoa bateria kargagarri batekin elikatzen da. Telefono honekin erabili beharreko bateria BL-5F da. Baliteke Nokiak bateria modelo gehiago eskuragarri izatea telefono honentzat. Telefono hau ondorengo bateriek emandako energiarekin erabili behar da: AC-8. Kargagailuaren modelo zenbakia ezberdina izan daiteke entxufe motaren arabera. Entxufe ezberdinak ondorengo bidez identifikatzen dira: E, EB, X, AR, U, A, C, K edo UB.

Bateria behin eta berriro karga edo deskarga daiteke, baina azkenean agortu egiten da. Hitz egiteko eta egoneko tarteark ohi baino nabarmen laburragoak badira, bateria aldatu egin beharra dago. Erabili soilik Nokiak onartutako bateriak eta

kargatu bateria Nokiak zure telefonorako diseinaturiko kargagailu homologatuekin soilik.

Bateria lehenengo aldiz erabiltzeko, edo bateria luzaroan erabili ez baldin bada, beharbada kargagailua konektatu, deskonektatu eta berriz ere konektatu egin beharko da bateria kargatzen has dadin. Bateria guztiz deskargatuta baldin badago, kargagailuaren ikurra pantailan agertu arte edo deirik egin ahal izan arte minutu batzuk igaro litezke.

Segurtasunez kentzea. Bateria kendu aurretik, beti telefonoa itzali eta kargagailua deskonektatu.

Modu egokian kargatzea. Kargagailua erabiltzen ari ez bazara, desentxufatu eta telefonotik deskonektatu. Ez utzi guztiz kargatutako bateriarik kargagailura konektatuta, gehiegi kargatzeak bateriaren iraupena labur baitezake.

Gutziz kargatutako bateria erabili gabe utziz gero, pixkanaka deskargatu egingo da.

Saihestu tenperatua altuegiak edo baxuegiak. Bateria 15º eta 25º artean gordetzen saiatu. Tenperatura oso altu edo baxuek bateriaren bizitza eta gaitasuna murrizten dituzte. Baliteke bateria beroa edo hotza duen telefonoak denboraldi batean ez funtzionatzea. Bateriaren errendimendua asko gutxitzen da zero azpiko tenperaturetan.

Ez eragin zirkuitulaburrik. Nahi gabe zirkuitulaburra sor daiteke, metalezko objekturen batek (txanpon bat, klip bat edo axota bat, adibidez) bateriaren terminal positibo (+) eta negatiboak (-) zuzenean konektatzen baditu. (horiek banda metalikoen antza dute baterian). Sakelean edo poltsan ordeko bateria bat eramanez gero hori gerta liteke. Terminaletan zirkuitu-laburrik gertatuz gero, bateria edo konektatutako objektua hondatu egin litezke.

Botatzea. Bateriak ez sutara bota, lehertu egin daitezke eta. Bateriak botatzeko garaian, tokian tokiko arauak bete behar dira. Ahal dela, birziklatu. Ez bota etxeko gainerako hondakinekin batera.

Isurtzea. Ez desmuntatu, moztu, ireki, bihurritu, deformatu, zulatu edo txikitu telefonoa edo bateriak. Isurketarik gertatuz gero, saihestu bateriaren likidoa azala edo begiak ukitzea. Hori gertatuz gero, busti urarekin kaltetutako tokiak ahal bezain laster edo zoaz medikuarengana.

Kaltetzea. Ez ezazu bateria itxuraldatu eta ez iezaiozu objektu arrotzik sartu. Era berean, ez ezazu bateria ur edo beste likidoren batean murgildu edo busti. Bateriak lehertu egin daitezke hondatuta badaude.

Behar bezala erabiltzea. Bateria dagokion helbururako bakarrik erabili. Bateriaren erabilera okerrak sute, leherketa edo bestelako arriskuren bat eragin lezake. Telefonoa edo bateria eroriz gero, gainazal gogor batera bereziki, eta kaltetu egin dela irudituko balitzaizu, eraman ezazu zerbitzu zentroren batera erabiltzen jarraitu aurretik. Ez erabili hondatuta dagoen kargagailu edo bateriarik. Zure bateria umeen eskuetatik urrun mantendu.

## Nokia bateria autentikatzeko jarraibideak

Erabil itzazu beti Nokia bateria originalak zure segurtasunerako. Nokia konpainiaren jatorrizko bateria bat erabiltzen ari zarela egiaztatzeko, erosi bateria Nokia konpainiak baimendutako denda batean eta egiaztatu jatorrizko holograma duela ondorengo pausoak jarraituz:

### Holograma autentikatu

1. Hologramaren etiketa begirtzerakoan, Nokiaren esku elkartuen ikurra ikusi beharko litzateke angelu batetik eta Nokia Original Enhancements logotipoa bestetik.



## Telefonoa zaintzea

- Holograma ezkerrera, eskuinera, gora eta behera okertzean, 1, 2, 3 eta 4 puntu ikusi beharko lirateke alde bakoitzean hurrenez hurren.

Hurrengo urratsak zuzentasunez bete arren, ezin da bateria egiazkoa dela guztiz ziurtatu. Bateriaren jatorria



ezzaguna bada edo edozein arrazoiengatik Nokiaren holograma duen bateria egiazkoa ez dela susmatuz gero, ez ezazu erabili eta eraman ezazu hurbilen duzun Nokia zerbitzu-gunera edo zerbitzu-hornitzailearengana laguntza eskatzeko.

Nokia bateriei buruz gehiago jakiteko, zoaz [www.nokia.com/battery](http://www.nokia.com/battery) helbidera.

## Telefonoa zaintzea

Zure telefonoa diseinu eta fabrikazio bikaineko produktu bat da, eta kontuz erabili behar da. Hurrengo proposamen hauek garantiaren estaldura babesten lagunduko dizute.

- Telefonoa lehor mantentzea ezazu. Euriak, hezetasunak eta mota guztietako likidoak edo egoera bustiek, zirkuitu elektronikoak erdoil ditzaketen mineralak izan ditzakete. Zure gailua bustiz gero, atera bateria, eta utz iezaiozu guztiz lehortzen berriz jarri baino lehen.
- Ez erabili edo gorde telefonoa toki zikin edo hautsez betetako tokietan. Atal higikorak eta osagarri elektronikoak honda daitezke.
- Ez ezazu gorde telefonoa tenperatura hotzak edo altuak dauden tokietan. Tenperatura altuek gailu elektronikoen iraupena laburtu, bateriak hondatu eta plastiko batzuk deformatu edo urtu ditzakete. Telefonoa tenperatura hotzetik bere tenperatura normalera iristen denean, barruan hezetasuna sor daiteke, eta horrek, zirkuitu elektronikoen plakak honda ditzake.

- Ez zaitetz telefonoa gida honetan azaltzen ez den modu batean zabaltzen saiatu.
- Ez ezazu utzi telefonoa lurrera erortzen; ez kolpatu edo astindu telefonoa. Modu zakarrean erabiliz gero, barruko zirkuituen plakak eta atal hauskorrenak apur daitezke.
- Ez ezazu erabili produktu kimiko kaltegarririk, disolbatzailerik edo garbigarri gogorrik telefonoa garbitzeko. Erabili ehun leuna, lehorra eta garbia telefonoaren azala garbitzeko.
- Ez ezazu telefonoa margotu. Margoak atal mugikorak buxatu eta funtzionamendu egokia galarazi dezake.
- Telefonoarekin batera hornitu edo homologatutako ordeko antena soilik erabili. Baimenik gabeko antena, aldaketa edo atxikitako elementuek, gailua hondatu eta irrati tresnen araudien urratze bat suposa ditzakete.
- Kargagailua beti toki baten barruan erabili, ez aire librean.
- Sor ezazu beti gorde nahi duzun datuen segurtasun-kopia bat, kontaktu eta agendako oharra, esaterako.

- Noizean behin telefonoa berrezarri eta honen etekinik onena ateratzeko, itzal ezazu telefonoa eta ken iezaiozu bateria.

Gomendio hauek berdin balio dute telefono, bateria, kargagailu edo beste edozein osagarrientzat.

## Birziklatu

Eraman beti erabilitako produktu elektronikoak, bateriak eta paketatze-materialak dagokien bilketa tokietara. Honela kontrolik gabeko hondakinen erauzketa ekiditen lagunduko duzu eta birziklatzea bultzatu. Egiartzatu produktuaren ingurumenari buruzko informazioa eta Nokia produktuak

birziklatzeko moduari buruzko informazioa [www.nokia.com/wecycle](http://www.nokia.com/wecycle) helbidean edo [nokia.mobi/wecycle](http://nokia.mobi/wecycle) helbidean.



Telefonoan, dokumentazioan edo kaxan agertzen den gurutze batez estalitako zaborrontziak produktu elektrikoak edo elektronikoak, bateriak eta metagailuak funtzionatzeari uzten diotenean biltegi bereziertara eramn behar direla gogorarazten du. Eskakizun hau Europar Batasunean bete behar da. Produktu hauek ezin dira sailkatu gabeko udal-zabortegetian bota. Ingurumenari buruzko informazio gehiagorako, ikus produktuaren ekologia agiria [www.nokia.com/environment](http://www.nokia.com/environment) helbidean.

## Segurtasunari buruzko informazio gehigarria

Telefono honen gainazalak ez du nikelik.

### Ume txikiak

Telefonoa eta honen osagarriak ez dira jostailuak. Zati txikiak izan ditzakete. Haurren eskumenetik kanpo mantendu.

### Inguru eragilea

Telefono honek irrati-frekuentziekiko esposizio-arauak betetzen ditu baldin eta modu egokian erabiltzen bada edo belarritik honako gutxienezko tarte mantentzen bada: 2,2 zentimetro (7/8 hazbete). Soinean eramn ditzakezun zorro babesle, gerriko poltsatxo edo euskarriek ez lukete metalik

izan behar eta telefonoa gorputzetik aurrez aipatutako distantziara eramn beharko zenuke.

Datu-fitxategiak edo mezuak bidaltzeko, kalitate honeko sare konexioa beharrezkoa da. Datu-fitxategiak edo mezuak beranduago bidaliko dira horrelako konexioren bat eskuragarri egon arte. Jarraitu tarteari buruzko argibideak transmisioa amaitu arte.

Telefonoaren atal batzuk magnetikoak dira. Telefonoak material metalikoak erakar ditzake. Ez itzazu jarri kreditu txartelak edo beste biltegitratzeko modu magnetikorik gailuarengandik hurbil; bestela, gordetzen duen informazioa ezabatu daiteke.

## Aparatu medikoak

Irrati-transmisioko ekipoek, telefono mugikorrek barne, modu ezegokian babestutako tresna medikoen funtzionamenduan eragin dezakete. Jarri harremanetan medikuarekin edo gailu medikoaren egilearekin kanpoko irrati-frekuentziaren energiatic ondo babestuta daudela zehazteko. Itzali telefonoa argitaratutako arauak hori egitea eskatzen dizutenean. Ospitaleetan edo osasun zentroetan irrati-frekuentziaren energiarekiko sentikorra den ekipamendua erabil daiteke.

## Medikuntzako tresna inplantatuak

Medikuntzako tresnen egileek hari gabeko gailuaren eta inplantatutako mediku tresnaren artean, taupada-markagailu edo desfibriladoreak esaterako, gutxienez 15,3 zentimetroko (6 hazbeteko) tartea egotea gomendatzen dute medikuntza tresnarekiko egon daitezkeen interferentziak ekiditeko. Tresna hauetakoren bat darabilten pertsonak:

- Eduki haririk gabeko gailua tresna medikotik 15,3 zentimetrotara (6 hazbetetara) baino gehiagotara
- Ez eraman telefonoa paparreko zorro batean.
- Eduki haririk gabeko gailua tresna medikoa dagoen kontrako belarrian.
- Interferentziaren bat dela susmatu bezain laster, itzali hari gabeko telefonoa.
- Jarraitu egilearen argibideak inplantatutako gailu medikoari dagokionez.

Zure haririk gabeko telefonoa medikuntzako tresna batekin batera erabiltzeari buruzko zalantzarik izanez gero, jar zaitez zure sendagilearekin harremanetan.

## Entzuteko aparatuak

Gailu mugikor digital batzuek audiofono batzuetan eragina izan dezakete.

## Ibilgailuak

Irrati-frekuentziako seinaleek ibilgailuetan gaizki instalatutako edo gaizki babestutako sistema elektronikoetan eragina izan dezakete, hala nola, erregaiaren injekzio elektronikoetan, balazten blokeoa saihesteko sistema elektronikoetan, abiaduraren kontrol elektronikoetan edo airbag sistemetan. Informazioa lortzeko, egiaztatu autoaren edo honen ekipamenduaren fabrikatzailearekin.

Langile kualifikatuek soilik ikuska ditzakete telefonoak eta ibilgailuetan instalatu. Behar bezala instalatu edo erabili ezean, arriskuak sor daitezke eta bermea baliogabe daiteke. Egiaztatu erregulariki ibilgailuan instalatutako hari gabeko osagarriek behar bezala funtzionatzen dutela. Ez gorde edo eraman likido sukoiak, gasak edo material lehergarriak telefonoa, haren zatiak edo osagarriak daramatzazun toki berean. Gogoratu airbag-ak indar handiarekin puzten dela. Ez jarri telefonoa edo osagarriak airbag-a aterako den tokian.

Itzali telefonoa hegazkinera igo aurretik. Hari gabeko gailuak hegazkinean erabiltzea arriskutsua izan daiteke hegazkinaren funtzionamendurako eta legez kanpokoak izan daitekeelako.



## Balizko ingurune leherkorrak.

Itzali telefonoa leherketak gertatzeko arriskua badago. Bete argitaratutako argibideak. Txinpartak horrelako inguruetan gertatuz gero, leherketak edo suteak gerta daitezke, kalte fisikoak edo heriotza eraginez. Itzali telefonoa gasolina inguruan dagoenean, gasolindegietan, adibidez. Jarraitu gasolina gordetzen eta banatzen den tokietan erabiltzeko murriztapenak, bai eta gune kimikoetan edo eragiketa arriskutsuak abian direnean ere. Leher daitekeen ingurumena duten lekuak argi eta garbi markatuta egon ohi dira, baina ez beti. Zure autoaren motorra itzaltzeko eskatzen zaizun tokiak, itsasontzietako bizkar azpian, transferentzia kimikoak egiteko edo biltegiratzeko eraikuntzak eta aireak alea, errautsa edo metalezko partikulak dituen ingurumenak barne. Likido egindako petroleo-gasa erabiltzen duten autoen egileekin egiaztatu behar duzu (butano edo propano, esaterako) hurbilean gailu hau segurtasunez erabil daitekeen zehazteko.

## Larrialdi deiak



**Garrantzitsua:** Telefono mugikorrek, telefono hau barne, irrati-seinaleak, haririk gabeko eta lehorreko sareak eta erabiltzaileak programatutako funtzioak erabiliz funtzionatzen dute. Zure gailuak Internet bidezko ahots-deiak onartzen baditu (interneteko deiak), mugikorra eta interneteko telefonoa biak aktibatatu. Honela, telefonoak larrialdi deiak egiteko mugikorraren sarea eta Internet-hornitzailea erabiliko ditu aktibatuta badaude. Ez da uneoro konektatzeko aukera izatea ziurtatzen. Ez zaitetz inoiz egon

telefono mugikor baten menpe komunikazio garrantzitsuetarako, adibidez, osasun larrialdi baterako.

Larrialdiko deiak egiteko:

1. Telefonoa itzalita baldin badago, piztu ezazu. Seinaleak behar besteko indarra daukan begiratu. Telefono motaren arabera, baliteke ondorengoak ere egin behar izatea:
  - SIM txartel bat sartu, telefonoak bat badarabil.
  - Aktibatu dituzun zenbait dei murrizketa ezgaitu.
  - Aldatu profila Hegaldi modutik edo Lineaz kanpoko modutik modu aktibo batera.
2. Sakatu amaitzeko tekla behar bezain beste pantaila ezabatzeko eta telefonoa deietarako prestatzeko.
3. Sartu zauden tokiko larrialdi zenbaki ofiziala. Larrialdi zenbakiak tokiaren arabera alda daitezke.
4. Sakatu deitzeko tekla.

Larrialdi dei bat egitean, eman ezazu beharrezko informazio guztia ahalik eta zehatzen. Zure gailu mugikorra komunikatzeko modu bakarra izan daiteke istripu bat dagoen tokian. Deia ez bukatu hori egiteko baimenik ez den bitartean.

## Ziurtagiri informazioa (SAR)

**Telefono honek irrati uhinekiko arriskuari buruzko arauak betetzen ditu.**

Zure telefono mugikorra irrati-igorlea eta irrati-hargailua da. Araudi internazionalak gomendatzen duten irrati uhinekiko

## Segurtasunari buruzko informazio gehigarria

arrisku egoerara ez heltzeko diseinatua dago. Araudi hauek ICNIRP elkarte zientifiko independenteak garatu ditu eta pertsona guztiak babesteko marjina daukate, adina edo osasuna kontutan izan gabe.

Telefono mugikorren arriskuen kontrako araudiak Berariazko Absortzio Tasa (Specific Absorption Rate) edo SAR moduan ezagutzen den neurri unitate bat erabiltzen du. ICNIRP araudian ezartzen den SAR limitea 2.0 watt/kilogramo (W/kg)-koa da, 10 gramoko ehunean erabilia batezbeste. SAR probak funtzionamendu posizio estandarretan egiten dira, telefonoak potentzia mailarik altuenean transmititzen duen bitartean probatutako frekuentzia banda guztietan. Funtzionatzen ari den telefono baten kasuan kasuko SAR maila, gehiengo balioaren azpitik egon daiteke, zeren telefonoa sarea atzitzeko behar duen indarra erabiltzeko bakarrik diseinatuta baitago. Kantitatea faktore batzuen arabera alda daiteke, adibidez, sare estazio gunek batekiko zein hurbil zauden.

SAR balio altuena ICNIRP araudien arabera telefonoa belarrian erabiltzeko honakoa da: 1,03 W/kg.

Telefonoaren osagarriak erabiltzeak SAR balio ezberdinak eman ditzake. SAR balioak proba eta informazio nazionalen eskakizunen eta sareko bandaren arabekoak izan daitezke. SAR-i buruzko informazio gehiago jasotzeko kontsultatu ezazu produktuari buruzko informazioa helbide honetan: [www.nokia.com](http://www.nokia.com).

# Aurkibidea

## A

- adierazleak** 14
- ahots komandoak**
  - ezarpenak 64
- ahots-komandoak** 23
- ahots-postontzia**
  - deitu 24
  - zenbakia aldatu 24
- aktibazio kodeak** 74
- antena** 11
- aplikazioak instalatu** 71
- arakatzailea**
  - cache memoria 58
  - deskargak 57
  - edukiak bilatu 57
  - ezarpenak 59
  - laster markak 57
  - orriak arakatu 55, 56
  - segurtasuna 58
- atzeko irudia** 63
- audio mezuak** 42
- aurikularrak** 18

## B

- bateria** 10
  - energia aurreztu 20
  - karga-maila 14
  - sartu 9

- bateria aurrezpena** 16
- bidaltzea**
  - Bluetooth-a erabili 78
- bideo deiak** 25
- Bideo Zentroa** 61
- bideo zentroa**
  - deskarga 61
  - ikusi 61
- bideo-deiak**
  - ahots-deira aldatu 25
  - dei bat egin 25
- bideoak partekatzen**
  - bideoklipak partekatu 28
  - zuzeneko bideoak partekatu 28
- bihurgailua** 66
- bilatu** 62
  - kontaktuak 50
- Bluetooth-a**
  - gailuak baimendu 77
  - pasahitza 77
  - uztatu 77
- Bluetootha**
  - datuak bidali 78
  - datuak jaso 78
  - segurtasuna 76
- bolumenaren kontrola** 17

## C

- cache memoria** 58

## D

- datu konexioak**
  - PCrako konexioak 76
- datuen konexioak**
  - sinkronizazioa 79
- datuen sinkronizazioa** 79
- debeku pasahitza** 17
- dei guztiak amaitu aukera** 22
- dei-tonuak**
  - kontaktuak 50
- deia zain** 22
- deiak**
  - ahots-postontzia 24
  - dei-tonuak isilarazi 24
  - deia zain 25
  - deitzaile IDa 25
  - egin 22
  - erantzun 24
  - ezarpenak 25
  - internet deiak 29
  - konferentzia deia 24
  - markaketa bizkorra 23
  - mota aukeratu 25
  - sare dei abisua 25
  - ukatu 24
  - ukatu testu-mezu batekin 25
- deiak desbideratzea** 26
- deiak egin** 22
- deiak murriztu** 27

## Aurkibidea

deitzaile IDa 25  
deskargak 57  
Deskargatu! 18

## E

### e-maila

konfiguratzea 44

### egutegia 51

bilera eskaerak 51

ikuspegiak 52

kokapena 52

sarrerak sortzea 51

### entzungailua 18

### Erlojua

ezarpenak 65

### erlojuaren alarma 65

### erregistroa 24

### erreproduzitu

mezuak 43

### ezarpenak

ahots komandoak 64

arakatzailea 59

berrezarri 70

deiak 25

erlojua 65

internet deiak 30

konfigurazioa 11

ohar aktiboak 67

osagarriak 70

sarea 27

ziurtagiriak 69

ezarpenen morroia 69

## F

fidagarritasun ezarpenak 70

fitxategi kudeatzailea 71

## G

### gaiak

aldatzen 63

gailuen kudeatzailea 72

## H

hasierako pantaila 13

### hizkuntza

aldatu 41

hiztegia 65

## I

idazketa-hizkuntza 41

informazio zerbitzuko mezuak 46

Internet bidezko dei zerbitzuak

kudeatzen 30

internet deiak 29

aktibatzen 29

egiten 29

ezarpenak 30

kontaktuak blokeatzen 29

Interneteko konexioa 55

Ikus, halaber, *arakatzailea*

iparrorratza 34

itzali telefonoa 11

## J

jatorrizko ezarpenak 70

jatorrizko ezarpenak

berrezarri 70

## K

kablea 78

kalkulagailua 66

### kamera

argazkiak atera 54

bideoak 55

kokapen informazioa 55

tresna-barra 54

### konexio metodoak

Bluetootha 78

datu-kablea 78

konexiorik gabe 16

konferentzia deiak 24

konfigurazio ezarpenak 11

kontaktuak 48, 49

bilatu 50

dei-tonuak gehitu 50

ezarpenak 50

kokapena 49

kontaktu direktorioa 50

kontakatuen taldeak 49

sinkronizatu 79

**L**

laguntza aplikazioa 19  
 laster markak 57  
 lizentziak 74

**M**

mapak 33  
 adierazleak 35  
 arakatu 35  
 ezarpenak 38  
 gidatu 36  
 historia 36  
 ibilbideak 36  
 iparrorratza 34  
 kokapenak bidali 36  
 kokapenak bilatzea 35  
 kokapenak gorde 36  
 lizentziak 34  
 Nokia Map Loader 39  
 oinez 37  
 Ovi sinkronizazioa 38  
 trafikoa eta segurtasuna 37  
 markaketa bizkorra 23  
 memoria  
 ezabatzea 20  
 webaren cachea 58  
 memoria txartela 9, 10  
 menu ikuspegia 16  
 menua 16  
 mezu irakurtzailea 43

**mezuak**

deiak ukatzeko mezuak 25  
 ezarpenak 46

**Minimapa 56**

MMS (multimedia mezuen  
 zerbitzua) 42  
 moneta

bihurgailua 66

**mugarriak 39****multimedia**

RealPlayer 31

**multimedia mezuak 42**

musika erreproduzitailea  
 erreproduzitu 30

**N****Nokia Map Loader 39****Nokia Musika Denda 62****O****ohar aktiboak 67**

ezarpenak 67

**oharrak 68****operadorea**

aukeratu 27

**ordenagailuaren konexioak 76**

Ikus, halaber, *datu konexioak*

**ordua eta data 65****ordua eta data automatikoki**

eguneratu 65

**orriaren ikuspegi orokorra 56****osagarriak 82**

ezarpenak 70

**Ovi Mapak 38****P****pantaila**

adierazleak 14

aldata itxura 63

**pantaila babesle animatua 63****pantaila-babesa 63****partekatu sarean 60****PDF reader 68****pertsonalizazioa 63****PINa 17****piztu telefonoa 11****posta elektronikoa**

bidali 44

deskonektatu 45

eranskinak deskargatu 45

ezarpen orokorrak 45

irakurri 44

**profilak**

pertsonalizatu 63

sortu 63

**PUKa 17****R****RealPlayer 31****S****sarbide kodeak 17**

## Aurkibidea

### sare deiak

abisu ezarpenak 25

### sarea

ezarpenak 27

### Sarean partekatu

sarrerak sortu 60

### sartu

bateria 9

SIM txartela 9

### segurtasun kodea 17

### segurtasun modulua 17

### segurtasuna

Bluetootha 76

web arakatzaila 58

ziurtagiriak 69

### seinalearen indarra 14

### sentsoreak 63

### Share online

harpidetu 60

zerbitzuak aktibatu 60

### SIM txartela

mezuak 46

sartu 9

### sinadura, digitala 69

### SMS (mezu laburren zerbitzua) 42

### software-eguneratzea 20

## T

### teklak eta atalak 12

### testu

hizki modua 40

input tradizionala 40

zenbaki modua 40

### testu input tradizionala 40

### testu iragarlea 41

### testu mezuak

bidaltzea 42

ezarpenak 46

SIM mezuak 46

### testua

testu iragarlea 41

## U

### UPINa 17

### urruneko datu-base bilaketa 50

### urruneko konfigurazioa 72

### USB datu-kablea 78

### uztartu

gailuak 77

pasahitza 77

## W

### web konexioa 55

### WLAN

sarbideak 79

### WLAN morroia 79

## Z

### zerbitzu komandoak 46

### zerbitzuaren mezuak 43

### Zip kudeatzailea 68

### ziurtagiri pertsonalak 69

## ziurtagiriak 69